


ttipi-ttapa



Zinemagintza izan du hizpide Ekaitz Bertiz Apezetxea sunbildarrak / 9



Gorka Lurnagarekin larrialdi klimatikoaz eta energia berriztagarriez / 36



19 urteko ibilbidearen ondotik errugbia utzi du Asier Arretxeak / 50



ZOKKETA / 60



BERTAKO HAZIAK EZ GALTZEKO LANEAN ARI DIRA LEITZAN

Bertako hazien egoera zein den ezagutu eta bilketa lana egiten ari dira Leitzaan. Herritarrek, elkarlanean, alez ale bilduma osatzen ari dira. / 12

PABLO FEO

Hemen da (H)ilbeltza

Euskal Nobela Beltzaren Astearren hamargarren edizioa hilaren 22tik 28ra eginen dute Baztanen. / 41


DIEGO RIVERO, 1 - ORDIZIA  843 671 780 / 666 005 939



ERAIKINAK ETA TEILATUAK ZAHARBERRITZEN DITUGU.

ORO HAR, ERAIKINETAKO ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEN DITUGU ETA PROIEKTUAK PRESTATZEN ETA GAUZATZEN DITUGU.



BARNEALDEAK ERE.



IGOGAILUAK ERE.

 www.vasilereformas.com



21

Urtarrila

DONEZTEBE

Herriguna

10

Otsaila

LUMBIER

Hiritar-zentro

17

Otsaila

ZANGOZA

Palacio Valle Santoro

16

Martxo

ORBAITZETA

Kultur ola

23

Martxo

ALTSASU

Gaztegunea

24

Martxo

OTSAGABIA /

Hiritar-zentro

ESCAPE ROOM

IBILTARIA

CEDERNA

GARALUR

LANDA-KONEXIOAREN ERRONKA

ESCAPE

THE CITY Dinamizazioak

DOAINIK - Izen ematea derrigorrezkoa



Izena eman



UNIÓN EUROPEA



Gobierno de Navarra



Nafarroako Gobernua



Irag



cederna garaluz



ZONA MEDIA



Teder



consorcio EDER



Informazio gehiago: conectanavararural.org



CONECTA NAVARRA RURAL



LANDA NAFARROA LOTU



NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Entzun eta isil

Aitzinekoan, kotxeko depositua bete bitartean, hitz-aspertuan aritu nintzen gasolindegian zegoen batekin: erria iragarria zutela, fresko zegoela... Halako batean, isiltasuna haustea helburu zuen elkarrizketa hartan, ez dakit zeren harira, honakoa bota zidan parean nuenak: «Horiek kanpotik etortzen dira hemen lan egitera eta hemengoak lanik gabe uzten dituzte». Hitzik gabe gelditu nintzen. Ustekabean harrapatu ninduen eta ez nintzen gai izan deus erantzuteko.

Garesti ordaindu, kotxea hartu eta alde egin nuen, gasolindegikoarekin haserre. Zera pentsatu nuen: «Zer uste duzu etorkinak gustuz etortzen direla? Zure atta ez al zen Extremaduratik etorri Lesakako fabrikarat lanera? Nork zaintzen du zure ama?». Eta, handik guttura, neure buruarekin haserretu nintzen: «Urde mottela, zergatik ez diozu deus erran?».

Geroztik, arantzatxoa gelditu zait. Halakoetan, pentsatzea ez da aski izaten, desadostasuna adierazi behar da, bertzenaz, nahi gabe bada ere, gure isiltasunak halako ideiak indartzen ditu.

«DESADOSTASUNA ADIERAZI BEHAR DA, PENSATZEA EZ DA ASKI»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Txapeldunorde

2022-23 denboraldiko ligan bigarren izan zen Real Sociedad futbol taldean denera 91 minutu jokatu zituen jokalaria eta ordurako buruko arazoak zituen Zuhaitz Gurrutxagak lan gazi-gozoa ondu du bakarriketan (abenduan Iturenen izan zen, igandean Berara etorriko da) eta liburuan, umoretik (*drama+denbora=komedia*, dio). Biak gomendagarriak.

NABARMENTZEKOAK



ANITA AIERDI
LEITZAKO EMAKUMEA

Abenduaren 29an zendu zen Anita Aierdi leitzarra. Herriko ondarea eta hizkera aski ongi zekizkien, eta plazan aizkoran aritutako lehenengo emakumeetariko bat izan zen.



EGOITZ GOROSTERRAZU
BERTSOLARIA

Bortzirietako Taldekako Bertso Txapelketan Kotto saria irabazi du Iturenko bertsolariak. Bertso onenaz gain, egindako ibilbidea saritu nahi izan diote. Zorionak!

GIBELERA BEGIRA



2014-01-09 · TTIPI-TTAPA · 605 zk.

Aintzane Mariezkurrenarekin dementziaz

Duela 10 urte urteko lehen aldizkarian Aintzane Mariezkurrenarekin erizaina, psikologoa eta AFANeko kidea izan zen protagonista, *Dementziaren bat duten gaixoak etxean nola zaindu* izenburupean hitzaldiak ematen aritzen zen. 15 urte zeramatzan osasun mentaleko sailean lanean eta dementzia duen aitaren zaintzaz ere arduratzen zen. Hainbat kontu interesgarri kontatu zituen, tartean hau: «Zaintzaile profesionalentzat ere ez da egoera xamurra izaten, baina, zaintzailea senideren bat denean soka estutu egiten da ez dagoelako distantzia emozionalik. Kasu hauetan batzuei kosta egiten zaie ulertzea, beren aitak edo amak, aitonak edo amonak jokatzeko moduan jokatzeko dutela gaixorik daudelako».

 **ttiipi-ttapa**

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Tiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena, Irune Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Ana Iturbide, Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola, Maitane Maritorea, Arantza Iturralde, Arantza Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Jean Louis Bessonart, Ganex Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

 mecna

 BAZTANGO euskara

 BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

 Malerrekako Mankomunitatea

 CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Aski da! 'Basta ya'!

Egun on, *buenos dias*. Zer moduz? *¿Que tal?* Harrituta? *Extrañado?* Zergatik? *¿Por que?* Horrelaxe eskribitzen dira «euskal» eskualde gisa izendatutako eremu honetan idazki gehienak, gurasoendako jakinarazpenak, oharrak... km zero-*km cero*, kultura-*cultura*, musika-*música*, kontzertua-*concierto*... Noiz artio? *¿Hasta cuándo?*

Egun on-ak ez du *buenos dias*ik behar ondoan, esker milak *gracias*ik ere ez. Euskara bera bakarrik bada nor ondoan bertze hizkuntza bat izan gabe. Ez da errespetua, ez da elkarbizitza, eta ez da bizikidetzatza euskararekin batera bertze hizkuntza batzuk bizi direla «argudiotako» harturik, espainolez edo frantsesez egin behar izatea aldiro-aldiro. Zapaldua eta zapaltzailea ondoan paratzea ez da errespetu kontua, erasotua eta erasotzailea berdin tratatzea ez da berdintasuna. Laguntza eta zaintza, behar duenari eman behar baitzaizkio, eta ez dena baduenari.

Pertsonendako balio duenak, hizkuntzendako ere berdin balio du, eri dagoena euskara da. Hortaz, eri dagoen hizkuntzari eta itotzen ari zai(zki)on hizkuntzei maila bera ematea, eria hiltzera kondenatzea da. Elebitasunaren izenean, elebakarrak manatzen du, nahiz jakin badakigun elebitasun orekaturik ez dela existitzen.

**«ULERTZEN EZ
GAITUZTENEA
ULERTUKO
GAITUZTE»**

Komunitate batean hizkuntza bat baino gehiago «bizi» badira, beti nagusituko da bat bertze(ar)en gainetik. Gure kasuan euskararen ondoan espainola edo frantsesa paratzeak euskararen zapalkuntza

betikotzen du, euskaraz ez jakiten segitzeko eskubidea betikotzen du. Elebitasunaren abantailak goratu beharrean, elebikeriaren kalteez solastatzen hasi beharko genuke. Elebitasunean bizi garela onartuz, bi hizkuntzak gureak direla onartzen ari gara, estatu hizkuntzaren eta bizitzeko lanak dituen hizkuntza propioaren arteko menderakuntza eta zapalketa mozorrotzeko hitz aproposa. Euskara-espainola/frantsesa beharrean, Espainiako/Frantsiako banderak hartuko bagenu, gure banderatako hartuko genituzke? Errespetuaren eta elkarbizitzaren izenean Espainiako bandera gurea ere badela onartuko dugu?

Hemen bi hizkuntza (elkarrekin) bizi direla erratea iruzur egitea da, lehenik eta behin, hemen bi hizkuntza baino gehiago daudelako, baina hemengo hizkuntza bat eta bakarra da. Hizkuntza eta hitzak ez dira egundaino neutroak izan(en), eta elebitasuna, elkarbizitza, errespetua... erabiliz, zapaltzailea zapalduarekin parekatzen ari gara.

Telesforo Monzonek proposatutakoaren bidetik, akaso, ordua dugu, «erdara greba» egiten hasteko, ulertzen ez gaituztenean ulertuko gaituztelako!



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Ongi etorri

Abenduaren 16an Eibarko Astelena pilotalekuan Euskal Herriko Kontseilu Sozialista (EHKS) aurkeztu zuten 1.500 lagunek. Bertan azaldu zuten, Euskal Herriko Mugimendu Sozialistaren erreferente politikoa izanen da, eta komunismoa langileon artean hegemoniko bihurtzea izanen du helburu.

Mugimendu Sozialistak hasieratik kritikatu izan ditu instituzioak zein alderdi instituzionalak, eta bada EHKSren sorrera ongi ulertu ez duenik ere. Alderdiak kritikatzetik alderdi bat sortzera?

Hasteko eta behin, zehaztu behar da EHKS ez dela alderdi bat, mugimendu politiko baten erreferentzia nagusia izanen den antolakundea baizik. Baina alderdiaz solas egiten dugunean ere, ez dugu alderdi instituzionalaz solas egiten. Alderdi komunistak, gizartearen zati bat (alderdi bat) bertze modu batean antolatzeari egiten dio erreferentzia, burgesiaren alderdiarekin talkan egonen dena.

Bi alderdi mota daude, beraz, ikuspegi marxistatik: Burgesiaren alderdia eta langile klasearena. Burgesiaren alderdiak kapitalismoaren jarraipena bilatuko luke, eta alderdi komunistak, berriz, klaserik gabeko gizartea ezartzea, langileok produzitzen duguna langileon eskuetan geldituz, burgesiak ebatsi beharrean.

**«KOMUNISMOAK
AUKERA POLITIKO
ERREAL GISA
AGERTU BEHAR DU»**

Burgesiaren alderdiak burgesiaren sistema mantentzea helburu izanik, hainbat espresiotan agertzen zaigu: Eskuin muturretik hasi eta ezkerreko alderdi sozialdemokratetara, kolore guztietako alderdiak.

Denek kapitalismoaren biziraupena helburu, batzuk itxuraz modu autoritarioagoan eta bertzeak modu justuago batean antolatu nahirik, konturatu gabe klase gizarte batean bizi garen bitartean ez dagoela modu justuagorik. Are gutxiago pastela gero eta txikiagoa denean, aspaldian bizi dugun krisia dela eta (horregatik prezio gero eta garestiagoak, lege gogorragoak...).

Marxismotik planteatzen den langileon alderdiak sistema honen gaintzea planteatzen du, ez sistema honen gestioa. Instituzioetatik kanpo antolatuz (baina aldi berean instituzioetan parte hartzea baztertu gabe, beti ere agitazio eta propaganda begira) langileon botere propioa sortzea: Munduaren ikuskera komunistak bat zabalduz, ekonomia propio bat garatzeko pausoak emanez, etxebizitzaren esparruan antolatu eta etxebizitzak geureganatuz, logika kapitalistatik kanpoko kultura sustatuz, eta abar eta abar. Komunismoak aukera politiko erreal gisara agertu behar du berriz ere langileon imajinarioan, errealtateko egunerokotasun miserablearen gainetik.

Alderdi komunistak momentu edo fase konkretu bati egiten dio erreferentzia, langileriak gauzak aldatzeko influentzia erreala duen momentu bati. Horretarako bi baldintza markatzen dira: Langileriaren gehiengoaren babesa edukitzea alderdi horrek eta langileriaren momentuko arazo nagusiei aurre egiteko maila internazionalen antolatzearen beharra. Bi baldintza horiek konplitzeko bidea egiteko jaio da EHKS.

11 GALDERA LABUR

HAIZEA TXOPERENA CONDE LESAKAKO MOTORZALEA

«Lesakako Rallysprinta berezia da niretzat»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Kuriositate handiko pertsona, hagitz mugitua eta esperientzia berriak probatzea gustatzen zaion abenturazalea.

Zein dira zure zaletasunak?

Motorraren munduarekin zerikusia duen edozer gauza, gehienbat rallyak. Bidaiatzea ere ikaragarri gustatzen zait, baita mendira joatea eta irakurtzea ere.

Nondik heldu zaizu motorrekiko zaletasuna?

Ttikitan anaiak moto-kroseko motoa zuen, eta zirkuituetara ibiltzera joaten ginen. Horrek nire jakin-mina piztu zuen. Urte batzuk beranduago, aitarekin Lesakako Rallysprinta ikustera joan nintzen aldi parebatez, eta aunitz disfrutatunuen.

Noiz hasi zinen rallyekin?

2019ko uztailean izan zen nire lehenbiziko lasterketa eta, nola ez, etxekoa izan beharra zuen: Lesakako XVI. Rallysprinta. Momentu horretan nire bikotea zena igoeretan ateratzen zen, eta rallyetara saltoa eman behar zuenean berarekin kopilotu ateratzea eskaini zidan eta animatu nintzen.

Zein da kopilotuaren lana?

Lasterketan zehar pilotuari bidea nolakoa den errateaz gain, frogarekin zerikusia duen informazio guztia jakiteaz arduratzen gara, baita bete beharreko ordutegiak betetzen ditugula ziurtatzeaz ere.

Ziharka Sport taldeko kide zara.

Zein proba antolatzen dituzue?

Lesakako Rallysprinta eta Slalom, eta Ibardingo Igoera.



PELI AVIM

Gustukoen duzun proba?

Bat aukeratzekotan, Lesakako Rallysprinta aukeratu nuke, beti izanen da berezia niretzat. Ingurukoetan, Malerrekako Rallya ere gustuko dut, hagitz konpletua da.

Eta autorik gustukoena?

Galdera zaila... ezinen nuke bat aukeratu, desberdinak probatzea da dibertigarriena. Motorzaletasun handia ikusten dugu eskualdean?

Bai, beti egon da zaletasun handia, baina azkeneko ur-

teetan haunditu egin dela erranen nuke, Nafarroako txapelketako lasterketa aunitz gure eskualdean egiten direlako.

Zure asmoak epe motzera?

Automobilismoan, hurrengo urtean lur gaineko Focus kopan parte hartuko dut. Pertsonek, bizitza disfrutatzen segitzea.

Eta epe luzera?

Asfalto gaineko txapelketa oso bat burutzea, eta ahal den guztia bidaiatzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Esker onez

MARI CRUZ GOÑI ETA FAMILIA

Abenduaren 15ean nire senarrak medikuarekin hitzordua zeukan. Xoraturik jaiki zen, ez zen gauza harat joateko eta etxera etortzeko eskaera egin genuen. Mirentxu eta Agurtzane, Arizkungo kontsultategiko bere medikua eta erizaina deitu, eta libratu ziren bezain laster etxera etorri ziren. Ez dut hitzik adierazteko zeinen ongi artatu zuten, maitasunez, profesionaltasunez, bere ezagutza guziaz bere zerbitzura jarritz. Anbulantzia deitu eta beraiek ere ahal izan zuten guziaz egin zuten. Helikopteroa ekarrarazi zuten, baina alferrik, ahalegin guziak ez zuen fruiturik eman. Hitzak eskas dira bizitakoa adierazteko, profesionalen eskutik jasotako arreta eta lan egiteko modua azpimarratzekoak izan dira, nahiz eta emaitza ez izan espero zena. Gure esker ona adierazi nahi diegu hain ongi artatu zuten osasun langileei eta anbulantziako teknikariei.

Dena iraultzen segituko dugu!

ANE BERASAIN

BERAKO GOLDATZ TALDE FEMINISTAREN IZENEAN

Azaroaren 25ean, eraso matxisten kontrako egunaren kari, Goldatzek hainbat ekintza antolatu zituen. 12:00etan indarkeria matxistaren kontrako ibilbidea egin genuen. Agerran hasi, eta herri guzian zein egun zen oroitarazi genion jendeari, ez zelako larunbat soil bat izan, sistema heteropatriarkalak emakumeen kontra eragiten dituen indarkeriei aurre egiteko eguna baizik.

Ibilbidean, Euskal Herrian 2023an indarkeria matxistak eraildako emakumeen eskelak jarri genituen, baina, dirudienez, herrian norbait ez dago horrekin ados eta jarritako kartelak zirriborratuta, eraildako emakumeak berrerasotu zituen eta bide batez, feminista izendatzen garen emakume guziak. «*Feminazis de mierda*» idatzi zuten kartelaren gainean, eta «sistema patriarkala» ezabatu. Hori ere eraso da, mugimendu feministaren kontrako eraso eta ez dugu onartuko, ozen salatzen dugu!

Bide beretik, azaroaren 30eko greba informatuz jarritako kartelak ere kentzen ibili zen norbait. Grebarekin bat egin dugun guztion kontrako eraso da eta hau ere, ez dugu onartuko. Horrelako

erasoak normalizatzeko eta garrantzia kentzeko ez gaude prest. Argi dugu, emakumeak kikiltzeko eta gure borrokak gutxieteko ekintza hauek eraso matxisten bertze adiera bat direla, ur azpian gelditzen den izebergaren oinarria. Hauen aitzinean ere, autodefentsa feminista erabil dezagun.

Ezin aipatu gabe utzi, karteleei egindako eraso ikusi eta gaintik idatzi duen kide feministaren inizatiba. Mila esker! Horrelako ekintza txikiak ere autodefentsa feminista dira. Erasoak jasan ditugu, baina ez gara geldituko. Greba prozesu osoarekin zaintzaren gaia erdigunera ekarri eta politizatu dugu, eta sistema osoa aldatu eta denon bizitzak bizigarriak diren jendarte feminista bat lortu arte, goldeak egiten duen gisan, dena iraultzen segituko dugu.

Bizitza ez da berriztagarria

IÑAKI SANCHEZ LAFUENTE

MALERREKA BIZIRIK PLATAFORMAREN IZENEAN

Urte bat joan da gure eskualdean Zelena Renovables SLU eta Elicio Eólica SL enpresek garatu nahi zituzten mega-proiektu eolikoaren berri izan genuenetik. Mamu horien itzal beldurgarria gure mendi artean sumatu eta berehala herritar batzuk biltzen hasi gara proiektu horien nondik norakoak aztertu, adituen informazioa bilatu eta biziartean artean eztabaida-guneak zabaldu nahian.

Gaur egun makroproiektu horien egoera hau da: **Irakurri** parke eolikoaren kokapena (Zelena Renovables): Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien. Potentzia: 132 kW. Industria departamenduak baimendu du sarearekiko lotura; **Azkua** parke eolikoaren kokapena (Zelena Renovables): Etxalar, Igantzi, Sunbilla eta Arantza. Potentzia: 132 kW. Industria departamenduak baimendu du sarearekiko lotura eta Usana parke eolikoaren kokapena (Elicio Eólica): Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien eta Zubieta. Proiektu hau itzulia izan da (momentuz!) sareak ez baitu energia ebakutzeko ahalmenik.

Nazioarteko enpresa horien helburua ez da gure behar energetikoak modu jasangarrian asetzea. Hemen sortutako energia kanpoan saltzea da beraien negozioa (administrazioen babesaz).

Aerosorgailu erraldoi horien neurria beldurgarria da (ia 200 metroko altuera!) eta beraiek instalatzeko egin beharko

liratekeen triskantzak itzulezinak: 6-8 metroko zabalerako pistak, porlanezko zapata ikaragarriak lurrian, tutueria lurperatzeko kilometro luzetako zangak eta batzaz beste 20 urteko bizitza duten aerosorgailuak bertan gelditu.

Eskualdean utziko lituzketen balizko onurak (lanpostuak, udalei bideratutako ordainak...) hutsaren hurrengoak dira jasoko genituzkeen kalteen aldean: gure etxe eta lur eremuek galduko luketen balio katastrala (inmobiliarietako ongi dakite), gizakiok, animaliek eta landareek nozituako genituzkeen osasun arazoak.

Argi dago energia fosilei agur esan behar diegula nahitaez. Energia iturri berriztagarri eta garbiei atea ireki behar dizkiegu, baina presioak ez gaitu itsutu behar. Trantsizio hau nola egin dago jokoan eta denok ideiak eta jokamoldeak aldatu behar ditugu: gure kontsumo ohiturak eztabaidaren erdigunera ekarri eta kontzeptu berriei buruz hausnartuz (desazkundera, energia komunitateak...).

Horretarako ahalik eta informazio garbiena trukatzeko ezinbestekoa da erabaki arrakastatsuek hartuko baditugu. Planetaren etorkizuna dago jokoan eta gure aldetik herritarren parte hartzea galarazi nahi duten proiektuei alternatiba eraginkor eta demokratikoekin erantzun behar diegu. Garaiz gaude, gu, paraje hauetako biztanleok eta ondare natural eta historikoa gure arbasoengandik jaso dugunok modu sostengarrian pasa diezaiegun ondoko belaunaldiei.

Honetaz solastatzeko eta gure indarrak biltzeko urtarrilaren 14an 12:00etan Iturengo Herriko Etxean egingen dugun ekitaldira gonbidatzen zaitugu.

Lurrak bizi gaitu. Lurra behar dugu.

12 argibide makroberri-
tagarriek zergatik ez duten
funtzionatzen ulertzeko

IRANTZU PIQUERO ETA MATTHIAS KRÜGER

HAIZEA BIZIRIK

1- Ekoizten duten elektrizitatea baino lehengai eta energia fosil gehiago gastatzen dituzte euren eraikuntzan, garraioan eta instalazioan.

2- Krisi ekologiko larritzen dute, kontrakoak pentsarazi nahi badigute ere, CO₂ gasen isurketa eta beroketa globala areagotzen dituztelako.

3- Alemania energia eolikoaren aitzindaria eta horien porrotaren erudia da. Planta nuklear guziak itxi eta horien

partez 30.000 dorre eoliko instalatu dituzte. Gaur egun, Alemaniak Frantziak baino lau aldiz CO₂ gehiago isurtzen du kilowatt bakoitzeko. Energia eolikoak, nahiz eta izugarri hedatuak izan, ikatz zentralen mende daude. Hori gutti balitz, 50 gas zentral gehiago eraiki nahi dituzte (fracking) eta Europako energia elektrikoaren inportatzaile haundiena da; Poloniako ikatzetik eta Frantziako energia nuklearretik lortutako elektrizitatea inportatzera behartuak daude. Makroberriztagarriekin sareak har dezakeena baino gehiago ekoizten dutenean, planta fotovoltaikoak edo eolikoak osorik itzali behar dituzte, eta elektrizitatea prezio inbertituan saldu, hau da, ordainduz. Iberiar penintsulan ere horrelakoak gertatzen hasiak dira. Markel Peñalbak eta gainerakoek ezarritako bidea segituz, Alemanian baino okerrako bukatuko dugu, Frantziako eta Alemaniako kolonia energetiko bihurtuak. Eta burugabeko proiektu horietan xahututako dirua, benetako transizio baterako baliabideak eta ikerketa behar dugu.

4- Makroberriztagarriek ez dute bakarrik funtzionatzen; gas, ikatz edo energia nuklearren zentralen beharra dute beti.

5- Energiaren garraioan galera hondatzaileak sortzen dituzte, % 85era artekoak izan daitezkeen galerak. Hori kontuan hartuta, galdera bat: zergatik ez dago makroberriztagarrien eremurik Madrilan? Penintsulako hiri jendetsuena da, energia gehien kontsumitzen duena.

6- Makroberriztagarriek gure lurra eta iturriak suntsitzen dituzte, erabilgaitz bihurtuz, behar ditugun elikagaiak eta ura galaraziz.

7- Nola izan daiteke elektrizitatea soluzioa, erabiltzen dugun energia guztiaren % 20 bakarrik baldin bada? Gainerako % 80a energia fosiletik dator, elektrizitatearekin ordezkatu ezin dena. Nafarroan ekoiztutako energiaren % 30 Frantziara esportatzen dugu. Ez dugu energia gehiago beharrik, soberan dugu.

8- Dirulaguntzei esker bizi dira. Dirulaguntzarik gabe ez dago makroberriztagarririk. Sortzen den energia ez

da tokiko beharrak asetzeko, espekulazio hutsa da, esportatzeko merkantzia.

9- 15-20 urteren buruan makineria zaharkituko da, eta ezin izanen du martxan segitu. Inork ez ditu erretiratuko, gastu haundia izanen delako, eta kutsatzen segituko dute.

10- Baliabideen eskasia ailegatzean, nork eta nola mantenduko eta konponduko ditu makina horiek?

11- Haize errotak geldirik daudenean (bana bertze denboraren erdia baino gehiago), energia kopuru haundia kontsumitzen dute, baita martxan ere.

12- Energia aldizka eta modu ez fidagarrian ekoizten dute. Sortutako energia ezin daiteke biltegitatu, biltegitate bateriak ez dute funtzionatzen. Inbertitutako hidroelektrikoek ez dute funtzionatzen. 'Hidrogeno berdeak' ez du funtzionatzen. Auto elektrikoa bertze porrot antiekologiko bat da.

Ukrainako guda amaituta, zer?

JOAN MARI BELOKI KORTEXARENA

Ukrainako guda amaitzekotan da. Goi agintarien erabakia bakarrik falta da. Europako Batasunak bere armategi guztiak hustu dituen arren eta, neurri handi batean baita AEBek ere. Urritik aurrera arazoa gaindiezina bihurtu zaie Hamasek Israeli hilaren 7ko kolpea eman ziolarik. Israeli milaka bonba, tanke eta gainerako tresneria bidali beharrak Ukraina eskas geratzera kondenatu du. Hortaz gain, ekonomikoki Ukraina lur jota dago. Hala ere, arazo larriagoa dute tropa kopuruarekin. Hildako soldaduen ehunka milakoa da eta, gudan zehar zauritu, elbarritu, errenditu, desagertu eta atxilotuena gehituta, kopurua milioira hurbil daiteke. Gudarako jenderik gabe geratzen ari da eta galtzen dituen soldaduak ordezkatu ezinik. Kolapsotik oso gertu dago.

Bitartean Errusiaren armada egunetik egunera bizkorrago dago. Bere industria militarrek ekoizpena hainbat bider handitu du, arma modernoagoak sortzen ditu eta Ipar Korea eta Iran lagunak


ondoan dauzka arma gehiago nahi adina emateko. Bere ekonomia ere indartuz doa; aurten BPGak % 3,5 egingen du gora, European horren erdira ere iritsiko ez delarik. Errusiak orain armada indartsuena dauka European. Horri gehitu behar zaio nahi izanez gero hamarka mila soldadu gehiago mobiliza lezakeela epe motzean. Une honetan armada errusiarra eroso sentitzen da frontean eta badaki guda irabazia duela. «Operazio militar berezi» honen helburuetako bat Ukraina desmilitarizatzea denez, ez du armada etsaia kolpatzeari uzteko presarik.

- Noren esku geratuko da gudari amaiera ofiziala ematea? Gaur Zelenskiren esku dago. Bihar auskalo. AEBetako agintariak ordezkoa bilatzen ari omen zaizkio. Dena den, bake-mahaian eseriko denak Errusia irabazlearen exijentziak onartu beharko ditu, NATO bertara ez iristea lehen puntua delarik.

- Nolako Ukraina geratuko da guda amaituta? Krimea, Luhansk eta Donetsk dagoeneko Errusian txertatu dira betiko. Zaporozhie eta Jersonok Errusiaren baitan geratuko dira sarri. Odessa, Jarkov eta beste hainbat eskualdek ere Errusiaren barruan buka lezakete. Poloniak Galiza berreskuratzeko asmoa du. Hungariak eta Errumaniak ere badute Ukrainan garai batean berenak ziren zati bana. Hortaz, nolako Ukraina geratuko den ikustekoa izanen da.

- Ukrainako gobernu berria: 2014an boteregune guztiak naziek eskuratu zituzten. Geroztik soilik ideologia faxistak izan du landua izateko eskubidea. Politika horrek eta bere gidariek ez dute lekuri izanen bihurtu Ukrainan. Herriarrek hautatutako politikariek politika herriaragoa egin beharko dute: kartzelak hustu, alderdi politikoak eta sindikatuak legeztatu, itxitako komunikabideei berriz bideak zabaldu... Puntu honek bete-betean egiten du bat Errusiaren Ukraina desnazifikatzeko helburuarekin eta ziur bake-mahaian azalduko dela lehen egunetik.

Hausnarketa osorik: <https://blogak.eus/euskaal-heritik>.



Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?


'Maila' eta 'Mahaia' nola ahoskatu?

«Yeismo delakoa iritsi da eskualde honetako herrietara ere». Halaxe idatzi zuen Patxi Iñigok 2007an argitaratu zuen *Bortzirietako hizkeraren* zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan liburuxkan. Eta 17 urte beranduago, kontua ez da aldatu. Gainera, TTIPI-TTAParen eskualde osoan gero eta gehiago zabaltzen ari da; «lkaragarria da nola hedatu den», erran du: «Gero eta haur eta gazte gehiagori kostatzen zaie *ll* ahoskatzea, eta batzuei ezinezkoa zaie. *L*ren partez y egiten dute. Horrela, berdin-berdin ahoskatzen dituzte *maila* eta *mahaia* > *maya*; *oihua* eta *oiloa* > *oyua*...».

Patxi Iñigok gaineratu duenez, «gauza bertsua gertatzen da ts kontsonantearekin. Gure eskualdean nabarmenki ahoskatu izan da orain artio kontsonante hori. Baina hondar urteetan tx ahoskatzen du haur eta gazte anitzek: *itxua* (itsua), *itxusia* (itsusia), *otxoa* (otsoa), *lotxa* (lotsa), *matxa* (mahatsa), *pentxatu* (pentsatu)...».

Hieroglifikoa

Zer erabiliko duzu marrazteko?



Zein da zuzena

'*Loreak usaintzen du' edo 'Loreak usain ona du'?

Euskaltzaindiak ohartarazi duenez, 'usain egin' adieran (*du* aditza), kalko desegokia egiteko arriskua egoten da erdarazko (es) *oler* / (fr) *sentir* aditzekin. Erdarazko *oler/sentir* aditzek bi joko onartzen dituzte: *La flor huele bien* / *La fleur sent bon*; *Las abejas huelen la flor* / *Les abeilles sentent la fleur*. Lehenbiziko adieran, euskaraz, ez da komeni usaindu aditza erabiltzea.

***Loreak usaintzen du** > Loreak usain ona/ederra du / Loreak usain ona ematen du.

***Amoniakoak gaizki usaintzen du** > Amoniakoak usain txarra du.

Bertze hauek, ordea, egokiak dira:

-Txakurra hurbildu zitzaion, galtza zaharrak usaindu zituen eta gibelego hanka altxatzen hasi zen.


-Usaintzen dut, amasan hartzen dudala erranen nuke.

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Zinemak nahi dudana kontatzeko askatasuna ematen dit»

EKAITZ BERTIZ APEZETXEA SUNBILLAKO ZINEMAGILEA

Zinemagintzako ikasketak egiten ari da Sunbillako gaztea eta hainbat film egin ditu dagoeneko, baita sariak hartu ere. Hainbertze gustatzen zaion bide horretan segitu nahi du lanean

G. PIKABEA SUNBILLA

20 urte bertzerik ez ditu Ekaitz Bertiz Apezetxeak (Sunbilla, 2003), baina zinemaren munduan bere arrastoa uzten ari da. Hainbat film luze eta labur sortu ditu dagoeneko, eta egin-dakolanaren aitortza ere hartzen hasia da, bere lanetako batzuk saritu baitituzte. Kontent eta ilusioz sumatu dugu Sunbillako gaztea, hainbertze maite duen bide horretan ereiten segitzeko gogotsu. Gaur egun, Terrassako (Bartzelona, Herrialde Katalanak) Escac unibertsitatean Zinematografia Gradua egiten ari da. Ikasturte hau izanen du hondarrekoa, eta hortik sortuko du bidean duen bertze film laburra. Orain artekoaz eta hemendik aitzinerakoez aritu da ТИПИ-ТТАПАРЕКИН. **Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?**

Alaia, mugitua eta beti gauzak ikasteko prest dagoen mutil bat naiz. Munduak kristoren jakin-mina sortzen dit, eta naturaren eta gizakien alderdirik ezkutuenak ezagutzen saiatzen naiz. Horrek lotura zuzena du ikasten ari naizenarekin. Aldi berean, naturarekin lotura handia dutela pentsatzen dut, beti ingurunean gertatzen diren gauzak ulertzen saiatzen naiz. Dena den, neure burua hagitz polita deskribatu dut, baina Leo bat naiz eta aunitzetan nire burugogorkeriak presentzia handia du. Zerbait lortzen ez badut, ez dago hori burutik aterako didanik.

Zer afizio dituzu?

Afizio aunitz ditut, baina bi munduren artean banatzen dira, nahiz eta aunitzetan, biak bat egiten saiatzen naizen. Alde batetik, kirola eta natura maite ditut. Kirola nire bizitzan hagitz garrantzitsua da, batez ere, kanpoan egiten dudana. Gorputza nekatu bidenabar, haize freskoa hartzea eta paisaia ikusgarrietan ibiltzea maite dut. Kirol bat baino gehiago egiten ditut, baina batez ere eskalada eta mendian ibili. Altueran eta adrenalinarekin bizirik sentitzen naiz, eta bi kirol horiek emozio horiek ematen dizkirate. Bertetik, bidaiatzea aunitz maite dut, paisaiak ikusi, kulturak

ezagutu, toki exotikoetan kirola egin, lurralde bakoitzeko berezitasunak eta arrotz egiten zaizkigun ohiturak ikasi... Nire bertze afizio nagusiak zinema eta argazkilaritza dira. Tikitatik gustatu izan zait artearen mundua: antzerkia, eskulanak, dantza... Etxekoengandik eskuratu dudala uste dut: ama ile apaintzailea da, dantzaria eta eskulanekin aritzen da, aita arte handia du eskultura gisakoak egiten, Arantzako atautxi egurrezko eta burdinazko kamioiak eta kotxeak eta birziklatutako materialekin eskulanak egiten aritzen da, Sunbillako atautxi kaikuekin... Aunitzetan galdetu izan dit jendeak zinemagintza-



Bertizen 'Hitza Eman Nion' film laburreko irudi bat.

«SARIAK LAN HOBEAK SORTZEN SAIATZEKO MOTIBAZIO DIRA»

«AURPEGI EZEZAGUNEK FILMAK BEREZI EGITEN DITUZTE»

ko afizioa nondik heldu zaidan. Eta gure familian ez dago zinemazalerik, baina zinema arte guztien nahasketa dela ulertzen dut: antzerkia, argazkilaritza, eszenografia, gidoia, musika, dekoratuen eraikuntza, arropen diseinua eta prestaketa, makillajea, ile apaindegia... Nik uste hortik heldu zaidala afizioa. Horrez gain, beti gustatu izan zait istorioak asmatzea eta munduak, pertsonaiak, egoerak... sortzea. Zinemak nahi dudana kontatzeko askatasuna ematen dit. Izan ere, norberak aukeratzeko du zer den kontaktu nahi duen hori kontatzeko ikusleari erakutsiko diona, eta zer den ikuslearen irudimenean sortzen utziko duena. Hori da azken finean zinemaren grazia.

Zer moduko esperientzia izaten ari da Bartzelonako egonaldia?

Hagitz esperientzia aberasgarria. Etxetik kanpo egoteak badakigu zenbat onura dituen. Horrez gain, unibertsitatean hainbertze jende klaserekin tratatzeak bertze hainbat gauza erakutsi dizkit. Hasieran arrotza egiten zitzaidan, baina poliki-poliki zure tokia egiten duzu, eta horrek aunitz balio du zer nahi duzun eta zer ez oartzeko. Gero eta argiago dago konfort eremutik ateratzea ona dela, beti ikasten baita zerbait, mundu guztiak duelako zerbait erakusteko. Unibertsitatean egoteak balio izan dit bizi garen tokian bizitzeagatik zenbateko suertea dugun eta ditugun harremanak zeinen baliagarriak diren oharatzeko. Gainerakoan, irakasgaiei dagokionez, aunitz ikasi dut.

Zergatik hartu zenuen bide hori? Argi nuen zinemaren alorretik jo nahi nuela, eta zerbait buruan sartzen bazait, egiteko beharra sentitzen dut. Hala ere, ez zen kapritxo bat, benetan bizi dut. Eta horrekin batera, gurasoek eta familiak beti lagundu didate, eta suerte horri esker, mundu mailako ikasketak egiteko aukera izan dut.

Dagoeneko hainbat film egin dituzu. Zer kontatuko zeniguke?

Eustakio filma koronabirusaren ondoko garaian egina da, —>



Bertiz zinematografia ikasketak egiten ari da Bartzelonan. Aurtengoa azken ikasturtea izanen du eta ikasketa bukaerako bere lana *Erreka zoko hortan* filma izanen da.

—> lagunekin eta familiarekin. Nire bigarren film luzea da, eta urkatze misteriotsu batzuek herriko kuadrilla batean zenbaterako eragina duten kontatzen du. *Eklipsi morala* unibertsitateko lehenbiziko film laburra izan zen. Leurtzan grabatu nuen nire lagun minekin: Garazi Etxalar, Lorena Mariñelarena, Mikel Mariezkurrena eta Olatz Mutuberriarekin eta osaba Daniel Bertizekin. Pelikula mutua da, eta sorginen inkisizio garaiko gertaera bat kontatzen digu, non deabrua ez den hain deabru, eta aingerua ez den aingeru. *Baserría hartu du gaitzak*, berriz, lehenbiziko mailan grabaturiko azken laburra da. Baserrí bateko familiaren istorioa kontatzen digu Saioa bikiaren ikuspuntutik. Aitak eta amak, sufrimendua akitzeko, gurpildun aulkian dagoen Aintzane alaba pozoituko dutela ohartuko da Saioa. Tragedia gertatu aitzinetik anai-arrebak Aintzanearen ametsa betetzen saiatuko dira: itsasoa ikustea. *Hitza eman nion* lanean Teresa eta Martín umezurtz gelditu dira eta Pilartxo dute zaintzaile. Hala ere, anai-arrebek ez dute inguruan neska onartuko, ezin izanen baitute hil berri zaien aitari agindu zioten zeregin susmagarrian lan egin.

Zer ikasi duzu lan bakoitzarekin?

Gauza aunitz. Akatsak ez errepikatzen saiatzen zara. Joan den urteko film laburrerako bederen gauza bat argi ikasi dut: pertsonaia protagonista bakarra aukeratzea. Orain arte ez dut argi utzi noren ikuspuntutik kontatu istorioa, eta horrek ez du laguntzen ikusleak protagonistarekin erabateko identifikazioa izaten.

Egindako lanaren aitortzak hartzen ari zara. *Eklipsi morala*, adibidez,

Madrilgo III. Actrum, International Film Jaialdian saritu zuten eta *Hitza eman nion* lanak EITB Ikusleen Saria hartu zuen Lekeitioko 46. Euskal Zine bileran...

Hagitz kontent nago emaitzekin. Edozein moduz, beti ni zoriontzen naute zuzendaria izateagatik, baina lan bakoitzaren gibelean talde handia dago: ekipo artistikoa (aktoreak) eta teknikoa (kameren gibeleguziak). Pelikula baten emaitza denona da, denok paratu bai-

tugu zati tiki bat azken emaitza osatzeko. Eta polita eta hunkigarria da talde osoa hainbertze lan eman eta denbora hartu digun proiektuaz gozatzeko jaialdi bateko pantaila baten aitzinean jartzen gareneko momentua. Aitortza horiek lanean segitzeko bulkada dira, eta lan hobeak sortzen saiatzeko motibatzen naute.

Erantzun ona izaten ari dira...

Bai, eta hitz politikak aditzea hagitz polita da, gustatu egiten zait. Nori ez? Baina kontziente naiz hainbat akats egin ditudala pelikuletan, eta horiek hobetzeko kritika egiten dutenei aditzea gustatzen zait. Kanpoko ikuspegi objektiboa baliagarria da ondoko proiektuetan akatsak ez errepikatzeke.

Lagunak eta familiarekoak paratu izan dituzu aktore. Zer moduz?

Familiakoek eta lagunek nire proiektuetan parte hartu nahi izateak kristoren harrotasuna sortzen dit. Gainera, hainbatek kameran aitzinean balio dutela ikusita, zergatik ez ari beraiekin? Bertzeek, berriz, kameren gibelego lanean kristoren laguntza ematen digute. Gisa berean, aktore ez profesionalekin grabatzea erronka moduko bat dela iruditzen zait. Ez dute inoiz aktore klaserik hartu, eta ondorioz, zuzentzeak bertze

Labur-labur

- **Ikus entzunezko lan bat?** *The Witch*.
- **Zuzendari bat?** Robert Eggers.
- **Telebista edo zinema duzu nahiago?** Zinema.
- **Zein genero duzu nahiago?** Beldur psikologikoa.
- **Grabatzeko kamara bat?** Arri Alexa Classic.
- **Filmatzeko toki bat?** Leurtza.
- **Fikzioa edo egiazko istorioak nahiago dituzu?** Aurreiritzi aunitz daude dokumentalen eta fikziozkoak ez diren istorioen inguruan, eta hori halaxe kontsumitu dugulako da. Unibertsitatean, ordeak, begiak zabaldu zaizkit, inoiz ikusi gabeko dokumentalak erakutsi baitizkigute. Dena den, niri fikzioa gehiago gustatzen zait.
- **Bartzelona edo Euskal Herria?** Euskal Herria.
- **Kirol bat?** Eskalada.
- **Nora bidaiatuko zenuke?** Nora ez? Bat aukeratzekotan, Kanadara.
- **Amets bat?** Lagunekin eta familiarekin ekoiztako film luze batekin munduari bira ematea.

behar batzuk eskatzen ditu. Nire kasuan hagitz eroso sentitu naiz. Bertzetik, ezagunak ez diren aurpegiak agertzeak pelikulak berezi egiten ditu. Pelikularen magian gehiago sartzen laguntzen du, bertze lanek ez duten berezitasuna bermatuz. Beraz, beraiekin segituko dut lanean.

Euskara, euskal kultura, gure herriak eta paisaiak... Horiek ere ageri dira zure lanetan. Zergatik?

Bartzelonara joan nintzenean segidan sumatu nuen etxearen falta: nire mendiak, kultura, ohiturak, jendea, hizkuntza... Nostalgia moduko bat sortu zitzaidan eta horregatik hasi nintzen gai horiek lantzen. Baina ez da arrazoi bakarra; izugarri maite ditut gure bazterrak, gure kulturaren misterioak, euskara... Hori guztia ikusarazten saiatzen naiz, Euskal Herri-tik kanpo gure berri ematen.

Zer egoeratan ikusten duzu euskarazko zinemagintza?

Euskarazko zinemagintzak ikaragarriko indarra duela seguru nago. Kanpoko jendeak hagitz ongi hartzen du. Euskara bera hagitz hizkuntza berezia da, eta hori da arrazoi nagusia. Benetako jakin-mina duen jendeak hizkuntza zaharra baloratzen du, eta azpitu-luekin ikusteak ez dio inongo esfortzurik sortuko. Hor dago bikoizteko aukera, baina pelikula bat bere oinarrian ikustea funtsezkoa dela iruditzen zait. Hizkuntza bakoitzak badu bere ahoskatzeko modua, eta ondorioz, zerbait kontatzeko modu bakarra. Bertzetik, euskal kulturak eta bertako ohiturek hagitz balio berezia, aberasgarria eta magikoa dute. Hori guztia gurea da eta euskaldunok zaindu behar dugu. Dena den, nahiz eta oraindik ikasteko aunitz dudan, uste dut gaur egungo euskal zinemagintzak erronka argia duela; ez da nahikoa jende kopuru murriz batek kontsumitzea. Interesgarria da maila guztietako ikusleei ailegatzea gure herria, hizkuntza... eta horretarako modu egokian kontatu behar ditugu istorioak.



'Hitza eman nion' lanean, Amaia Apezetxea Ekaitzen ama gibelesko lanetan.



'Hitza eman nion' lanean, Ekaitz Bertiz ezkerrean, Felix Apezetxea atautxirekin.

Zer transmititu nahi izaten duzu?

Istorioren aldetik hagitz lan desberdinak egin izan ditut orain arte, baina denek elementu bera dute: taldearen indarra. Nahiz eta lagun talde bat izan, elkarri lagunduz gauzak hobeki ateratzen dira. Zineman ere hori gertatzen da, bakarrak ez dago inora joaterik, eta bizitzan ere ez. Beti dugu bertzeengandik zerbait ikasteko, ez baitakigu dena. Nire burugogorke-ria aunitzetan hortik doa: hagitz bakartia naiz, baina, tarteka, ikasi behar dut taldean emaitza hobea ateratzen direla, eta hori bizitzan ere aplikatu.

Halako lan bat egitea ez da egun batetik bertzerako kontua...

Halako proiektu batek denbora eta diru aunitz eskatzen du.

Proiektu bakoitzak bere behar-rrak ditu, eta proiektuaren araberakoa da behar den denbora. Hiru fase dira: aurreproduktzioa, produktzioa eta postproduktzioa. *Hitza eman nion* lanearekin, adibidez, 2022ko azaroan hasi ginen gidoiarekin eta ekoizpen lanekin: lokalizazioak, arropak... Ondotik, grabaketa etorri zen. Hiru egunez egin genuen, pixka bat presaka, baina profesionalki egiten dituzten grabaketan gurea bezalako film labur bat grabatzeko aste bat eta erdi edo bi pasatzen ahal dituzte. Eta akitzeko, muntaia eta apainketa egin behar da: soinuaren postproduktzioa, kolorea, efektu bereziak... Gure film laburra 2023ko abuztuan akitu genuen. Baliabide aldetik ere material

pila behar da: Argazki materiala (kamerak, tripodeak, optikak, tresneria, fokuak, palioak...), arte materiala (guk etxeko eta inguruko herrietako materiala erabili genuen), soinua (pertzua, mikrofonoa, grabatzailea...). Eta horrez gain, guttiago ikusten diren gastuak: taldeak lo egiteko tokiak, mantenua, furgoneta materiala garraiatzeko, bidaietarako gasolioa... Gurea nahiko talde txikia zen eta amatxiren baserrian egin genuen lo eta bi amatxik janari goxo-goxoa prestatu ziguten. Unibertsitateak laguntza handia ematen digu, baina bertze aunitz gure saketatik egiten dugu. Horregatik saiatzen gara laguntzakeskatzen.

Baduzu bertze proiekturik?

Bai, ikasturte honetan ikasketa bukaerako lana egin behar dut eta film labur bat izanen da. 2022ko martxoan hasi nintzen ideia pentsatzen eta taldea biltzen. Taldekide gehienak *Hitza eman nion*ekoak dira, baina gehiago izanen gara, proiektu handiagoa baita. Gidoia idazten hasiak gara eta urri hondarrean lehenbiziko grabaketak egin genituen. Filma apirilaren 2tik 8ra grabatuko dugu Euskal Herrian, baina lehenagotik proba batzuk egin ditugu apirileko grabaketan emaitza hobea ateratzeko. *Erreka zoko hortan* izanen du izena, eta 1960 inguruko Bidasoaldeko kontrabandoari buruzkoa izanen da. Euskal mitologia ere presente izanen da, eta lamia agertuko da, edo hori usteko du Joxepi protagonistak.

Etorkizunerako zein asmo dituzu?

Gradua aurtan akituko badut ere, hagitz gustura nago hirugarren mailako ikasgaiekin. Ikasketak zuzendaritzara bideratuak ditut. Donostian badira ikasketak eta kanpora joateko aukera ere ez dut baztertua, baina kasu honetan denboraldi laburrerako izanen litzateke, ez hiruru urterarako. Euskal Herria aunitz maite dudala ohartu naiz. Kanpora ateratzea aunitz gustatzen zait, baina horrek gure bazterrak bezalakorik ez dagoela oroitarazteko balio dezala.



Leitzako Erramun Astibiak ekoizten duen banabar beltza. E.IRAOLA

Iragana eta etorkizuna hazietan gordeta

Bertako hazien egoera zein den ezagutu eta bilketa lana egiten ari dira Leitzan. Hazien inguruko ezagutza eta hari lotutako kultura berezi bat badela ikusi dute. Ohitura batzuk errotoak eta besteak galzorian; elkarlanaren beharra nabarmendu dute «haziak gal ez daitezen».

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Txingurri lana eginez, alez ale, osatzen ari dira Leitzako hazien bilduma. Garazi Zabaletak eta Irati Iparragirrek egindako proposamen batetik abiatu zen guztia eta elkarlanean ari dira orain, ekoizleekin, LeitzEko kontsumo taldeko kideekin eta Leitzako liburutegiarekin. Momentuz, egoeraren diagnostia egin, lagin bat bildu eta ikusgai jarri dute. Argi dute mami asko duen gaia dela eta egindakoa proiektu askoren abiapuntua izan daitekeela.

Hari muturrei tiraka, ailegatu dira gaur egungo egitasmoa. Hala azaldu dute Garazi Zabaletak eta Irati Iparragirrek: «Alekak Euskal Herriko hazi ekologikoekin egiten duen lanaren berri izan genuen eta interesgarria iruditu zitzaigun

Leitzako komertzioetan beraien haziak saltzen jartzea». Komertzio batek baiezkoa eman zien, baina horrek herritarrengan interesik piztuko ote zuen pentsatzen hasi ziren orduan: «gure susmoa zen norberak bere barazkiak sortzeari garrantzia handia ematen

diogula, baina askotan ez diogula gure buruari galdetzen ereiten duguna nondik heldu den. Ez dugula jakiten hazi horren atzean zer dagoen».

Lantaldearen sorrera

Gogoeta horrekin jo zuten LeitzEko kontsumo taldekoen-



Uharte, Iparragirre eta Zabaleta Hazien komandoko kideak. E. IRAOLA

gana eta han ere gaia askotan izan zutela esku artean azaldu zieten. Mamen Uharte LeitzEko kideak argi du: «burujabetza kontuetan hazitik ez bagara hasten, zerbait gaizki egiten ari gara». Gaia landu nahi zutela bai, baina ez omen zekiten nondik hasi: «herrian hazi propioak egiten zituen etxe bat baino gehiago bazela bagenekien, baina ez genekien horrekin zer egin». Batzuen kezka eta besteak elkartu eta hala sortu zuten lantaldea: *Hazien komandoa*.

Bilera bat antolatzea izan zen hurrengo pausoa: «Nafarroako Hazien Sareko kide bat etorri zen bilera hartara eta Arakilgo udalean gai hau lantzen duen teknikari bat dutenez, hura ere gonbidatu genuen beraiek egiten duten lanketa azaltzera». Garai bertsuan, Nafarroako Hazien Liburutegi Sarean sartu zen Leitzako liburutegia eta Elena Arteta liburuzaina ere bidelagun bihurtu zen. Bilera horren ondotik, «helburu finkorik gabe, haziak identifikatu eta herrian egoera zein den aztertzea» erabaki zuten.

Haziak sailkatzeko irizpideak

Bilketa egin aurretik, guztia nola sailkatu erabaki behar izan zuten eta Nafarroako Hazien Sareak erabiltzen dituen irizpideak baliatu zituzten: «Nafarroako Hazien Sareak hiru hazi mota bereizten ditu: bertako hazi, egokitutako hazi edo interes berezikoa. Bertako barietate bezala onartzeko 40 urte edo gehiago bertan eman beharra ditu. Egokitutako haziak, hamar urte edo gehiago daramatenak dira eta interes berezikoaren artean sartzen dituzte beste arrazoi batengatik interesgarriak diren barietate bereziak».

Elkarrizketak ekoizleekin

Ahoz aho jasotako informazioarekin, haziak ekoizten zituzten herritarrengana jo zuten: «sei elkarrizketa egin genituen eta horrek aukera

eman zigun pixka bat identifikatzeko herrian zer hazi egiten diren». Elkarriketa bakoitzarekin fitxa berezi bat bete zuten: «tokiko izenak, espeziea, urteak, barietate mota, jatorria, erabilerak, kontserbazio egoera... ahalik eta informazio osatuena jaso dugu».

Hartu-emana

Bildu soilik ez, jasotakoa ikusgai jartzea izan zen hurrengo pausoa eta azaroan egindako Leitza eta Aresoko produktuen azoka baliatu zuten horretarako: «hazien txokoa sortu genuen eta sekulako arrakasta izan zuen». Hartu-emana, trukea, sortu zela azaldu dute: «ikusitu genuen jende asko gerturatzeko zela haziak jasotzera eta apuntatu genuen bakoitzak zer eramaten zuen, gerora beharko balitz non dagoen jakiteko. Azokako egunean bertan, etxean zituzten haziak ere ekarri zituzten batzuk».

Elkarrizketatutako sei horien haziez gain, azokan postua jarria zuten beste lauk ere ekarri omen zituzten haziak: «eta hala ikusi genuen ia etxe guztietan bere banabar hazia dutela eta artoa ere dezentetan mantentzen dutela». Denera, hogezi hazi klase bildu zituzten azoka egunean: «zortzi banabar desberdin eta sei arto barietate».

Alternatiba bat

Hazien txokoa bezalako guneak sortzea, aukera ona dela ikusi zuten: «lehen naturala zen trukea galdu da eta berreskuratu nahi bada bide polita izan daiteke; alternatiba bat». Belaunaldi berrientzat ere aukera bat izan daiteke: «gai honekin interesa eduki, baina herriko adinekoekin loturarik ez duenak haziak eskuratzeko bide bat da». Argi dute haziei bizia eman behar zaiela: «hazi bat ez da museo batean bezala ikusgai jarri edo gordetzeko zerbait. Haziei bizia eman behar zaie, erabili egin behar dira».



Azaroan egindako azokan jarri zuten Hazien Txokoa. E.IRAOLA

Galtzeko zorian daudenak

Batzuk ugariak eta besteak galzorian. Hazien erreproduzioa bizi den garaiarekin eta bizi ereduarekin zuzenean lotuta dagoela ere erakutsi die egindako azterketak: «gaur egun azienda gutxiago dago eta pentsu kantitate handiagoa erabiltzen da. Gutxitu egin da norberak bere aziendetzako diren labore horiek egiteko ohitura eta horren ondorioz zenbait hazi galtzeko zorian

daude». Horren adibidea da garai batean oso ugaria zen *Pagotxa* edo *Hazi berdea*: «Erramun Astibia mantentzen du inguruan eta berak egitez uzten badu, galtzeko arriskua du».

Bertakoari balioa

Bertako haziak daukan abantaila handiena da: «bertan erreproduzitu dela, prest dagoela klima honetarako. Azkenean multinazional batek

saltzen dizun hazia berdina izanen da Mexikorako edo Euskal Herrirako». Gainera, nabarmendu dute bertako haziak «kalitate bat lortu dutelako» mantendu direla bizirik: «modu naturalean aukeraketa bat egin da. Ekoizleek haziak berezi egiten dituzte eta horretarako bakoitzak bere irizpideak ditu».

Burujabetza

Norberak bere haziak ekoiztea «autosufizienteagoak izateko» bidea ere badela azpimarratu nahi izan dute *Hazien komandoko* kideek: «urtero haziak erosi behar badizkiozu kanpoko enpresa handi bati, zure autonomia galtzen zoaz. Zure baratzeko produktuak ateratzen ari zara, baina kanpoko faktoreen menpe zaude. Egundatik bestera hazi horiek falta badira edo prezioak igotzen badira, zer egin dezakezu?».

Ondarea

Hazien munduarekin lotutako jakintza eta kultura oso bat dagoela ere erakutsi die egindako lanak: «jalki hitza, adibidez, zenbat aldiz erabili dute elkarrizketetan... Guk eguneroan ez dugu inoiz erabiltzen. Bada ondare bat, hazitiki haratago doana: bioaniztasuna dena, ondare kultural bat dena. Bizirik irauten duena, baina zoritxarrez ez dakigu noiz arte».

Hurrengo pausoak

Beraien alea jarri du talde honek, «bilketa ttiki bat da egin duguna eta oraindik nahi adina segi genezake». Ez dute zehaztu hurrengo pausoak zeintzuk izanen diren, «baina trukerako espazio bat sortzea polita izanen zen». Txingurri lanean segitzeko asmoa dute, baina taldean arituta errazagoa denez: «norbaitek gai honekiko interesa baldin balu edo haziak dituen norbait ezagutzen badu, gurekin harremanetan jartzeko gonbidapena luzatu nahiko genioke». →

Liburutegia hazien gordailu

Hazien liburutegia izeneko proiektuan parte hartzen ari da Leitzako liburutegia. Nafarroako Liburutegi Sarearen egitasmoa da eta bertako haziak partekatzea eta kontserbatzea dute helburu. «Egitasmo honetan parte hartuta Leitzak kontsumo eta bizi eredu jasangarriago eta ekologikoago baten aldeko apustua» egin duela azaldu du Elena Arteta liburutegia. Horretarako, armairu berezi bat jarri dute liburutegian eta bertan hazi autoktonoak jasotzen ari dira, nahi duenak hartu eta gero baratzetan erein ditzan. Gaiarekin lotutako hainbat tailer ere antolatu dituzte eta aurrean ere horretan lanean segitzeko asmoa dute.



Elena Arteta liburutegia.

«Bertako hazia galtzea nahi ez badugu zerbait egin beharra da»

ANA BEATRIZ ZABALETA AIENE BASERRIA

Aiene baserrira ezkondu eta bizi osoa darama Ana Beatrizek nekazari lanetan. Bere amaginarrebak egiten zuen bezala, hazia gorde eta horixe erabiltzen du hurrengo urtean ereiteko: «banabar txuria eta beltza, artoa eta patata zati bat izaten ditugu etxeoak». Erabiltzen duten haziak zenbat urte izanen dituen galdetuta, ezin zenbaki zehatzik eman: «nik hor ezagutu dut eta lehenagotik ere hor izanen zuten. Ehun urte baino gehiago izan ditzake».



ENERITZ IRAOLA

Denbora duenean tarte bat hartu eta aleak bereizten aritzen dela azaldu du Ana Beatrizek: «biltzen denetik ahalik eta agudoena, zorria ekiditeko». Gaur egun garbitu eta izozkailutik pasatzen ditu, «baina garai batean baratzuri buruak sartzen omen zizkieten tartean. Orain, izozkailuan eduki, maindire baten gainera atera eta izotza lehortzen denean bereizten ditut batzuk hazitarako». Horretarako ez dago formula sekreturik: «begira jotzen dizu, ahalik eta politenak, borobilenak aukeratu ditut». Azokara edo dendara joanda, orain, denetarik aurkitzen den arren, berak «etxeoaren aldeko apustua» egina du: «bakoitzarentzat berea berezia izaten da». Horregatik, bertako haziek bizirik segitzeko proposamen guztiak interesgarriak iruditzen zaizkio: «argi dago bertako hazia galtzea nahi ez badugu zerbait egin beharra dela».

«Etxeko haziak gauza asko biltzen ditu bere barrenean»

MARTIN MARI ASTIBIA LEITZAKO HAZIEN EKOIZLEA

Erretiroa hartu zuenetik orduak ematen ditu baratzean Martin Mari Astibia. Etxean betidanik ikusi izan zituen bertako haziekin lanean eta berak ere hala egiten du. Argi dio, garai batean, hori egiteko arrazoia bizirautea zela: «bakoitzak bere haziari eusten zion ekonomikoki ez zegoelako dirurik erosteko». Gaur egun, oso bestelakoak dira kontuak: «orain jendeak ongi irabazten du gure aldean. Erosteko dirua badauka eta baratzean bera lanean aritu ordez erosi egiten du dendatik». Dena den, badira mantentzen diren ohiturak: «banabarra izanen da gehien mantentzen dena. Jateko jendeak oraindik apreziatzen du eta garestigoa da erostera joandakoan ere». Garai bateko erdibanako alorrak ere ez ditu ahaztuak: «esklabitudean bizitu izan gara. Alorra uztea desprezio egitea zen. Erdi parte batzuetan etxeko ganbararaino eraman behar izaten genuen. Sarriorekin hasi ziren maizterrak eta nagusiak maila berean jartzen». Ez zen paper lantegiak ekarri zuen aldaketa bakarra izan: «obran hasi ginen eta diru frexkoa irabazten. Jendea pixkanaka nekazalgora uzten joan zen». Bidean galerak ekarri ditu horrek: «garai batean Leitza *linu putzuak* egoten ziren, lihoa egiten zen jantziatarako. Garia ere ohikoa zen etxe guztietan. Alorra zen tokian kalea dago orain». Aldaketak aldatuta, «norberaren esku dago bertakoari eustea».



ENERITZ IRAOLA

«Pagotxari ez dakit zenbat urtetan ari naizen indarka kontzen»

ERRAMUN ASTIBIA LEITZAKO HAZIEN EKOIZLEA

Etxean amagandik ikasitakoa, mantentzen ari da urtetan Erramun Astibia, «gehiago edo gutxiago bizi osoan aritu izan naiz honetan». Etxeko haziak erabiltzeko apustua egin izan du beti eta batzuetan tematu ere egin da: «banabar hazi borobil beltz hau dago Leitza nik bereizi nuelako orain dela hirurogei bat urte. Bertako banabarra bazen, baina askorekin nahasita. Ez dakit nondik hariak *kruzatu* eta borobila nahi nuela erabaki nuen». Ez zuen

egun batetik bestera lortu nahi zuena: «hasi nintzen pila guztitik borobilak ateratzen. Lehenbiziko urteetan nahiz eta borobila erein, tartean luxangak ateratzen zitzaizkidan. Pixkan pixkan lortu nuen dena borobila izatea». Egindako lana ez du galtzera bota nahi eta horregatik aitortu du «orain, luparekin erreparatzen» diola.

Amari ikasita, lekan hasten da bereizten: «zazpikoa edo zortzikoa badago seinatu egiten dut». Jalkitzeoan ere



ENERITZ IRAOLA

ez dela edonola egin behar azaldu du: «beti eskura jalki behar da eta ez bazaizu gus-tatzen jateko utzi. Ongi bereizita, hala lortzen da nahi dena».

Garai bateko oroitzapenak dantzan jarrita, ongi gogoan du haurra zela etxean egiten zuten leka berezi bat: «alea morea izaten zuen, baina denborarekin banabartu egin zitzaigun». Ez da izan bidean galdu den hazi bakarra: «gure zaharrek ezagutu zuten *linua* eta guk Leitza ezagutu dugu garia egiten. Azkenekoa Garagartza egin izanen zuten orain dela 60 urte paseak». Pagotxa edo hazi berdearekin ez luke nahi hala gertatzea: «Pagotxari ez dakit zenbat urtetan ari naizen indarka kontzen. Aurten ere trozotxo bat badaukat». Aldi galdua ez denez itzultzen, segiko dio ahal duen artean bereari eusten.

«Garai batean dena etxean egiten zen, baina bizimodua aldatu da»

JUAN MARI ZABALETA KOXME BASERRIA

Belarriak erne eta begirada zorrotz ibili izan du Koxmeko Juan Mari Zabaletak: «gurasoei eta ingurukoei entzun eta ikusita ikasi dut hazien inguruan dakidana». Ikusi, ikasi eta praktikan ere jarri du; urteak baitaramatza berak ere haziekin lanean. Hazi batzuk zaharragoak eta besteak berriak: «hogeita hamar bat urte izanen ditu erabiltzen dudan hazi batek, beste batzuk hamar bat urte». Denborak erakutsi dio zer, non eta nola erein: «hazi bera erabiltzen dugu eta batean eta bestean emaitza ez da berdina izaten. Etxe ondoan arbia, banabarra eta artoa egiten ditugu. Gazpilo zuloan baba eta Maimurren artoa, banabarra eta patata». Herrian gaiari buruz interesa pizten ari zela jakin zuenean, LeitzEko kontsumo taldeak antolatutako bilerara joatea erabaki zuen, «liburutegian osatzen ari ziren hazi biltegi baterako gure haziak emanen ote genituen galdetu ziguten. Banabar panpanoa, baba beltza eta arto gorria eman nituen nik. Ontzi batzuetan sartu eta han egonen dira, nahi duenak hartzeko». Horietaz gain, arbia ere urtero egiten du: «oilo, untxi eta ahuntzak ditugu eta haiek jaten dutelako». Hazien kultura oso aberatsa dela badaki, baina bizimodua asko aldatu da eta horrek ondare hau guztia arriskuan jarri duela uste du: «garai batean dena etxekoa izaten zen, baina bizimodua aldatu egin da eta orain jendeak erosi egiten ditu barazkiak erein beharrean».




ENERITZ IRAOLA

«Berdea eta garia etxero izaten zen lehen eta orain ez ditut inon ikusten»

MIKAELA ZABALETA TUTENEA BASERRIA

«Iarra, artoa, arbia, banabarra, intxaurrak, urrak, kala-bazak, sagarra...» Tutenean etxeko hazia erabilita lortzen dituzten produktuak dira. Horien guztien atzean Mikaela Zabaletaren esku zailduak daude. 94 urte ditu eta bera arduratzen da etxeko baratzeaz: «beti hala ikusi dugu eta beti hortan aritu gara». Bizimodua asko aldatu dela nabarmendu du: «garai batean baserrik bakarria bizitzen zen, dena etxean egiten zen». Ongi gogoan ditu Leitzan garia egiten ziren garaiak: «alor oso bat izaten genuen gariarekin nire jaiotetxean, Aurtxikenean. Leitzan bazen gari errota eta etxean egiten zuen ama zenak ogia. Sotopea deitzen genion ogi horri. Gogoratzen naiz oraindik zeinen goxoa izaten zen». Zer pentsa ere ematen dio horrek: «nik ez dakit nola galdu zen gari hori, harrituta egoten naiz askotan. Errotak ere itxi ziren eta». Garia ez da ereitez utzi den bakarria: «berdea egiten zen garai batean, baina hori ere utzi zen. Aziendarentzat izaten zen eta artoa jorraztekoan egiten zen». Artoari eutsi diote Tutenen eta inguruan «famosoa» dela aitortu digu: «gutxi egiten da gaur egun. Erasoten bakarrenetakoak izanen gara». Ongi jorratutako lanak ematen ditu fruituak eta badirudi Tutenean Mikaelaren lanak baduela segida. Argi du horretarako «ttikitatik erakutsi behar zaiela». Hori bai, segida izanagatik erreleboa emateko asmorik ez du oraindik Mikaelak.



ENERITZ IRAOLA

«Bertako hazia mantentzea askok uste baino zailagoa da»

MIREN ALDUNTZIN GOIKO SORO BASERRIA

Gazte gaztetatik ezagutu du Miren Alduntzinek hazien mundua: «gure jaiotetxean banabarra, artoa eta arbia izaten zen. Ama aritzen zen haziekin eta berak erakutsi zidan». Goiko Sorora bizitzera joan zenean ezagutza horietan sakontzeko aukera izan zuen: «senarraren ama bizi zen baserrian eta berak erakutsi zizkidan gauza pila bat». Erakutsi, gustatu eta horrekin segi du. Hala, etxeko hazitik sortuta, «kalabaza, sagar landareak, arbia, leka, tomatea,

letxua, banabarra, intxaurra, perrexila, patata... ere egiten ditugu».

Bertako hazia mantentzea askok uste baino zailagoa dela aipatu nahi izan du: «erleek egiten duten lanaren menpe gaude eta guk bertakoa erein arren, ondokoak kanpokoa ereiten badu nahasi egiten da zurearekin». Ez da alferrik aritzen bera banan bana alerik ederrenak aukeratzen: «banabarra egiterakoan adibidez, ale gehiagoko lekak ateratzen



AMAIA IPARRAGIRRE

direnean bereizi egiten ditut. Aleak ere ez dira berdinak ateratzen eta ahalik eta politenak bereixten ditugu. Bistara jotzen du». Hazien mundua oso poli-

ta da, baina lan asko duela azpimarratu du: «askotan jendeak banabarraren prezioaz kexu izaten da, baina horren atzean dagoen lan guztia ikusi behar da». Leitzan egin duten lanketa, «aspaldiko ohitura hau ezagutarazteko modu polita» izan daitekeela uste du. Bera saiatzen da ahal duen neurrian etxekoei ezagutzak transmititzen: «gero segiko duten edo ez, ez dago jakiterik, baina nik eginahala egiten dut behintzat. Hiru urteko biloba bat daukat eta baso batean haziak jartzen dizkiot eta ikusten duenean ateratzen ari dela harrituta begiratzen du. Erdi jolasean baina ttikitatik ikasten ari da».

Kanttonberriko lanak herritarrei aurkezteko bilerak

Kanttonberriko zoladura eta trafiko ordenazioa aldatuko dituzte, baina aitzinetik proiektua aurkeztuko diete herritarrei

A. LARRETxea

Aurten eta heldu den urtean herrigunea erabat eraldatuko duten lanak egitekoak ditu udalak. Horien artean lehenengo Kanttonberrin lurpeko sareak berritzea eta inguruko zoladura berritzea izanen da. Proiektua herritarrei aurkezteko aste honetan bi bilera egin dituzte; asteazkenean 20:00etan Beralandetan izanen da merkarietzako, eta ortzegunean, 19:30ean herritarrentzako.

Kanttonberriko proiektuak bi fase izanen ditu eta lehenengoan ia 60 urte dituen eta hagitz egoera txarrean dagoen ur-hornidura sarea aldatuko dute eta euri uren eta ur beltzen sareak bereiziko dituzte.

Horrekin batera, zoladura erabat berrituko dute, eta egungo araudira egokitzeko urbanizazioa eta bertako trafikoa berrantolatuko dituzte. Karrikaren zabaleragatik, ezinezkoa da karrikaren bi aldeetan oinezkoentzako espaloi egokiak egitea. Horregatik, Legiatik Eztegaralderako karrika noranzko bakarrean planteatu dute.

Zirkulazioa ordenatzeko bide berria egingen dute Kanttonberriko zubitik eskuinerantz sartuz. Handik, Laboral Kutxaren gibeledetik, Foruen plaza aldera segitzeko edo Kanttonberrira biratzeko aukera egonen da. Osasun kontsultategi parean adinekoen egoitzara dagoen bidea irekiko dute, autoak Eztegaraldera ateratzeko. Kanttonberrin, bankuekin, zuhaitzekin eta lorategiekin gune bat sortuko dute.

Ordenazio berriaren ondotik horrela geldituko dira aparkalekuak: Kanttonberrin gehienez ordubeteko denbora mugatuko 13 aparkaleku urdin ezarriko dituzte, eta kontrol sistema eguneratuko dute; Kanttonberri 1, 3 eta 5 etxebizitzien ekialdeko fatxadan egoiliarrentzako 11 aparkaleku berri ezarriko dituzte, eta Legiako 4 plaza egoiliarrentzako bihurtuko dira.

Plaza berdeen gabezia Toki Onan egoiliarrentzako gordeko dituzten plazekin ordezkaturiko dute, eta Toki Onako galera Matzadako aparkalekuak konpentsatuko du.



TTIPI-TTAPA

Kantari eta eskean Eguberrietan

Olentzeroren etorrerarekin hasi, erregeen kabalgatarekin bukatu dira Eguberriak. Olentzero kantuan eta Glin-glan eskean atera dira haurrak eta urte zaharreak, Angelita Izurategiri omenaldia egin zioten auzokideek *Dios te salveri* merienda egiteagatik eta Gure Txokoakoek koplak kantatu zizkioten.

Funbox factoryren azken ikuskizun arrakastatsua

12 urteko ibilbideari bukaera eman zion Funbox factory ikuskizunak abenduaren 23an. Jende aunitz joan zen azken emanaldira eta hainbat zozketa egin zituzten. Sariak urtarrilaren 31ra arte hartzen ahal dira zahar etxean.



SAIZPHOTOS

Ansona ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Kronoigoerako bi parte-hartzaile iazko edizioan. UTZITAKOIA

XVII. Mendi Eguna egingen dute larunbatean

Goizean mendi itzulia egingen dute eta Santa Barbara gainera kronoeskalada bikoteka arratsaldean

A. LARRETxea

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eta Agerra Mendi Taldeak Mendi Eguna antolatu dute XVII. aldiz eta larunbatean, urtarrilaren 13an, egingen dute.

Aurten bezperan hasiko dituzte ekitaldiak, ortziralean, hilaren 12an *Nepaldala* doku-

mentala ikusteko aukera izanen baita 19:30ean Kultur Etxean. Dokumentalak hezkuntza-programa bati esker etorkizun hobea lortu nahi duten Nepaleko haurren eta nerabeen testigantzak biltzen ditu, eta Beran izanen da estreinaldia. Sarrerek bertz euroko prezioa dute eta bildu-

tako diru dena Nepaldala GKEari emanen zaio.

Mendia protagonista larunbatean

Larunbatean izanen da egun handia. 09:30ean mendi irteera izanen da eta gehienez 3 orduko itzulia osatuko dute. Arratsaldean izanen dute segida ekitaldiek, 14:15ean, lasterketarako izen ematea eta dortsalen banaketa hasiko baitute Ricardo Baroja eskolako aterpean. 15:00etan, oinezkoentzako ibilaldi gidatua hasiko da, eta 15 minutu beranduago, 15:15ean Manttaleko Atletismo eskolako ikasleek txangoa.

Ondotik, 15:30ean hasiko da lasterketa. Bikoteka ariko dira lehiakideak, erlojuaren kontra eta Santa Barbarako kaskora joan-etorria egin beharko dute. Eguna borobiltzeko 18:00etan merienda eta oparien zozketa izanen dira parte-hartzaileentzat eta 19:00etan Aitor Igiñitzen *Mundua arnastu nahian* ikus entzunezkoa ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean.

Unai Ugartemendia kazetariaren eskutik aurkeztuko du Igiñitzek duela 16 urtetik bizikletaz egiten ari den itzulia.

Ane Osuak irabazi du 'Pello Apezetxea Zubiri' beka

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak antolatutako 'Pello Apezetxea Zubiri' bekako irabazleetako bat da Ane Osua Cabida herritarra. Jon Martin Etxebeste eta Paula Laita Pallares ikerlariekin batera, Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak aztertuko ditu.

Haur Hezkuntzako ikasketak egiten ari da EHU Osua eta haur hezkuntzako teknikaria ere bada. Irailean aurkeztu beharko dute ikerketa.

'Futbolistok' bakarrizketa ikusgai igandean

Zuhaitz Gurrutxagak 'Futbolistok' bakarrizketa aurkeztuko du igandean, urtarrilaren 14an, Kultur Etxean. Emanaldia 18:30ean izanen da, baina, sarrera guztiak salduak daude. Bakarrizketan, futbolari zenean izandako osasun mentaleko arazoez ariko da.

ANTZUZELAI S.L.

BERA - T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA, ARTISTIKOAK
OBRAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

SAIZPHOTOS
ARGAZKILARITZA - COMMUNITY MANAGER

www.saizphotography.com

saiz@saizphotography.com

@saiz_photos

600 852 869



Agintariak eta teknikariak abenduaren 26an Bereauko zubian. UTZITAKOIA

Bereauko zubiaren zaharberritze lanak bukatu dituzte

689.010,83 euroko kostua izan dute, 2022ko ekainaren 27an hasi ziren eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatu ditu

AITOR AROTZENA

Bereauko Erdi Aroko zubiaren zaharberritze lanak bukatutzat eman dituzte. 689.010,83 euroko kostua izan dute, 2022ko ekainaren 27an hasi ziren eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiak/Vianako Printzea Era-kundeak sustatu ditu. Abenduaren 26an egindako bisitan, Ladis Satrustegi alkatearekin batera, Rebeca Esnaola Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria, José Luis Franchez obren arkitekto zuzendaria eta Javier Leache obra egin duen enpresako ordezkaria izan ziren.

Zaharberritze lanak 2022tik 2023ra bitartean egin dituzte. Mugitutako edo hondatutako hainbat ilara desmuntatu zituzten zubiaren bi aldeetan, eta hegalak, petrilak eta zubi-bularren goiko aldeak berberaiki. Hargintza lan guztiak kareharri grisarekin egin dituzte. Galtzadan kareharrizko zoladura berria eman diote. Gainera, egurrezko bi zutoin eta zubia zeharkatzen zuen aireko telefonia linea kendu dituzte, eta Bide Berdearen aldetik, harmailak eta arrapala dituen sarbide berri bat eraiki dituzte.



BETI GAZTE

Ipuin lehiaketako sariak banatuak

X. ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek. Araitx Ormaetxea eta Aitor Mutuberria (3. maila), Olhain Plaza eta Olaia Irigoien (4. maila), Olaia Gajate eta Aitor Cebolla (5. maila) eta Eila Oskoz eta Amets Lasa (6. maila) izan dira saridunak. Haizea Loira ipuin kontalaria izan zen ekitaldian.



UTZITAKOIA

Tantirumairu dantza taldearen saskia

Tantirumairu euskal folklore taldeak urtero egin ohi du Eguberrietako saskiaren zozketa, urteko saioak prestatzen laguntzeko dirua biltzeko helburuarekin. Aurten ere egin dute eta saskia Arantzara joan da. Joseba Madariagak eskuratu du, txartela Izaro Irigoien ilobari erosita. Zorionak!

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA



Txotx denboraldiaren irekiera
urtarrilaren 12an
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (INAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

Bizikleten salmenta eta konponketa.



Kanltonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

ORBEA PINARELLO MONTY
BERCAMONT BH MERIDA

«Gure ondarea diren argazkiak bildu eta digitalizatuko ditugu»

ARGAZKI ZAHARRAK BILTZEN DUEN LAN-TALDEA

AITOR AROTZENA

Lesakako argazki zaharrak bildu, digitalizatu eta sareratzeko helburuarekin lan-taldea ari da lanean. Alfonso Obesok, Amagoia Piák, Joseba Morenok eta Dominique Latastek osatzen dute talde horren muina eta Lesakako herriko etxean udalak utzitako lokalean as-telehenero aritzen dira biltzen dituzten argazkiak eskannerarekin digitalizatu, antolatu eta deskribatzeko lanean. Horretarako, Nafarroako Gobernu-ko Artxibo Nagusiak aktak eta programak digitalizatzeko eta argazki zaharrak biltzeko programa edo aplikazioa garatzeko emandako dirulaguntza ttiki bat baliatu dute. Lesakarrak etxean dituzten argazki zaharrak uzteko (digitalizatu ondotik itzuliko zaizkie) deialdia egin dute.


Noiz eta nola sortu da argazki zaharrak biltzeko eta digitalizatzeko taldea?

Lehendik zerbait aipatua genien udal ordezkariari, baina 2023ko otsaila-martxoan hasi ginen lehen bilerak egiten eta lanerako biltzen. Ez dugu deus inbentatu, bertze zenbait le-

kutan egin den lana da. Materiala badago, hori bilatu, bildu eta digitalizatu ari gara eta horretan segitu nahi dugu eta herritarren laguntza behar dugu horretarako.

Nolako argazkiak bildu nahi dituzte?

Interesekoak izan daitezkeen argazkiak bildu nahi ditugu. Gaur egun nonahi eta noiznahi hainbat eta hainbat argazki ateratzen ditugu, baina joan den mende bukaera arte, argazkia ateratzea zerbait berezia zen. Muga nonbait paratu behar da eta 1970-1960 hamarkada baino lehenagokoak bildu nahiko genituzke, garai haietan herria nolakoa zen, jendea nola janzen zen, zer lanetan aritzen zen erakusten duten argazkiak. Garai hartatik honat ere izan daitezke argazki esanguratsuak, herria nola aldatu den adierazten dutenak, atentzioa deitzen dutenak, zerbait aipatzen dutenak, ospakizun bereziren batekoak... eta horiek ere interesekoak dira. Hau da gure historia, gure ondarea... eta hori ezagutzera emateko argazkiak garrantzitsuak dira.



Joseba Moreno, Amagoia Piá eta Alfonso Obeso. AITOR AROTZENA

Argazki horiekin zer egiteko asmoa duzue?

Momentuz 300 bat edo digitalizatuak eta datu-base batean gordeak ditugu eta jendeak argazkiak uzteko deialdia egin nahi dugu. Oraingoz ez da publikoa, baina gehixeago biltzen ditugunean, edonork ikusteko moduko webgune batean zintzilikatzeko asmoa dugu. Gero, argazki horiekin, bertze hainbat gauza egin daitezke: erakusketak, egutegiak,

liburuak... Baina oinarria argazkiak biltzea, digitalizatu eta antolatu eta artxibatzea... Gibelean dagoen lana da.

Zer erran nahi diozue etxean gisa honetako argazkiak dituztenei?

Argazki horiek altxor bat dira eta hala zainduko ditugu. Nahi den bezala ekar ditzakete, paperean, negatiboak... norbaitek digitalizatuak balitu USB batean ere ekar ditzake edo Internet bidez bidali. Herriko etxean uzterakoan horrelako idatzi bat bete beharko da eta bertan agertuko da zer erabileretarako utzi nahi duten, zeinena den eta, noski, gure aldetik, digitalizatu eta gero argazkiak beraien jabeen itzultzeko konpromisoa ere.

«ALTXORRA BEZALA ZAINDU ETA ITZULIKO DITUGU ARGAZKIAK»



JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

**Erregai Banaketa
Zerbitzu Berria
zure etxera**

INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Ariztun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es



www.josenea.es

JURIONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Alzate, 21 • BERA



744 484 361

ttipi-ttapa



Anai-Arrebak txapeldun eta Gorosterrazu Kotto sariarekin. AINHOA LARRETXEA

Anai-arrebak garaile izan dira taldekako bertso lehiaketan

Txoperena anai-arrebak eta Eneko Fernandez nagusitu dira 24. edizioan eta Kotto Saria Egoitz Gorosterrazuk eskuratu du

AINHOA LARRETXEA

Abenduaren 30ean jokatu zuten Beran eta Lesakan Bortzirietako Taldekako Bertso Txapelketaren 24. edizioa. Bortz taldetan banatuta aritu ziren txapelketan parte hartu zuten 18 bertsolariak: Bera +, Malenreka, Anai-arrebak, Sormen eta Antoiutarrak. Katakun egin zituzten lehenengo bi kanporaketak eta Lesakako Antoiun hirugarrena. Kanporaketak eginda, Anai-arrebak, Bera +, Malenreka eta Sormen taldeak sailkatu ziren finalerdietara.

Lehenengo finalerdia Zialdo ostatuan jokatu zuten eta Anai-arrebak taldea (Maddi Ane Txoperena, Josu Txoperena eta Eneko Fernandez) nagusitu zitzaion Bera + taldeari (Josu Sanjurjo, Urko Gartzia, Manu Goigana eta Sarai Robles).

Etxeberría ostatu bigarren finalerdian Malenreka taldea (Maddi Aiestaran, Alazne Untxalo, Egoitz Gorosterrazu eta Malen Altuartz) gailendu zitzaion Sormen taldeari (Eki Mateorena, Loitzate Goñi, Kattin Madariaga eta Haira Aizpurua).



Parte-hartzaile gehienak Arranon.

Arrano ostatu finlean 70 lagun baino gehiago elkartu ziren afarian, eta jende gehiago ere hurbildu zen Malenreka eta Anai-arrebak taldearen kontrako finala aditzeko. Azkenean, lesakarrak izan ziren 24. edizioko irabazleak. Bertso onenarentzako izaten den Kotto saria Egoitz Gorosterrazu iturendarrarentzat izan zen. Iazko irabazle Kattin Madariagak eman zion saria. Gaiak jartzen eta musikari lanetan, Bortzirietako Bertso eskolako gazteak aritu ziren, eta epaile lanetan, aldiz, entzuleak. 24. edizio «borobilarren» ondotik, aurten 25 urte beteko ditu Bortzirietako Bertso Eskolak antolatzen duen lehiaketak.

Inauterietako kartel lehiaketara lanak aurkezteko azken egunak

A. AROTZENA LESAKA

Inauterietako iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Lesakako Udalak. Urtarrilaren 12an, 13:00etan bukatuko da aurkezteko epea. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du. Kartelaren neurria A2koa izan beharko du eta bertan, derrigorrez, 2024ko *INAUTERIAK LESAKAN otsailaren 8tik 13ra* azaldu beharko da. Lesakan jaiok edo bertan erroldatutako 18 urteko goitiko pertsonen parte har dezakete.

Erakusketa

Aurkezten diren lanekin erakusketa eginen dute liburategian hilaren 15etik 19ra (biak barne). Herri bozketak erabakiko du irabazlea, eta haren erabakia ezin izanen da gibelera bota. Horretarako, erakusketak irauten duen bitartean, Lesakan jaiok edo bertan erroldatuek bozkatzeko aukera izanen dute. Irabazleak 250 euro hartuko ditu.

Mundialera joateko diru bilketa kanpaina ari da Beti Gazte

TTIPI-TTAPA LESAKA

Otsailean Suedian jokatu den munduko sokatira txapelketara joan ahal izateko diru bilketa kanpaina hasi du Beti Gazte sokatira taldeak. Alde batetik, nahi duenak borondatea uzteko eltzetsuak paratu dituzte Lesakan (Koxkila ostataua, Haizea kafetegia, Zantzonea ostataua, Izarra okindegia, Arrano ostataua, Txinelka zapata denda, Iturbena kafetegia eta Etxeberría ostataua), Igantzín (Estankoa), Etxalarren (Herriko Okindegia eta Herriko Ostataua) eta Beran (Errekalde ostataua).

Zozketa ere prestatu dute. Lindurrenborda sagardotegian bi lagunentzako otordua eta Otxuneko bi gazta zozketatuko dituzte. Txartelak Xagu liburu dendan, Izarra okindegian eta Telletxea estankotan eskura daitezke. Zozketa urtarrilaren 20an eginen dute. Nazioartekoan ere parte hartuko du Beti Gaztek, Euskal Herriko ordezkari.



JUAN MARI ONDIKOL

27 olentzero Lesakako lehiaketan

Marka guztiak hautsi eta 27 olentzero aurkeztu zituzten abenduaren 24an Lesakako plazan egindako lehiaketara. Kategoria nagusian argazkiko Burusoilak taldeak irabazi zuen. Bertze hiru olentzero lehiaketaz kanpo ere plazarau zituzten eta jaiotza lehiaketan zortzi aurkeztu zituzten.

37 pilotari Etxalarko Eguberrietako VI. pilota torneoan

Bortzirietako txapelketan ere aritu dira sei pilotari eta horien artean bat finalera ere sailkatu zen

IRUNE ELIZAGOIEN ETXALAR

37 pilotari aritu ziren abenduaren 27an egin zuten torneoan. Txikienen mailan, torneoa izan gabe, partiduak jokatu zituzten Elaia Larretxea, Enara Zubieta, Aner Garde, Xuban Mendikoa eta Maiane Amundarainek. Benjamin mailan, Arane Iriarte eta Beñat Iturbide izan ziren txapeldun, Urko Aranburu eta Urtzi Olagarairi 22-13 irabaziz. Alebin mailan, Xiker Olagarai eta Joane Solano izan ziren txapeldun, 22-15eko emaitzarekin Romeo de Caceres eta Nahia Iparra-

girrerri garaituta. Infantiletan, Erik Igoa eta Ibai Azkarraga izan ziren txapeldun, Julene Danboriena eta Ander Larbururi 22-6 irabazita. Handienen kategorian, Lander Lasaga izan zen txapeldun, Aitor Azkarragari 16-13 nagusituta.

Bortzirietako txapelketan berriz, Etxalarko hainbat pilotarik hartu dute parte: Hegoi Otazok, Erik eta Juel Igoak, Xiker eta Urtzi Olagarai eta Beñat Ansalasek. Juel finalerdietara iritsi zen eta Erikek finala jokatu zuen Jon Lazkano-
notegiren kontra 18-11 galduz.



Imanol Vicente eta Xabier Gallardon pilotuak. ALAITZ DANBORIENA

Imanol Vicente eta Xabier Gallardon etxalartarrak Nafarroako txapeldun

IRUNE ELIZAGOIEN ETXALAR

Urtea borobil bukatu dute Imanol Vicentek eta Xabier Gallardonek. Xabier, Enduro eta Cross Country modalitateetan Nafarroako txapeldun izan da urtean zehar egindako hamar bat lasterketetan lortutako emaitza onen ondorioz. Imanol, berriz, Nafarroako

Auto-kroseko txapeldun izan da Car-kroseko modalitatean eta Slalom txapelketako bigarrena Carcros modalitatean. Horrez gain, Gaztela Leongo Autocrosseko 2023ko txapelduna ere bada. Urtarrilaren 13an izanen da Nafarroako automobilismoa txapelketako sari banaketa Lesakan.



OSKAR TXOPERENA

Dantzarien Topaketa Igantzin

Dantzari Ttikien Topaketa burutu zen abenduaren 23an Igantzin. Sara, Zudaire eta Igantziko dantzariak bildu ziren. Goizean lapurtarrei harrera egin eta karrika buelta egin zuten dantzari, kankailu eta buruhaundiekin. Ondotik dantza saioa izan zen frontoian eta bazkaria Baratzondon.



ANA ETA ITZIAR

Giltzarriren kontzertua Igantzin

Giltzarri abesbatzaren kontzertu ederra izan zuten abenduaren 23an Igantziko elizan. Isabel Lacarrek zuzendu zuen abesbatza eta Imanol Elizasuk jo zuen pianoa. Zare eder bat ere zozketatu zuten kontzertuaren ondotik eta Idoia Urtxegi Telletxeak eraman zuen etxera.



OLA
SAGAROTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bisitatu gure online denda!

102 Meaka auzoa
20304 IRUN - T.943 623 130

- 🍏 Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- 🍏 Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- 🍏 Klimatizatua
- 🍏 Sagardo denboraldi maiatza bukaera arte
- 🍏 Sagardotegi menua txotxarekin
- 🍏 Asteartetik larunbatera afariak. Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan.

SAGARDO BERRIAREN GARAIA
Denboraldi irekiera urtarrilaren 21ean



'El pavo' lasterketan parte hartu zuten Etxalartarrak. BTT TALDEA

Maiatzaren 4an izanen da III. BTT itzulia

Proba finantzateko azken egunetan hainbat ekitaldi egin dituzte: mus txapelka, saskiaren zozketa eta bingoa

IRUNE ELIZAGOIEN

BTT lantaldea Etxalarko III. itzulia antolatzen hasia da eta dirua lortzeko hainbat ekitaldi egin dituzte. Abenduaren 30ean mus txapelketa izan zen Elutsan. 25 bikotek hartu zuten parte eta txapeldunak Nerea Mitxel-torena eta Lurdes Galarregi izan ziren eta bigarren Aritz Irazoki eta Imanol Telletxea. Saskiaren zozketa ere egin zuten eta Oscar Goienetxe izan zen irabazlea. Urtarrilaren 7an bingoa egitekoa zuten Herriko Ostatuan.

Bizikleta ibilbideak egiten ere ari dira; azkena, Muniáin



Museko irabazleak. EDURNE ARTOLA

de la Solanako, *El Pavo*, 37 kilometro zituen lasterketa ez lehiakorra. Azken 3 kilometroak, kronometratuak ziren eta Ana Serrano hirugarren gelditu zen nesketan.



JOSEBA OLAGARAI

Giro ona izan da Eguberrietan

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izan zuten herritarrek. Abenduaren 24an txistulari eta trikitilariekin herriari itzulia egin zioten eta ondotik Guraso Elkarteak egindako merienda izan zen. Meza ondotik, elizako arkupean gabon kantak kantatu eta trikitilariak saioa egin zuten frontoian.

Udalak bestetako ekarpenak biltzeko formularioa egin du

Besta hobeak eta denen gustukoak izateko helburuarekin, jendeak bere ekarpena egiteko aukera zabaldu du, udalak formulario bidez. Urtarrilaren 31 arteko epea izanen da proposamenak bidaltzeko, eta ondotik proposamen guztiak jakinaraziko dituzte.

Altxataren bidez mendian federatzeko aukera

Tramitea errazago egiteko, internet bidez (www.nafamendi.org) norberak egin behar du lizentziaren alta eta ordainketa. Garrantzitsua da norberak pausu hau eginda ere, Altxatari abisua pasatzea, tramitearen azken pausua eman eta Altxatak txartela hartzeko.

Ardura
arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USURRI EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEDOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

RESERVA L.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65



Haurrak taldeka banatuta eskean ibili ziren. ANA ETA ITZIAR



Baratzondoko saskia Carmenentzat.

Eguberrietako ospakizunekin agurtu zuten urtea

Olentzero lehiaketan Biltoki Ttikik eraman zuen lehen saria eta gazteak 'santaktan' ere ibili ziren urtezahar egunean

ANA ETA ITZIAR

Urtero, abenduko oporrak hasi baino lehen eta eskolako azken eguna aprobetxatuz, abenduaren 22an, Olentzero agertu zen eskolan haurrei saludatu eta opari batzuk ekartzera. Giro ederrean joan zen eguna, eta borobiltzeko, beti egin ohi den eskolako hurrek saldutako errifen zozketa ere egin zuten.

Lehenbiziko saria Lourdes Garciak eskuratu zuen (1447 zk.); bigarren saria Iñigo Migelena Matxikotek (160 zk.); hirugarren saria Iñaki Etxeberria Mendigutxiak (1142 zk.).

Baratzondoko saskia berriz Etxezuriko Carmeni egokitu zaio.

Abenduaren 24an, egunari zagozkion ekintzak ere giro ederrean egin ziren; goizean goiz bortz taldetan banaturik, herriko haur eta gazteak aritu ziren etxez etxeko eskean kantari. Arratsaldean, berriz, Olentzeroekin herri buelta egin eta ederki meriendatu eta gero, txapelketa hasi zen. Biltoki Ttikik eraman zuen lehenbiziko saria, baina aipatzekoa da talde guztiek egindako lana.

Urtezahar egunean, berriz, Biltoki Ttikiko gazteen txanda

izan zen, etxez etxe *Santaktan* eskean ibiltzeko. Urteari akabilla emateko giro ederra paratu zuten etxeetan bertso kantuan.

Errege eguneko bezperan, Kabalgata egitekoa zen.

Eskolako egutegiak salgai

Aspaldiko urteetan egiten den bezala, Guraso Elkarteak eskolako hurrekin eginiko egutegia salgai jarria du dagoneko. 10 eurotan eskura daiteke.

Iñaki Bereau lasto altxatzen

Abenduaren 23an burutu zen Dimako I. lasto jasotze txapelketa. Bertako frontoian Euskal Herriko 11 lasto altxatzailer izan ziren lehian eta haien tartean hainbertze urtez goi mailan ibilia den herriko Iñaki Bereau Sein. Aspaldiko urteetan ibilia ez bazen ere, San Migeletan eginiko omenaldian eskainitako froga ikusita deitu zuten, eta ederki aritu zen lanean.

Patxi Zabaletaren solasaldia ortziralean

Patxi Zabaletaren hitzaldia izanen dugu ilbeltzaren 12an, ortziralean 19:30ean, Biltoki elkartearen. *Orreaga-Roncesvalles 778-824* izenburupean emanen du hitzaldia leitzarrak. Guda hura baskoien erresumaren sorreraren sinboloa izan zela dio Zabaletak.

Biltokiko garbitzaile lanposturako deialdia zabalik

Urtea joan zaigu dagoeneko eta luzatu du Biltokik urtero bezala garbitzaile lanposturako deialdia. Izena emateko azken eguna ilbeltzaren 15a izanen da eta bazkideek lehen-tasuna izanen dute. Lanpostua urte beterako emanen da, otsailaren 1ean hasita.

Oihan Canabal Etxarte Nafarroako txapeldun

Abenduaren 22an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako Nafarroako pilota txapelketako finalean izan zen berriz ere Oihan Canabal Etxarte herritarra. Unax Apeztegia baztandarra lagun zuela, 22-10 irabazi ziteen Fermin Arribilaga eta Jonan Peñalverri.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
E. zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

MARTIX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- BOLETIN INDUSTRIA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria

astelehenetik ortziralerara



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Inauteriak otsail hasieran izanen dira

Mozorro Zurien taldeak aurtengo inauteriak otsailaren 1etik 3ra izanen direla aitzindu du

NEREA ALZURI

Gibelean utzi dugu 2023a eta urte berriaren lehenbiziko egunetan gaude. Eguberri aroa pasatu berria da eta ospakizunen hurrengo geldialdia inauterietan eginen dugu. Mozorro Zuriak daten berri eman digute: otsailaren 1ean, 2an eta 3an

izanen dira herriko inauteriak, ortzegunetik larunbatera. Azken orduko aldaketarik ez bada, ortzegunarekin Mozorro Zuriak baserri auzoetan ibiliko dira eskean eta ortziralean herrian. Xehetasun gehiago aitzinera go izanen dugu. Inauterizalea denak izanen du non gozatu.



JOSE RAMON AMOROS

Udal ordezkariak lanean

Abenduaren 16an hartu zuten kargua udal ordezkariak. Xatur Larralde Ibarrola da orain alkatea, eta Leire Mitxelena Gamio, Igor Ugalde Salazar, Ana Maeztu Villanueva, Andoni Mitxelena Danboriena, Itziar Arozena Bergara eta Julen Oskoz Elizondo zinegotziak. Irudian Nagore Madariaga idazkariarekin ageri dira.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOATEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com



Jauztena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa



Musikariak aitzinean zituztela kalejira egin zuten herritarrek abenduaren 24an.

Urte hondarreko eta hasierako ekitaldiak ederki joan dira

N. ALZURI

Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingiri harrera beroa egin zieten herritarrek. Lehenbizi, Olentzeroak bizkarran hartuta, herrian barna ibili ziren, Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena eta Amaia Telletxea musikariek. Plazan, gaztetxoek kantak eta dantzak

egin zizkieten bi protagonistei eta panpina erreta korroan dantzan ere ibili ziren. Bertzalde, urte zahar eguneko elkartasun zozketan, produktuen karreretan hartuta, herrian barna ibili ziren, Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena eta Amaia Telletxea musikariek. Plazan, gaztetxoek kantak eta dantzak

Burlantza final laurdenetan kanpora futbiton

Aipatu bezala, Doneztebeko Eguberrietako Futbito Txapelketan parte hartu zuten herritarrek, Burlatako lagunekin Burlantza taldea osatuz. Final laurdenetan galdu zuten, baina, gustura txapelketan parte hartuta..



JOSE RAMON AMOROS

Kattin Madariagak bi sari irabazi ditu Iruñeko IV. Bertsopaper Lehiaketan

N. ALZURI

Joan den abenduaren 19an jakinarazi zituzten Iruñeko IV. Bertsopaper Lehiaketako saridunak eta idazle gazteen kategorian, B kategorian, Kattin Madariaga Apaolazak lehenbiziko eta bigarren sariak eskuratu zituen. Lehenbiziko

saria bigarren urtez lortu du, aldi honetan *Hau ote da?* lanarekin. Bigarren saria *Zori onak, edo* lanarekin irabazi zuen. Bertzalde, Kattinek Bortzirietako Taldekako Bertso Txapelketan ere parte hartu duen abenduaren 30ean, Sormentaldian.



ARANTZA
HOTELA



ONGI SENTITZEKO ETA ATSEDEN HARTZEKO ESPERIENTZIA PAREGABE BAT IZAN NAHI DUZU?

Arantza Hotelean gastronomiaren eta ongizatearen arteko konbinazio perfektua aurkituko duzu.

Hasi zure eguna gure span, konpainiarik hoberenarekin zure tentsioak libratuz eta emaitza segida janari gozoarekin. Gure kartan plater bikainak dituzu aukeran, osagai freskoekin eta sasikoekin eginak.

Erreserbatu zure mahaia gaur bertan eta gozatu esperientzia ahaztezin horretaz!

+34 654 318 949
edo info@arantzahotela.com



Aientza Auzoa, 10 - 31790 ARANTZA



Korrikalariak irteeran. MAIDER PETRIRENA

II. San Silvestre lasterketa arrakastatsua izan da

Sara Gartzia Sanzberro eta Ekaitz Bertiz Apezetxea nagusitu dira 4 kilometroko ibilbidean

MAIDER PETRIRENA

Urteari bukaera ezin hobea emateko, Sunbillako II. San Silvestre lasterketa egin zuten. Aurtengoan, berriz ere, jende andana bildu zen parte hartzera eta ikustera.

Tikiñen ondotik gazte eta helduen txanda izan zen. Azken hauek 4 kilometroko ibilbidea egin zuten, DJ J&K alaiturik. Emakumeen sailkapena ondorengo izan zen: 1. Sara Gartzia Sanzberro, 2. Leire Sanzberro Oharriz 3. Ainhoa Armendariz Aizkorbe eta 4. Nahia Portu Zelaieta. Gizonezkoetan berriz, 1. Ekaitz

Bertiz Apezetxea, 2. Eneit Bertiz Apezetxea eta 3. Iñigo Arrieta Gelbentzu.

Miranda de Argako Imanolek ere, mozorratuta lasterketa egiteagatik, saria jaso zuen. Lehen bi postuetan gelditutakoek Fermin Ibarrek egin-dako egurrezko oparia ere jaso zuten.

Zozketak

Ekitaldiari bukaera emateko zozketa egin zen. Elgorriagako bainuetxeko bonua Maite Aizkorberri egokitu zitzaion; magra Klemente Iriarteri eta gazta eta ardoa Irati Arrietari.

Arriola eta Bereau frontenisean txapel-dun

Sunbillako frontenis txapelketa jokatu zuten abenduaren 23an. Sei bikote aritu ziren, bi multzotan banatuak eta arratsaldean jokatu zituzten finalerdia eta finala. Finalean, Haritz Arriolak eta Haritz Bereauk 30-23 irabazi zieten Luis Retegiri eta Igor Bertizi.



Finalistak frontoian. JONE IRIBARREN



ALTSUPEREA BASERRIA

Eguberri egunean baserriz baserri

Gazteak eskean ibili ziren abenduaren 25ean. Arratsaldean fonda ondoan elkartu eta bi taldetan banatu ziren, bakoitzak akordeoilari bat lagun. Herrian eskean ibili eta Ulibeltzak elkartean afaldu zuten. Akitutakoan, berriz ere bi taldetan banatu eta baserrietan eskean eta kantuan ibili ziren.



IRATXE MENDIKOA

Urtaskak urtea hasteko

Urtarrilaren 1ean, berriz, eguraldia lagun, urteari hasiera kantuan ematen zaio. Herri eta baserrietan bi taldetan urtaskak kantatzera ateratzen dira herriko haur eta gaztetxoak. Kantuarekin batera intxaurrak, mandarinak, hurrak, goxokiak, txokolatinak.... biltzen dituzte.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 parzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36



Txapelketa irabazi duen Carnicerias Elorza antolatzaileekin. UTZITAKOA

Carniceria Elorza taldeak irabazi du futbito txapelketa

245 jokalarik hartu dute parte Eguberrietan egin duten txapelketaren hamaikagarren edizioan

TTIPI-TTAPA

Hamaikagarren aldiz Eguberrietako futbito txapelketa egin dute Doneztebeko Futbol Taldeak antolatuta. Abenduaren 22an hasi eta 31n bukatu zen torneo, eta herriko jokalariek osatutako Carniceria Elorza taldeak irabazi zuen finala. Bigarren lekuan Ultzamako Txokoracing taldea sailkatu zen, eta hirugarren eta laugarren Aztamuka taldea eta Manchester Titi herritarrek sailkatu ziren.

Bertze hainbat sari ere banatu zituzten. Kiroltasunaren saria Testiculo de Jehova tal-

dearentzat izan zen, txapelketako jokalaria hoberenarena Mikel Retegirentzat, txapelketako atezain hoberenarena Sergio Larrainzarrentzat, finaleko golegile nagusiari saria Aimar Leatxeri eman zioten, eta txapelketako golegile nagusia, Aimar Jabalera izan zen.

Txapelketa arrakastatsua izan da, bai parte hartzaileen aldetik zein ikusleen aldetik ere, jende aunitz bertaratu baita partidetara. Denera 20 taldek hartu dute parte, 245 jokalarik eta 44 partida jokatutuzte.

Palestinari buruzko solasaldia urtarrilaren 14an

Igandean, hilaren 14an *Zer ari da gertatzen Palestinan?* izeneko solasaldia izanen da herriko ostatuan Malerreka-ko eta Bertizaranako Lapaitza Gazte Asanbladak antolatuta. Lidon Sorianok emanen du hitzaldia eta gaztelaniaz izanen da 18:00etan.

40 bertsozale elkartu dira bertso afarian

Julio Soto, Alazne Untxalo eta Bittori Elizalde bertsozaleekin bertso afaria egin zuten abenduaren 15ean Santamarian. 40 lagun elkartu ziren bertsozaleen jarduna aditzera eta bertso saio ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Olentzero eta Mari Domingi bisitan etorri ziren

Abenduaren 24an Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izan zuten herriko haurrek eta helduek. Kalejira egin zuten herrian barna txistularien laguntzarekin, haurrek dantzatu zuten eta ondotik menditik etorri ziren herritarrek bidea argitzen zieten bitartean.



Olentzero eta Mari Domingi. UTZITAKOA



Helduen lasterketan parte hartu zuten lasterkariak. ERREKA KIROL ELKARTEA

250 lasterkari baino gehiagok osatu dute San Silvestre lasterketa

TTIPI-TTAPA

250 lasterkari elkartu ziren urteko azken egunean lasterka egiteko. Emakumezkoetan Saioa San Miguel herritarra nagusitu zen, bigarrena Amaia Jorajuria herritarra izan zen eta hirugarren Elgorriagako Mireia Ostiz. Gizonezkoetan, aldiz, Narbarteko Joseba Eli-

zagoienek irabazi zuen, Borja Arregi herritarra gelditu zen bigarren eta Beintza-Labaien-go Beñat Albisu hirugarren. Ekitaldian bildutako dirua Pequeña Guerrera elkarteari bideratu zioten.

Abenduaren 24an Saioara eta 31n Mendaurrea joan ziren mendizaleak.



MALERREKAKO BERTSO ESKOLA



Olentzerori ongietorria emateko kantari ibili ziren. ARKAITZ MINDEGIA

Eguberrietako ospakizunak bikainak izan dira

Olentzero eguneko, urtezahar gaueko eta errege bezperako ospakizunen ondotik, inauteriei begira daude herritarrak

ARKAITZ MINDEGIA

Urteko azken ospakizunak gustura egin dituzte herritarrek. Eguberri bezperan, Olentzero etorri baino lehen, kantari ibii ziren Aurtitzen eta Iturenen. Aurtiztarrek elkartean Olentzeroren bisita izan zuten, bertan haur bakoitzari oparia utziz, ondotik txokolatea jatea eduki zuten indarrak berreskuratzeko. Ilunabarrean, Iturengo herriko plazara joan zen, joaldunen laguntzarekin. Urtea akitzeko, batzuk Mendaur kaskora igo ziren eta bertze batzuk urteko azken gosaria lagun artean egin zuten.

Anis Saint Germain Doneztebeko futbito txapelketan

Doneztebe futbol taldeak antolatatu duen eguberrietako txapelketan parte hartu dute herritarrek, Anis Saint Germain taldean. B multzoan aritu ziren, Manchester Titi, Bozka Juniors, Los Amigos eta F.C. Ultzamaekin batera. Ez zuten aitzinera egiterik izan.

ten. Urte hasieran, musika lagun izateaz gain, su artifizialak piztu zituzten.

Errege bezperan joareak jo zituzten. Arratsaldean gazteen txanda izan zen, Ituren eta Aurtizko karriketan barrena. Ordu ttikitan kuadrilla ederra elkartu zen, lehenik bakoitza bere herrian eta gero, inauterietan bezala, ondoko herriei bisita eginez. Aurtitzen eta Iturenen afariak antolatu ziren. Iturenen, Mikel Salaberri hortxe aritu zen musika jotzen ordu ttikiak arte. Behin besta hauek pasatuz inauterietan begia jarria daukate herritarrek.

Egoitz Gorosterrazuk Kotto Saria irabazi du

Bortzirietako 24. taldekako bertso lehiaketan parte hartu zuen Malenrreka taldean aritu ziren Egoitz Gorosterrazu eta Alazne Untxalo herritarrak. Finala galdu zuten, baina Gorosterrazuk bertso onena eta bere ibilibidea saritu zuen Kotto Saria irabazi zuen.



Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak jaialdian. ARKAITZ MINDEGIA

Lehen hiruhilabetea eta urtea agurtzeko jaialdia egin zuten Pulunpa eskolan

A. MINDEGIA

Lehen hiruhilekoaren akabailako jaialdia egin zuen Pulunpak. Ikuskizun polita eskaini zuten eskolako ikasle eta irakasleek. Abestiak dantzatu eta kantatzeaz aparte (aipagarria ikasleek txirularekin eta irakasleek ukelelearekin jo eta abestu zuten *Don't worry be happy*), Malerrekari buruzko lehiaketa bat antolatu zuten. Ondotik, guraso elkarteak eskainitako gosaria izan zuten. Segidan sarien zozketa egin zuten. 1. saskia 0354 (Virginia); 2. saskia (Maite Mendibil); 3. saskia 0338; 4. saria, Elorza

harategiaren oparia, 0265 (Kuku); 5. saria, Iturengo ostatuaren oparia 0255 eta 6. saria Tresanearen oparia 0574 (Andoni Irazoki). Hirugarren eta bosgarren sariaren sari-dunak ez dira oraindik azaldu. Hilabeteko epean ez badira ateratzen, berriro egingen da zozketa. Boleto hauez gain, guraso elkarteak 2024ko egutegia atera zuen berriro ere, norbait gabe geratu baldin bada, herriko komertzioetan eta bertako kideekin jarri kontaktuan. Aurten botilak ere atera dituzte eta hauek eskuragarri dituzte oraindik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak harat-honatean ibili dira

Iturengo joaldun helduak abenduaren 22an Arrasaten santamasetan ibili ziren biharamunean Corellako Olentzeroan. Ttikien taldea berriz Oreretara (argazkian) eta Barañaingo Olentzerora joan ziren. Aurtizko joaldunak ere Elizondoko Olentzerora eta kagalgatara joan dira.

Herriko ostatua errentan emateko deialdia egin dute

Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 22an bukatuko da eta udal eraikinen garbiketa lanetarako deialdia ere egin dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako herriko ostatua errentan emateko deialdia egin du Zubietako udalak. Taberna, jatetxea eta logelak kudeatu beharko ditu maizter berriak. Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 22ra arte zabalik dago. Lan egunetan 08:00etatik 11:00etara aurkez daitezke proposamenak herriko etxean bertan, 948 45 01 61 telefonora deituz edo www.zubieta.eus webgunearen bitartez.

Baldintzak eta beste jakin-garriak udaletxean bertan

galdetzen ahal dituzte interesatuek.

Udal eraikinen garbiketarako lan eskaintza

Beste aldetik, udal eraikinak (udaletxea, mediku kontsulta...) garbitzeko lanak ere esleituko ditu udalak. Proposamenak aurkezteko epea hilaren 12an, ostiral honetan bukatuko zaie interesatuei. Beraz, azkar ibili. Aspaldiko urteetan Lurdes Elizalde Mitxelena herritarra egiten ari da lan hauek, baina kontratua bukatu zaio.



ARGAZKIJABEAXXX

Kargua hartu dute alkate eta zinegotziak

2015etik alkatea den Ernesto Dominguezek segituko du aginte makilarekin. Berarekin batera, Herriko Taldeko Ezekiel Loiarde, Ainhoa Mindegia, Periko Santesteban eta Txomin Hualde eta Martxel Elizalde (abenduarien 20ko ezohiko plenoan hartu zuen kargua) dira zinegotziak.

Ohiko ospakizunak iragarri dituzte urtarrilaren 17ko San Anton egunerako

F. ETXEKOLONEA

Ilbeltzaren 17an, datorren asteazkenean, izanen da San Anton eguna eta, ohi bezala, Zubietan ere ospatuko dute abeltzainen eta azienden eguna. Goizez (hau idazterakoan ordua zehazteko zegoen, baina 11:00 aldera) meza izanen

dute basilizan eta, ondotik, hamaiketako eskainiko du leku berean udalak. Arratsaldean, 17:00etan, txokolatea emanen dute estalpean eta, ondotik, dantzaldia izanen dute leku berean Arantzako Andoni Mitxelena akordeolariarekin.



UTZITAKOA

Olentzero eta Mari Domingi bisitan

Mari Domingi egun batzuk lehenago etorri zen eskutitzak biltzera eta abenduaren 24an Olentzerorekin batera egin zuen bisita, trikitilariarekin. Estalpean banatu zituzten opariak. Urtezahar egunean herritar batzuk Mendaurrera joan ziren eta errege bezperan lehen joare soinuak aditu dira.

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT

astelehenetik ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklínika.es

@liderahortzklínika

744 484 361

ttipi-ttapa

ORBELA

SERVICIOS ALTERNATIVOS

BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikel

Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN

info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK

DESINFEKZIOAK • HEGAZTIEN KONTROLA

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Bertso kantuan bukatu dute urtea Beintzako aterpean

Nafarroako Bertso Eskolen negulekua egin zuten eta Julio Soto, Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu aritu ziren kantuan

ARANTXA ITURRALDE

BEINTZA-LABAIEN

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak, Nafarroa osoko bertso eskoletan ikasturte osoan ari diren gazte eta gaztetxoentzat antolatutako bertso negulekua egin zuten abenduaren 27an eta 28an Beintzan, urtea agurtzeko. Horren barrenean, bertso afaria eskaini zuten Beintzako Orbela ostatuan eta herritar batzuk ere hurbildu ziren afaltzera eta saioa entzutera. Antza denez, Nafarroako Bertsozale Elkartekoak txandaka aritzen dira Nafarroako hainbat ostatuetan emanaldi hauek egiten eta oraingoan, Beintzari egokitu zaio. Bertan aritu ziren bertsolariak hauek izan ziren: seigarren aldiz Nafarroako txapelketa irabazi berri duen Julio Soto eta Alazne Untxalo



Bertso afaria aterpean.

eta Egoitz Gorosterrazu iturrendarrak.

Afaldu ondotik, bertsolariak, gaztetxoak eta herritarrak aterpeko jantokitik karrikara aterra ziren. Ilargi betea zegoenez, aukera paregabea izan zuten ilargiari ere bertsoak botatzeko.

Arrakastatsua izan zen emanaldia eta gau giro bikainean bertsoetatik gozatzeko aukera ederra izan zuten bertaratu ziren guztiak.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ARIZTEGI

Olentzeroren bisita izan dute Urrozen

Urtero bezala Olentzeroren bisita izan dute aurten ere urroztarrek. Trikitixa doinuek alaiturik, etxez etxe eskean ibili ziren haurrak. Merienda izan zuten ostatuan, ilundu eta Olentzero menditik jaitsi zen arte. Berriz ere opariz betea etorri zen eta hagitz eskertuak daude haurrak.

Jubilotekakoek egutegia prestatu dute Ezkurran

Joan den urtean Ezkurako jubilotekako erabiltzaileek diseinatu, marraztu eta margotutako 2024ko egutegia argitaratu dute. Lan handia egin dute, baina emaitza ederra izan da. Asteazken goizetan eta ostegun arratsaldetan bilzen dira jubilotekan.



Egutegi dotorea prestatu dute.

WIKAI Hasi urtea ordaindu gabe!

Konektatzeko lurra Hemengoak garelako

GURE MUGIKOR ETA TELEFONO FINKORAKO TARIFAK KONTSULTATU

600 Mbps
0€ ordaindu 2 hilabetez
GERO 29.90€^{IVA}

Telebistako plataforma oparitzen dugu. 96 kanal baino gehiago familia osoarentzat.
Gainera, ETB1, ETB2, ETB3, ETB4, eta XALOA telebista-kanalekin

Eskaintza honek urtarriaren 15etik otsailaren 29ra arte balio du

Bazara berrientzat bakarrik

info@wikai.es | 948 030 500 | wikai.es



Elkarteko mendizaleak Garmendi tontorrean. UTZITAKOIA

Garmendi tontorrean izan dira elkarteko mendizaleak

1.059 metro dituen tontorra izan da mendizaleek igo duten azkena. Aurten ere mendiko irteerak egiten segituko dute

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 19an egin zuten urteko azkeneko mendi irteera Arkupeak elkarteko mendizaleek, Garmendira. Horretarako, Gazteluko plazan elkartu ziren 73 kide. Aro ederra izan zuten; 11 gradu eta euririk ez.

Gazteluko plazatik Legarreko lezera joan ziren ibilaldia hasteko. Atsedendaldi tiki bat egin eta Baztanibarraren gosaldia ondotik, Buruza peñan barna Lantzibiko zelaira ailegatu ziren. Bertan, aukera eman zuten Garmendira igo nahi ez zuena bertan

gelditzeko, baina, azkeneko denak igo ziren 1.059 metro dituen tontorrera.

Behean lainoa zuten arren, tontorren eguzki garbia zegoen eta hango bidez gozatzeko aukera izan zuten mendizaleek. Gero, Larrepilen barna Baztanibarretik Gaztelura jaitsi ziren.

Bortz ordu eta 15 kilometro eta gehixeago egin ondotik Doneztebeko Santamaria jatetxera bazkaltzera joan ziren 78 lagun. Hagitz ongi bazkaldu ondotik, aurtengo lehenengo irteera arte agurtu zuten elkar.

Urteko azken irteera Erriberriko Piedemonte upategira

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 14an elkarteko 59 kide Erriberriko Piedemonte upategira joan ziren egun pasa. Upategia bisitatu, azalpenak aditu eta ardo dastaketa egin zuten, gaztarekin lagunduta. Tartean Erriberri ikusteko aukera izan

zuten, baita Gaztelua ere zenbaitzuek. Ondotik, Castejonon bazkaldu zuten.

Erriberrikoa eta Castejongoa izan zen bazkideek iaz egin zuten azkenengo bidaia. Aurten ere halakoak antolatzen eta egiten segitzeko asmoa dute.

Delegatuekin urteroko bilera egin zuten elkarteak abenduaren 20an

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 20an Elkarteko delegatuen ohiko bilera egin zuten Doneztebeko elkartearen egoitzan. Bertan, elkartearen azken sei hilabeteetan egingako informazioa helarazi zitzaion delegatuei. Hala nola, 2023ko behin-behineko balantzea ere egin zuten, eta aurtengo informazioa zabaldu zuten: bidaien antolaketa, aurrekontua, plan orokorra, delegatu aldaketa... 29. buletina ere banatu zieten herrietako delegatuei.

Elkarteak eskerrak eman zizkien delegatuei urte osoan egiten duten lanagatik, ezinbertzeak baitira elkartearen funtzionamendurako.

Horrez gain, delegatu berrien eskea egin du elkarteak berriz ere. Amaiurren, orain arte delegatu aritu den M^a



Bazkideak 2022ko bileran. ARTXIBOKOIA

Victoria Juanikotenak kargua utzi du, eta delegatu berria behar da.

Lekarozen bertzalde, egin-beharrak orain arte Elizondoko delegatuak egiten zituen. Hemendik aitzinera, bertakoren bat nahi dute lan horretarako.

Postu horiek betetzeko interesa dutenek bulegora deitu beharko dute (948 45 08 78 edo 618 56 78 37) otsailaren 8a baino lehen.

Ekainaren 16tik 23ra Albaniara bidaia egingen dute bazkideek

TTIPI-TTAPA

Heldu den urtean ere hainbat bidaia egingen dituzte elkarteko bazkideek. Bidaia handi horietan lehena Albaniara egingen dute ekainaren 16tik 23ra. 54 lagunentzako lekua dago ekaineko bidaiari, baina, jende gehiago apuntatu-

ko balitz, bigarren bidaia bat antolatuko lukete, eta data aitzinerago zehaztuko lukete.

Izen ematea urtarrilaren 8an eta 9an egitekoa zuten eta izena eman ondotik, NAnaren fotokopia bulegora eraman behar da.



Erriberriko upategira joandako bazkideak. UTZITAKOIA



Plazaolako geltoki zaharra eraberritzeko asmoa du udalak. ARTXIBOA

Udal aurrekontuek % 12,8ko igoera izan dute

3.395.614 euroko aurrekontua onartu du udalak eta esku artean dituzten proiektuen berri eman du

TTIPI-TTAPA

Abendu bukaeran onartu zuen udalak 2024ko aurrekontua: 3.395.614 eurokoa izanen dena. Urtero bezalaxe, aurrekontuaren bi heren, ohiko gastuak ordaintzeko izanen dira: langileria eta kudeaketa gastuak ordaintzeko, herriko azpiegiturak mantentzeko... Aurretik onartuta zeuden hainbat proiektu gauzatu eta proposamen berriak ere baditu udalak.

Plazaolako geltoki zaharra biziberritzeko proiektua izanen da momentuz inbertsiorik handiena. 80.000 euro bide-

ratuko dituzte horretara, baina dirulaguntza bidez finantzatu da zatirik handiena. Aspalditik du burutan udalak eraikinean aterpea, ostalua... jartzeko asmoa, proiektua onartua dute eta aurten hasiko dituzte lanak.

Larreen kudeaketa hobetzeko egitasmo berezia ere egin

AURREKONTUEN BI HEREN OHIKO GASTUETARAKO DIRA

nahi du udalak, bost urterako balioko duena. Ur-depositura doan hoditeria berritu eta portabilizazio-estazioan estalpea ere jarri nahi dute eta herria argindarrarekin hornitzeko sistema berritzeko transformazio zentroa jartzea ere lantzen ari dira. Udalarentzat ibilgailu elektrikoak eskuratu eta instalazio fotovoltaiko bat ere jarri nahi dute.

PARTE-HARTZE PROZESUAK

Parte-hartze prozesuei ere tokia eginen diete eta zaintza-aren inguruko azterketa, diagnostikoa eta plana egin eta herriko puntu ilunen azterketa ere egiteko asmoa dute. Herriko curriculum osatzeko beka deialdia ere eginen dute.

Aurrekontuetan onartutako horiez gain, beste zenbait proiektu esanguratsu aurrera ateratzeko kudeaketa egiten ari da udala, dirulaguntzak eskatuz eta borrokatuz. Dena den, finantziarioaren inguruko erabakia ez dagoela udalaren esku argitu dute: «ez dakigu aurten zerbait lortuko dugun, heldu den urtean izanen den, bi urte barru... Udalak ahalegin osoa eginen du eta hala egiten ari da, baina erabakia ez dago gure esku». Hiru hauek dira, une honetan, bete-betean lantzen ari direnak: «herriko ur-horniduraren sistema hobetzeko proiektua, liburutegia herriko erdigunera eramateko proiektua eta Arkiskil futbol zelaian belar artifiziala jartzeko proiektua».



Atekan atsaretzeko gaia. UTZITAKOA

Inauteriak antolatzeko lanetan hasiak dira herritarrak

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 27tik 30era izanen dira Leitzako inauteriak. Herritarrak antolaketa lanetan hasiak dira dagoeneko eta asko atsareak prestatzen ariko dira. Atekabeltzen, urtero bezalaxe, larunbatean pesta berezia antolatuko dute. Aurtengo gaia jakinarazi dute berriki sare-sozialetan: Apolo 13 espedizioa irudikatuz, *Atekapulo 13. Ilargia ere askatuko dugu* da aukeratu dutena.

Azken urteetan bezalaxe, igandean atsaretuen bazkaria ere izanen da eskolan eta datozen egunetan jakinaraziko dute txartelak noiz eta non jarriko dituzten salgai.

Datorren aldizkarian izanen duzue inauterietako egitarau osoaren berri.

48 neska-mutikok parte hartu zuten Eskubaloi Txapelketa Triangularrean

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 27an hitzordu berezia antolatu zuen Aurrea Kirol Elkarteak. Lekunberriko Eskubaloi taldeko eta Doneztebeko Errekako jokalariek gonbidatu eta eskubaloi txapelketa triangularra egin zuten. Hamar eta hamaika

urte arteko 48 neska-mutikok parte hartu zuten txapelketan: Lekunberriko 12 jokalarik, Doneztebeko Erreka Elkarte-ko 17 jokalarik eta Leitzako 19 jokalarik. Oso giro ona sortu zen bai kantxan baita harmailetan ere, jende asko hurbildu baitzen partiduetan ikustera.



Hamar eta hamaika urte arteko neska-mutikoak aritu ziren. G. HERNANDORENA

Kultur eskaintza zabala prestatu dute ilbeltzerako

Gurasoei zuzendutako hitzaldia, familia guztiarentzako antzerkia eta zinemaz gozatzeko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

Orantzarro, Maimur eta gaueko pertsonaien etorrerak iragarri zuen neguaren hasiera. Ohitura zaharrak berrituz, momentu magikoa bizi izan zen plazan. Handik egun gutxira zintzarri, joale, kulunka eta karrakak astinduz, udaberriari dei eginez aritu ziren herri-tarrak. Neguko hilabeteak ditugu, ordea, aurretik eta horiek goxatzeko kultur agenda ekitaldiz betea dator.

Ilbeltzaren 12an, 17:30etik aurrera *Noiz erosiko diogu sakelekoa?* hitzaldia antolatu dute Erleta Eskolak, Denok Bat Guraso Elkarteak eta Leitza Udalak. Eskola eta Institutuko gurasoei zuzendutako saioan, Miren Ros izanen da hizlaria.

Ilbeltzaren 14an, berriz, Marelaine konpainiak *Euria* antzezlan eskainiko du. 18:00etan



Abenduaren 24ko ikuskizuna. P. FEO

hasiko da eta sarrerak online erosteko aukera izanen da bost eurotan edo saioa hasi baino ordu erdi lehenago leihatilan sei euroren truke.

Zinezaleek ere bi proposamen izanen dituzte aukeran, ilbeltzaren 20an eta 21ean. 17:00etan *Bidasoa* dokumentala botako dute eta 19:30ean *Napoleon* filma. Azkeneko hori larunbatean, jatorrizko bertsioan emanen dute azpitu-luekin.



GARBIÑE HERNANDORENA

Ehun lagundik gora elkarretaratzean

Konponbiderako giltzak kanpainaren barruan, Sare Herri-tarrak elkarretaratzea antolatu zuen abenduaren 31n. Erantzun zabala izan zuen deialdiak, ehun lagundik gora bildu ziren. Urtarrilaren 13an Bilbon egitekoa den manifestazio nazionalera joateko deia ere egin zuten.



AMAIA IPARRAGIRRE

Giro ezin hobea San Silvestre lasterketan

Adina kontuan hartu gabe, norberak aukera zezakeen lasterka egin beharreko distantzia eta horrek eraginda, akaso, inoizko parte hartzaile kopururik handiena bildu zen: 240 lagun inguru. Giro ezin hobea sortu zen korrikalarien eta ikusleen artean. Mozorro hoberena zuten lasterkariek saria eskuratu zuten.

Buruz Burukoan txapeldunorde izan da Zabaleta

Aurkari gogorra zuen finalean eta ez zuen txapela irabazterik izan Zabaletak. Ez zuen amore eman, ordea, eta ale oso ederrak utzi zituen, hamalau urterekin etorkizun handiko pilotaria dela erakutsiz.



UTZITAKOA



MENDIBIL TALDEA

27 lagun Mendibil Taldearen irteeran

Mendibil Mendi Taldea indartzeko apustua egin berri du Aurrera Elkarteak eta ibilbide berriari hasiera emateko irteera egin zuten abenduaren 23an. Euriak ez zituen kikildu eta 27 lagunek osatu zuten Leitza inguruan egindako 17,5 kilometroko ibilbidea.



Abenduaren 20an egin zuen bilera baserritarren batzordeak. JUANJO ELIZALDE

Baserritarren Elkartea sortzea erabaki dute

Baserri eta mendi inguruan dauden arazoei irtenbidea emateko tresna izan nahi dute

TTIPI-TTAPA

Baserritarren batzordeko ki-deek elkarte izaera hartu eta Goizuetako Baserritarren Elkartea sortzea erabaki zuten abenduaren 20an egindako bileran. Baserri eta mendi inguruan dauden arazoei irtenbideak emateko sortu dute elkarte eta «arazoak zuzentzeko tresna izan eta goizuetar guztiontzako onurak eta bizi-poza lortu nahi» dituztela diote taldekideek. Bilerak, ekintzak... antolatzeko asmoa dute eta herritarrak, baserritarrak eta udala elkarlanean aritzea nahi dute: «elkarren-

ganako errespetua ardatza izanik». Bileretatik haratago, baserritarrak elkartzeko aitzakia ere izan nahi dute: «bakardadeari aurre egiteko elkar-gune bat izan nahi dugu. Baserri askotan jende gutxi bizi da, asko adinekoak dira eta elkarrengandik urruti bizi dira. Senti dezaketen bakardadearekin bukatu, elkarren arteko loturak sortu eta elkartasuna eta bizi-poza gailentzea» da nahi duguna. Norbaitek auzoko ordezkari bezala lan egin edo bere ekarpenak egin nahi baditu, elkartean «ongi-gietorria» izanen da.

Kantuak eztarrian eta panpinak bizkarrean

Ohitura zaharrak berrituz, kantuak eztarrian eta panpinak bizkarrean hartuta ospatu zuten abenduaren 24a herrian. Festa giro goxoa zegoen Olentzero eta Mari Domingi etorri zirenean.



FELIX LOIARTE



Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak. UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Bakerok eta Esteban Arozenak irabazi dute mus txapelketa

TTIPI-TTAPA

Urtezahar arratsaldean mus txapelketa antolatu zuen Umore Ona Elkarteak. Urteroko ohitura bihurtu da askorentzat eta horren erakusle da aurten txapelketa izan duen arrakasta. Azkeneko lau urteetako parte-hartzaile kopuruak gaitzuta, 21 bikote

aritu ziren musean. Lehia bizia izan zen, lau ordu baino gehiago iraun zuen txapelketa, 16:00ak aldera hasi eta 20:00ak jota jakin ziren txapeldunen izenak. Patxi Bakerok eta Esteban Arozena herri-tarrek lortu zuten garaipena Hernaniko Xixo eta Aranon bizi den Jon Mari kontra.

Besabira irteera antolatu du Arainburu Mendi Taldeak urtarrilaren 27an

TTIPI-TTAPA

Urte berrian ere mendiaz gozatzen segitzeko gogotsu daude Arainburu Mendi Taldekoak. Hala, urtarrilaren 27an Besabira igotzeko proposamena egin dute. 16 kilometroko itzulua osatuko dute, lau ordu eta erdi ingurukoa. Autobusa

08:00etan aterako da herriko plazatik eta 14:00etan etorriko dira bueltan. 28 pertsonetara mugatu dute parte-hartzaile kopurua eta interesa dutenek urtarrilaren 25a baino lehenago eman beharko dute izena Elena estanko eta arropa dendan.

Oier Apezetxea txapeldunorde izan da

Irazurekin bikote osatuta, Bigarren Mailako Binakako Erremonte Txapelketako finala jokatu zuen Oier Apezetxeak. Goikotxea V.a eta Aiestaran VI.a izan zituzten aurkari. Lehia estua izan zen eta garaipenetik tanto bakarrera gelditu zen herritarra.

Mendi irteerak antolatzeko taldea sortu dute

Whatsapp bidez zabaldu dute taldean sartzeko lotura eta interesa duen edonor izan daitezke taldekide

ENERITZ IRAOLA

Abenduaren 31n Ulizarko kas-kora igotzeko hitzordua egin zuen taldetxo batek eta herritarren artean zabaldu zuten hitzordua. Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren eta han sortu zitzaizen ideia: «herrian mendirako zaletasuna badela badakigu eta herritarrek elkarrekin mendi bueltak egiteko whatsapp talde bat sortzea ideia ona zela pentsatu genuen». Taldea osatu eta herritarren artean zabaldu zuten gonbidapena, egun gutxian 40 lagunetik gora ditu taldeak. Aurrerantzean bertan partekatuko dituzte hitzorduak.

Mendian federatzeko aukera

Nafarroako Mendi Federazioak 2024rako federatzeko epea ireki du. Urtero bezalaxe, Kirol Mankomunitatearen bidez



Herritarrak Ulizarko kaskoan.

egin daitezke tramitea eta hala egiten dutenek, %10eko deskontua eskuratzeko aukera izanen dute. Gainera, aurten D modalitateko lizentziek ere deskontua izanen dute. Dena den, deskontua lortzeko ezinbestekoa izango da KirolMank Mankomunitatea osatzen duten herrietako batean errol-datuta egotea. Horregatik, izena emateko orriarekin batera errola agiria aurkeztu beharko da.



E. IRAOLA

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, bisitan etorri ziren abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingi. Lastargien eta kriseiluaren argipean egin zuten herrirako bidea eta haien esperoan urduri zeuden haur eta gaztetxoak. Plazan kantuz egin zieten ongietorria eta bukaeran opariak banatu zituzten.



Zuri kantari diskoa kaleratu dute. AMAIA IPARRAGIRRE

«Gure bizitzaren zati bat bildu dugu disko honetan»

GURRUTXAGA-OLAZABAL FAMILIA MUSIKARIAK

E.IRAOLA

Nolako zura, halako ezpala esaera ongi baino hobeki betetzen da Errandonen. Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxaga senar-emazteek musikarako duten afizioa Aratz, Intzara, Arhane eta Nahikari seme-alabek ere bereganatu dute. Seiak elkarrekin aritzen dira musikaren bueltan gozatu eta gozarazten. Herrian egiten diren ekitaldi gehienetan ibiltzen dira musika tresnak astintzen edo kantuan. Pauso bat haratago eman eta diskoa kalera-tu dute abenduan.

Musika ezinbestekoa

Musikarik ez da behin ere falta izan beraien etxean: «haurrak kantari ez bada dantzan eta bestela instrumenturen bat jotzen aritzea ez da harritzekoa gure etxean. Txikitatik musikaz inguratuta bizi izan dira». Beraien ustez, haurren heziketan, «ezinbesteko pieza» izan behar luke musikak.

Euskal musikaren aldeko apustua egin dute beraiek eta oso presente izan dute etxean azken hamabost urteetan. Hori guztia «gorde eta haurrek ume garaiko oroitzapena izan de-

zaten» diskoa osatzea erabaki zuten. Hamaika abesti bildu dituzte: «gehienak herrikoiak edo beste artistenak dira, baina tartean bi gureak: bat haurrek eta Jonek niri, haurren amari, egindakoa eta bestea, nik anaia enari sortua». Beraientzat esanguratsuak diren mezu eta doinuak sartu dituzte diskoan: «maitasunari, falta direnei, aiton amonei, gazte eta hurrei, gurasoei, Nafarroari eta Euskal Herriari» abesten diete eta «bakeari buruzko kantu bat, urte haue-tan askotan abestu ditugun haur kantetako bat eta gabon kanta bat ere sartu ditugu».

Etxeko goxotasunean egin zuten grabaketa, «teknikoa gure etxera etorri zen eta zuzeneko bat balitz bezala grabatu genuen». Horrela eginda, «giro goxoan lan egin genuen eta akatsak egon arren, bere xarma duela uste dugu».

Diskoa salgai

Interesa duenak hamar euroren truke eskura dezake diskoa Aresoko Sastinea tabernan, Leitzako Maimur liburu dandan edo beraiekin harremanetan jarrita.

«Zer egiteko prest gaude aldaketa klimatikoa gelditzeko?»

GORKA LAURNAGA PEÑA BAZTANGO TALDE EKOSOZIALA

Baztango Talde Ekosozialeko kide da Gorka Laurnaga elizondoarra, eta larrialdi klimatikoaz eta energia berriztagarrien beharraz mintzatu da TTUPI-TTAPArekin

R. OSKARIZ ELIZONDO

Energiaren deskarbonizazioa eta alternatiba berriztagarriak solasgai, Markel Peñalba ingeniari eta irakaslearen solasaldia antolatu zuen Baztango Talde Ekosozialak abenduan. Herritarren interesa piztu zuen ekitaldiak, baita makroberriztagarrien kontrako plataforma ere. Horren harira, mintzaldian solastatutakoaz eta munduaren egungo egoeraz aritu da Gorka Laurnaga. **Zein helburu ditu Talde Ekosozialak?**

Talde Ekosozialaren helburua da, Baztanen batez ere, baina baita eskualde osoan ere, trantsizio ekosoziala bulkatzea eta horretarako baldintzak sortzea. Ideia berriak ekartzen eta eztabaidak sortzen saiatzen gara, eta horretarako solasaldi andana antolatu ditugu, nahiko maila haundikoak: Jorge Riechmann, Luis Gonzalez Reyes, Lorea Flores... eta orain berriki Markel Peñalba, berriztagarrien eztabaida plazartzera. Ekitaldi horiek formakuntzara begira dira, baina ekintza praktikoagoak ere egin izan ditugu; bizikleta martxak, pintaketak, tailerrak...

Aldaketa klimatikoa duzue ardatzetako bat. Jendea kontzientze da egiazko egoeraz?

Zorionez, aldaketa klimatikoaz denak gara kontziente, eta hori azken 50 urteetako borroka ekologistaren garaipena da. Gainera, jendeak ondorioak ikusi ditu; aurtengo udazkena,

adibidez, mantsago etorri da, eta joan den urteko udan inoiz ikusi ez genituen idorteak izan genituen, eta aldi berean egundoko uholdeak Iparralden eta Erriberan. Jendeak badauki zerbait gertatzen ari dela. Urtean 25 milioi errefuxiatu klimatiko egotea espero da. Baina ez gara kontziente horretan guk zenbateko eragina dugun. Hego Euskal Herrian, adibidez, pertsonako karbono aztarna 8,7 CO₂ tonakoa da urteko, eta mugak 1-2 izan beharko luke.

Hainbertzetan aipatzen da giberlerat bueltatu ezinezko mugak gaitzen ari dela mundua. Zein dira muga horiek?

Datuen arabera, 1980 inguruan gaitzen gaituen planetaren muga energetiko-materiala, eta orduetik etorkizuna hipotekatzen ari gara. Baina hala behar zuen kapitalismoan, ezin baita 'zirkularra' izan. Kontsumoaren hazkunde infinitua du helburu, tumore batek bezala. Teorikoki solastuta, *Planetary boundaries* izeneko eskema egin du Estokolmoko Unibertsitateak, bederatzi irizpiderekin. Azken ikerketen arabera, horietatik sei gaitzen gaituen. Hor larritasun mailak daude, baina adibidez, bioaniztasunaren galeran muga guziak gaitzen ditugu, eta aldaketa klimati-



Jendetza bildu zuen Markel Peñalbaren solasaldiak Arizkunenean. UTZITAKOIA

«EZ GARA KONTZIENTE KLIMAN ZENBATEKO ERAGINA DUGUN»

«ORAIN ARTE ENERGIA KANPOTIK EKARRI DUGU, IKUSEZINA IZAN DA»

koan ere segurtasun mugatik kanpo gaude. Baina badaude ezagutzen ez ditugun gauzak ere, adibidez, nitrogeno eta fosfato zikloak erabat deskoordinatu eta gaitzen ditugu, masiboki erabiltzeagatik. Naturara bota ditugun mikroplastikoak eta elementu artifizialak kezagarriak dira; gaur egun, ez dago mundu osoan leku bakar bat ere molekula artifizial bat aurkitu ezin daitekeenik. Amazoniako azken arbolaren puntan ere topatzen ahal dira.

Konponbidearen parte kontsumoa murriztea eta energia berriztagarriak erabiltzea dela erraten da. Zaila da?

Krisi ekosozialari kontra egiteko ez dugu irtenbide bakarra; ditugun tresna guziak erabili beharko ditugu. Gure erronkarik haundiena gure kontsumoaren ttipitzea da, baina ez da bakarra: efizientzia bilatzea, langileak bertokiratzea, ekonomia gure lurraldera ekartzea... eta trantsizio energetikoaren oinarri nagusietako bat energia berriztagarriena da. **Gaur egun berriztagarriekin elektrizitatea bakarrik lor dezakegu, erabiltzen dugun energiaren laurdena. Zenbateraino merezi dute energia berriztagarriak?**

Energia kontsumoa pixkanaka gero eta gehiago elektrifikatzea da ideia. Kontsumo energetiko totala jaitsi behar dugu, baina proportzio elektrikoak igo, adibidez, anbulantzia elektrikoak paratuz. Eta gaur egun elektrizitatea erabiltzen dugun energiaren laurdena baldin bada ere, Hego Euskal Herrian ez gara ailegatzeko berriztagarriekin kontsumo elektriko hori betetzera; % 14 da berriztagarria. Nafarroan energia elektrikoaren erdia da berriztagarria. Aunitzetan errepikatzen da Nafarroan energia kanpora esportatzen duela eta soberan dugu, baina ziklo konbinatuarekin ekoizten duelako da, hau da, gasarekin. Elikagaiak ere esportatzen ditugu eta horrek ez du erran nahi auto-

sufizienteak garenik; kapitalismoaren eskema da. Erranen nuke Europan ez dagoela toki bakar bat ere energia berriztagarriekin burujabea denik. Nafarroan ekoiztutako energia berriztagarri guzia hemen geldituko balitz ere, ez genuke kontsumo osoa inondik ere asetuko. Autokontsumoa ez da aski ditugun behar energetikoak lortzeko; ospitaleak, eskolak... horregatik, geure buruari galdetu behar diogu zertarako gauden prest.

Gure herrietan aldaketak egitea planteatzen hasi beharko genuke?

Gauza aunitz planteatu behar ditugu, eta horietan lehentasuna du gure kontsumo orokoraren ttipitzeak; herriak oinezkoendako moldatzea, makrogranjak eta AHT bezalako proiektuak geldiaraztea... etxebizitzaren sektorean, adibidez, Baztanen 800 etxebizitza huts inguru izanik, zertarako egin behar ditugu etxe gehiago? Aspaldian hasi beharra genuen gauza hauek planteatzen, batez ere aldaketa klimatikoaren larritasunagatik; sei urte ditugu gure isuriak % 45 jaisteko, 1990ekoekin konparatuta. Sei urte 1,5 graduak ez gainditzeko. Hortaz, ikaragarri agudo egin behar dugu hau, urtero % 7 jaisteko gure emisioak. Erreferentzia bat izateko, pandemia garaian, erabateko geldialdi ekonomikoan, % 5 bertzerik ez zen jaitsi. Horrek erakusten digu gure erronkaren dimentsioa ikaragarria dela eta iraultza kultural bat behar dugula.

Eta jendea prest ikusten duzu horrelako aldaketa baterako?

Gauzak azaltzen direnean, jendea prest dago. Kontua da energia kanpotik ekarri izan dugula beti, eta ikusezina izan da guretako. Oliobideetan etorri da, hain urrun ikusten ditugun hegoaldeko herrialdeak xehatuz. Amazonian, Kongoko ibai erroan eta Asiako hego-mendebaldean energia fosilen erauzketarako ikaragarriko proiektuak planteatu dituzte. Horiek izugarriko



Laurnagak planteatu duenez, «berriztagarriak aukera bat bezala ikusi behar ditugu». R. OSKARIZ

inpaktua dute. Gainera, lurralde horiek munduko bioaniztasun osoaren bi heren dituzten eremuak dira. Ezin dugu atzendu gure dependentzia fosila dela jendartearendako arriskurik haundiena orain eta hemen, eta gu garela kolonialista energetikoak. Energia beti kanpotik hartu dugu, eta orain gure gain hartzea tokatzen zaigu. Horretarako gure energia beharrak zein diren ikusi beharko dugu, eta horren ara-

**«AUTOKONTSUMOA
EZ DA ASKI GURE
BEHARRAK
ASETZKO»**

bera gure inguruan baliabide batzuk paratu beharko ditugu.
Zein onura ekarriko lituzkete berriztagarriak?

Energia berriztagarriak bete-behar bat dira, baina aukera bezala ere ikusi behar ditugu. Aldaketa klimatikoa gelditzen hasteko aukera da, baina baita energia demokratizatzeke aukera ere. Gaur egun Ekialde Hurbileko herrialde batzuek ekoizten dute energia, eta horietako batzuek gobernu ez

**«ENERGIA
HERRITARREN
ESKU UTZI
BEHAR DUGU»**

demokratikoak dituzte, autoritarioak. Gure dependentzia energetikoak eramaten gaitu haiekin negoziatzera, Qatarrekin, adibidez. Gazan ere, iparraldeko herriek fosilen inguruko negoziazioak egiten dituzte Israelekin, gertatzen ari dena probestuz. Dependentzia energetikoa dugun momentuan, geopolitikak halako gauzak onartzera eramaten gaitu. Energia gurera ekartzen badugu demokratizatzen ahalko dugu, publikoa eta komunitarioa izan dadin, herritarren esku. Honek elementu pedagogikoa ere izanenuke luke, horrela ikasiko genukelako zein diren gure behar energetikoak. Energia berriztagarriekin lanean hasi →

→ arte, ez gara kontzientzia izanen daukagun behar fosil ikaragarriaz.

Honi lotuta, hainbat plataforma ditugu eskualdean.

Plataforma horietan hiru erantzun egoten dira: *hemen ez; pribatuak ez; edo ez hemen ez inon*. Azkeneko horiei galde-tuko nieke: orduan zer proposatzen duzue? Nola aseko ditugu gure behar minimoak?... Autokontsumoaren alternatiba izaten da haien erantzuna. Autokontsumoa beharrezkoa da, baina ez da aski. Eguzki panelak ongi daude, baina zer eginen dugu hemen, Kantauri aldean, neguan? Dena bateriekin ordezkatzeko astakeria materiala izanen litzateke. Bertze energia formekin osatu behar da; hidraulikoa, eolikoa... Burokrazia aldetik ere, etxe bateko teilatuen panelak paratzea zaila da, eta masiboki egitea oraindik gehiago. Bertze eskala bateko proiektuak errazagoak dira paratze-ko.

Proiektu horiek kezka sortzen dituzte herritarren artean...

Bai, eolikoek faunan eta batez ere hegaztien duten inpaktua kezka handia da, nahiz eta teknologia hobetzen ari den horiei irtenbidea emateko, adibidez, txorien pasak detektatzean geldiarazten dituztenak. Baina kalte hori txorien arrisku guzietatik tikienetakoa izanen litzateke. Inguru urbanoetan hegaztien arriskurik haundienak katuak dira, edo tentsio altuko lineak, adibidez. Eta azken horiek denok normalizatu ditugu. Baina jendeari gehien eragiten diona paisaia da, eta horrek zentzua dauka, gure identitatearen parte delakoz. Hori kontuan hartu behar da, baina aldi berean, paisaia puntu subjektibo bat dauka, kulturala da. Alemanian, adibidez, ongi ikusten dituzte eolikoak, energia garbia irudikatzen dutelakoz. Onartu beharra duguna da mundua aldatzen ari den honetan, hemen denak berdin segitzea asunto txarra

delatzen, zerbait gaizki egiten ari garenaren seinale. Gaztela Mantxan haize errota onartu diren bezala, ondare kultural bihurtzeko punturaino, bertze eolikoekin zergatik ez? Eta estetikoki itsusia iruditzen bazaigu ere, aldaketa klimatikoari buelta emateko sei urte ditugularik, gure argudio nagusia hori izanen den planteatu beharko dugu.

Hala ere, adierazi duzue ezin dela edozein proiektu eta edozein baldintzatan onartu. Zein dira baldintza hauek?

Energia berriztagarriak enpresa haundiek sustatu dituzte, etekin ekonomikoaren helburuarekin, eta horrek mesfidantza handia sortu du populazioan. Normala da; aldaketa klimatikoa sortu duten enpresa berak orain berriztagarriak paratzen ikusteak ez du inolako konfiantzarik sortzen. Gauzak hobekiago egiten ahal dira, adibidez, bioaniztasunaren inpaktua ahalik eta tikiena eginez. Horretarako ongi planifikatu behar dira proiektuak, ziklo osoa irizpide sozial eta ekologikoekin eginez: materialen erazketatik hasi (papelendako silizioa Txinan egiten da, adibidez) eta eolikoak % 100 birziklagarriak izateraino. Gainera, energia honek petrolio, gasa eta ikatza ordezkatu behar ditu, bertzenaz, bertzerik gabe energia gehiago ariko ginateke sortzen, deus hobetu gabe. Esaldi batean: berriztagarri gehiago eta hegazkin gutiago. Azkenik, energia herritarren esku utzi behar da, izan ere, etekin ekonomikoa baldin bada helburu bakarra, edozein tokitan eta modutan paratuko dituzte, inoren beharrak errespetatu gabe. Lurraldearekin oreka bilatu behar da, eta sozialki positiboaztea. Gure inguruan kooperatiba energetikoak ditugu; Beran, Leitzaun, Berroetan... proiektu tiki horiek erabat ereduagarriak dira, eta hortik haratago bertze eskala bateko energia berriztagarriak ere beharko ditugu.

Emaztekien kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa

Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak ordezkariak sinatu dute protokoloa, «indarkeriari erantzun egokia emateko»

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak ordezkariak Emaztekien Kontrako Indarkeriaren aitzinean jarduteko I. Koordinazio Protokoloa sinatu zuten abenduan. Sinadura ekitaldian izan ziren Patricia Abad Nafarroako Berdintasun Institutuko zuzendari kudeatzailea, Fernando Anbustegi Baztango alkatea, Montserrat de la Fuente Osasun Zerbitzuko Arreta Sozio-sanitarioko burua eta Izaskun Pombo Iruñeko Sexu eta Ugalaketa Osasunaren Arretako burua.

Adierazi dutenez, «emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da, eta milioika emakume eta nesken bizitza baldintzatzen du». Errealitate hori «ez dago Baztandik kanpo; toki guzietan bezala, kasuak erregistratzen dira. Kontzientzia gara udalaren esku-hartzeak dituen mugez, horregatik bertze urrats bat eman nahi dugu prebentzioa eta arreta hobetzeko».

Protokoloa «urte eta erdiko lan prozesuaren emaitza da.



Alkatea eta gobernuak ordezkariak.

Idazketan udaleko, eskualdeko eta Nafarroako balibide eta zerbitzuetako langileek, Baztanen indarkeria matxistatik bizirik ateratzen diren emaztekiek eta Baztango politikariek parte hartu dute, udaleko Berdintasun Zerbitzuak koordinatua. Gainera, udalbatzak aho batez onartu zuen konpromisoa uztaileko osoko bilkuran».

Protokoloaren funtsezko elementuetako bat «emakumeen arretan inplikaturako balibideen koordinazioa» da. Horrez gain, «aldizkako bilerak» proposatu dituzte koordinazio tresna gisa, «kasuen jarraipena eta haien bilakarearen eta gorabeheren erregistroa egiteko».

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com

Santiago, 15 ELIZONDO
+34 948 580 804



Anbustegi alkatea, Alfaro kontseilaria eta Nasuvinsako Buron zuzendari gerentea etxebizitza berrian.



BORTZ ETXEBIZITZA BABESTU BERRI

Ornoz-Mugairiko Kamineroen Etxea zaharberrituta,
325.048 euroko inbertsioarekin.

«Administrazio publikoaren betebeharra da Nafarroako jendarteari etxebizitza duina eskuratzen laguntzea»

azpimarratu du **Begoña Alfaro** Etxebizitza kontseilariak

Etxebizitza galtzeagatik gizarte bazterketa sufritzeko arriskuan daudenei zuzenduak

Baztango Udalak kudeatua:
948 58 00 06 edo
baztan@baztan.eus



Etxearen **isolamendu termiko hobetua**, aerotermia sistema indibidualak eta arotzeria PVCarekin ordezkaturak.

Bi etxebizitza **89,71 metro karraturekin**: sarrera, egongela, sukaldea, hiru logela, bi komun eta balkoia. Etxebizitza bat **66,40 metro karraturekin**: hiru logela eta bi komun. Bi etxebizitza **55,70 eta 55,20 metro karraturekin**: bi logela eta komun bana.



Ilbeltzaren 17an San Anton eguna ospatuko dute Elizondon. ONDIKOL

Agenda kulturala ekitaldiz betea urtea ongi hasteko

Baztango Kultura Zerbitzuak hilabeteko jarduerak bildu ditu bertze behin, herritar guziendako eskaintzarekin

TTIPI-TTAPA

Bailableak Elizondon. Urtarrilaren 14an muxikoak, jotak eta larrain dantzak dantzatzeko aukera izanen da Elizondoko plazan 12:30ean, Elizondoko Gaiteroen eskutik.

San Anton. Hilaren 17an San Anton eguna ospatuko dute Elizondoko plazan goizez. Txistulariez gain, 11:00etan zopakizanen dira eta 13:00etan zozketa egingen dute.

Zinema eta solasaldia. Urtarrilaren 21ean *Bidasoa 2018-2023* dokumentala proiektatuko dute Irurritako Gizarte Bilgunean, 18:00etan. Muga

zeharkatzen saiatzen bizitza galdu duten etorkinak dira filmaren ardatz, Harrera Sa-rearen eta Bidasoa Etorkinekin elkartearen lana erakutsiz. Proiekzioaren ondotik, gaiari buruzko solasaldia izanen dute.

Baztan Kantuz Berroetan. Kantatzea gustoko dutenek Berroetan izanen dute

HILAREN 21EAN 'BIDASOA 2018-2023' FILMA IRURITAN

hitzordua hilabete honetan, ilbeltzaren 21ean, 12:00etan, plazan.

Mozorro tailerra. Amaia Zinkunegiren eskutik, mozo-rra tailerra egingen dute urtarrilaren 20an, 27an eta otsailaren 3an Arizkunenean, 10:30etik 13:00etara. 5-11 urteko haurrei eta familiei zuzendua egonen da, gutienez 8 eta gehienez 16 laguneko taldean. Ilbeltzaren 15era arte ematen ahalko da izena 948 581 279 telefonoan edo kultura@baztan.eus helbidean. Matrikula izena ematen duten partaide kopuruaren arabera izanen da eta Baztanen erroldatutakoek gutiago ordaindu beharko dute.

Aitatasun erantzunkidea. Baztango Berdintasun Batzordeak *Premiazko iraultza: Aitatasun erantzunkidea* tailerra antolatu du urtarrilaren 19an eta 20an Arizkunenean. Aitatasunean hazteko erantzukizuna nola gauzatzen den eta familien bizitzan duen eraginaz hausnartuko dute. Ortziralean 17:00etatik 20:00etara izanen da saioa eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara.

Jarduera ugari liburutegian. Hilabetero bezala, Baztango Liburutegi Publikoak haur, gazte eta helduendako eskaintza kulturala izanen du: ipuinaren ordua, komiki eta poesia irakurleen taldeak, asteazken sortzaileak, mahai-jokoak ortziraletan... informazio guzia Telegrameko kanalean (@baztangolibupubli).

Muniarte zubi oinezkoendako asteburuetan

50 elizondoar inguru bildu ziren urteko azkeneko herri batzarrean Arizkunenean. Hainbat gai landu zituzten, tartean, Txokotoko Muniarte zubi asteburu eta besta egunetan ibilgailuendako hesteko proposamena. Bozketan gehiengo proposamenaren alde agertu zen, hortaz, asteburu eta besta egunetan oinezkoendako bakarrik egonen da irekia zubi. Gainera, zubi biko lurrean dauden harrizko piboteak eta argiak kentzeko proposamenak ere gehien-goaren babesa izan zuen.

Zahar etxea berritzeko lanak esleituak

Baztango Udalak Francisco Joaquin Iriarte egoitza eraberritzeko, hobetzeko eta egokitzeko obren lehenbiziko faseko lanak esleitu zituen abenduan. Zehazki, Construcciones José Miguel Ibañez SLU enpresari esleitu dizkio, 5.134.610,89 eurotan (BEZa kanpo).

Lanak, beranduenez, 2024ko apirilaren 30ean hasi beharko ditu esleipendunak eta 18 hilabetez egin beharko dituzte, hau da, 2025eko urriaren 31rako akituak beharko dute.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
HERRITARRIEN LANTZAGIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

MÁRMOLES AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNETAKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Iruñea Iruñe errepidea, z/g.
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

Dena prest aurtengo Euskal Nobela Beltzaren Asterako

Ilbeltzaren 22tik 28ra hainbat ekitaldi izanen dira Arizkunen, Anizen, Berroetan, Iruritan, Elizondon eta Erratzun

TTIPI-TTAPA

(H)ilbeltzak egitarau oparoa prestatu du hilabeteko azken astera begira, astelehenetik igandera:

Ilbeltzak 22, astelehena

Idazleekin Solasean eginen dute Arizkunen, VI. (H)ilbeltza bekako irabazlea den Beñat Irastorza Ugalderekin. Fred Vargasen *Altxa hildakoak* eleberraren itzulpena egin du Irastorzak. 19:30ean Medikua- ren etxean izanen da solasaldia.

Ilbeltzak 24, asteazkena

Klasikoaren txanda izanen da Anizen; Miren Agur Meabek *Eusebio Erkiaga: Arranegitik bertze auzo batzuetara* solasaldia aurkeztuko du. 19:00etan Mendiarte elkartearen bilduko dira.

Ilbeltzak 25, ortzeguna

Solasaldia izanen dute Berroetan Jon Alonsorekin, *Carvalho Euskadin* liburua inguruan. Irati Jimenez izanen da elkarriketzailea. 19:00etan Gure Ametsa elkartearen bilduko dira.

Ilbeltzak 26, ortziralea

Mirande, film baterako zirriborroa dokumentala proiektatuko dute Iruritan Josu Martinez zuzendariarekin. 19:30ean Gizarte Bilgunean izanen da emanaldia.

Ilbeltzak 27, larunbata

Egun guziko jardunaldia izanen dute Elizondon eta Erratzun. 11:00etan *Sorgin-ehiza Euskal Herrian* mahai-ingurua eginen dute Arizkunenea kultur etxean. Ane Esalava izanen da moderatzailea eta Amaia Nausia Pimoulier, Asisko eta



(H)ilbeltza antolatu duen taldea aurtengo kartelarekin. (H)ILBELTZA

Juainas Paul Arzak hizlariak. 14:00etan bazkaria eginen dute Erratzuko Elkartearen, eta parte hartu nahi dutenek ilbeltzabaztanen@gmail.com helbidean eskatzen ahal dute txartela. 17:00etan hiru libururen aurkezpenak eginen dituzte: Ernesto Praten *Mendeku eskubidea*, Mikel Begoñaren *Hiru etxe Santa Monikan* eta Xabier Lasaren *Ura ez baita beti gardena*. Eguna akitzeko, 18:30ean Eblatz: Sus-

magarrien gaua eginen dute Erratzun barna.

Ilbeltzak 28, igandea

Goizean *Erraiak etsai* itzuli beltza eginen dute Beratzunen, 10:30ean Elizondoko plazatik abiatuta. 19:00etan, berriz, Izu-gar-irrizko bertso saioa izanen da Arizkunenean. Nerea Ibarzabal, Alaia Martin eta Saioa Alkaiza izanen dira kantari, Amaia Agirrerren gidaritzapean.

Oronoz-Mugairiko lanbide eskolako lanak baimenduak

Eraikinak 9.418 metro koadro izanen ditu, hiru solairutan, eta lanak egiteko 23.886.214 euroko aurrekontua ezarri dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Oronoz-Mugairiko lanbide heziketako ikastetxearen lanen kontratazioa baimendu du, 23.886.214,65 euroko prezioarekin eta 30 hilabeteko lan epearekin. Hezkuntza Departamentuak eta Peralta Ayesa arkitektura taldeak otsailean abiatu zuten proiektuaren idazketa, eta finantzazioa 2024-2026 urteetako aurrekontuetan sartuko dute.

Eraikinak 9.418 metro karratu izanen ditu: 4.473 m² beheko solairuan, 3.100 lehen-bizikoan eta 1.845 bigarrenen. 'L' itxurakoa izanen da, eta bi eraikin gehituko dizkiote, bat tailerentzako eta bertzea kirolearako. Eraikin nagusiko beheko solairuan, bulego ez gain, hainbat graduentzako instalazioak izanen dira; ad-



Proiektuaren irudia. NAF. GOBERNUA

ministrazio eta finantzakoak, mekanizazio eta soldadura-koak, agroekologia eta inguru natural eta aisialdikoak.

Lehen solairuan ekoizpen agroekologikoko tailerrak, pneumatika eta hidraulikako tailerrak eta elektrizitatekoak egonen dira, baita sistema mikroinformatikoen eta sareen programa ere. Bigarren solairuan ATECA ikasgelak (teknologia aplikatuen gelak) eta erizaintzako programa.



Abenduko saioan Anbustegi alkatearekin bildu ziren Arizkunenean. HARREMANA

Harremana jubilotekako kideak languntza eskean

TTIPI-TTAPA

Elkarteak adierazi duenez, «ez dugu aurrekonturik aitzinera segitzeko eta dirulaguntzarik lortu ezean, otsailean hetsi beharko dugu». Abenduan egindako saioan, kide guztiak Fernando Anbustegirekin elkartu ziren beren beharrak helarazteko. Eguberrietako kantak abestu eta adinduei zaintzeko beharraz aritu ziren alkatearekin, eta gutun positiboz betetako zaku bat eman zioten, haien eskariekin.

Hala ere, «dena ez dago udalaren esku. Herriaren parte hartzea ere arras inportantea

da ekimena bizirik mantentzeko. Familiari animatu behar diogu parte hartzera». Honez gain, nahi duena elkarteko bazkide egin daiteke, urtean 10 euro ordainduta.

Duela zortzi urte hasi zuen bere ibilbidea Harremanak, Baztango, Zugarramurdiko eta Urdazubiko jubilatuei denbora pasatzeko eta aktibo mantentzeko espazio bat eskaintzeko. Astero elkartzen dira Elizondon, Amaiurren, Iruritan eta Erratzun, eta 40 lagun inguruk parte hartzen dute jubilotekan, Esther Carrizok eta Amaia Iriondok gidatuta.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com |

OTEIZA
ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

@oteizaarquitectos

MUGARKI
12 asteko erronka!
URTARRILAREN 8TIK
MARTXOAREN 25ERA

**12 ASTEKO ENTRENAMENDUAK
MUGARKIKO LANTALDEAREN
ETA VITXORI JUANIKOTENA
NUTRIZIONISTAREN ESKUTIK**

PLANIFIKATUTAKO
ENTRENAMENDUAK EGIN

ZURE OHITURETARA ETA
ORDUTEGIETARA EGOKITUTAKO
ELIKADURA PLANA LANDU

HOBETU ZURE EGOERA FISIKOA

HOBETU ZURE ELIKADURA OHITURAK

HOBETU ZURE SENTITU

622 903 055 · kaixo@mugarki.com · Ordoki poligonoa, ARIZKUN · @mugarki_ · www.mugarki.com

Ederki hasi dute urtea Arraiozen, Anizen eta Berroetan

Kantatzen eta urtetsak biltzen ekin diote urteari herriko gaztetxoek

TTIPI-TTAPA

Ongi akitu eta hobe hasi dute urtea hiru herrietan.

Etkez etxe Anizen

Ilbeltzaren 1a etkez etxe urtetsak biltzen hasi zuten Anizko haur eta gaztetxoek: mandarinak, giltxaurrak, litxarreriak... mandarrak eta poltsak bete-beteak zituztela itzuli ziren etxera. Hilabete baten barne etkez etxeko itzulia hiru aldiz egingen dute: abenduaren 23an Olentzerorekin, ilbeltzaren 1ean urtetsekin eta 20an inauterietan. Ondoko hitzordua, beraz, ilbeltzaren 20an.

Afari ederra Berroetan

Elkarteko suaren beropean eta akordeoiaren doinuekin eman zioten agurra berroetarrak 2023ari; 40 lagun elkartu ziren mahai inguruan. Biha-

ramunean, ttikienak etkez etxe ibili ziren urtetsak biltzen: *urte berri berri, zer dakarzu berri... urtets, urtets!* Herriko etxe guztiak pasatu zituzten, kantatuz eta gozoak, frutak, giltxaurrak... bilduz. Horrela, urte berri ona opa zieten herritar guzietan. Dena prest 2024a bide onetik hasiteko!

Ekitaldi ugari Arraiozen

Ekitaldiz beteriko Eguberriak izan dituzte arraioztarrek; abenduaren 24an Olentzeroren bisita izan zuten; 25ean, aldiz, meza nagusian herriko haurrek antzerki eta kantaldia eskaini zuten; eta 28an haur koxkorrenak Arizkungo komentura joan ziren eta kantaldi polita eskaintzera. Urteari hasiera emateko, urtetsak eskatuz ibili ziren herriko etxeetatik barna.



Eguberriak Anizen, Berroetan eta Arraiozen. M. MARITORENA, M. IANTZI ETA N. MORTALENA

ferretería Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Alkerdiko firla-tokia. MARIFA ETA KORO

Bi herrien arteko zubi lana egiten du Alkerdi auzoak

Abenduaren 16an ospatu zuten Zugarramurdi eta Urdazubi arteko auzoko besta jendetsua

MARIFA ETA KORO

Alkerdi auzoak muga egiten du Urdazubi eta Zugarramurdiren artean, baina herritarren artean zubi lana ere egiten du. Alkerdin dagoen San Esteban kaperaren inguruan elkartu izan dira betitik bi herrietako jendeak. Hogoigarren mendearen erdiraino firla-toki bat (bola-tokia) zegoen han, kaper eta Xokoneko aitzineko aldean. Xokonean ostatua zen, eta igande arratsaldetan musika ere izaten omen zen.

Gaur egun ez dago firla-tokirik, ez ostaturik ere, eta kaperara jende gutti hurbiltzen



Umore ederrean bazkaldu zuten.

da, baina Alkerdiko bestak ospatzen direnean, bi herrietakoak elkartzeko aitzaki polita izaten da. Hala gertatu zen abenduaren 16an, bazkaltzeko 100 lagun elkartu baitziren.



MARIFA ETA KORO

Sanoki ostatuko mus txapelketa 'mistoa'

Sanoki ostatuak zugarramurdiar eta saratarrentzat antolatutako mus txapelketan, bikote mistoak ailegatu ziren finalera: txapeldunak Axun eta Aline izan ziren; eta azpitxapeldunak Kote eta Xamixel. Argazkian, finalistak ageri dira, Sanoki ostatuko arduradunarekin batera.

Teknologia berriendako 75.000 euroko laguntza

Teknologia berriendako 75.000 euroko dirulaguntza hartu du herriak. Turismoarekin lotutako bi eremuetan erabiliko da. Alde batetik, Pottoka bidean, tresna digitalak jartzeko; eta, bertetik, lezean, natura ondarearen balioa erakusgai emateko.

Errefeta biharamuna tokiko besta izanen da aurten

Hala beharrez, herri bakoitzak aukeratu behar duen tokiko besta dela eta, gurean 2024ko egun hori errefeta biharamuna izanen dela erabaki du udalak. Bertetik, urte berriko ospakizunetan, gaiztakeritan, Olentzero eta Mari Domingi hondatu eta zikindu zituzten.

Montxo
JATEKOA - ERRETEGIA
Tradizioa, historia eta gastronomia
asadormontxo.com

Akuler karrirka, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

KULTURKARI
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiokoak, gardenak, jartzeko errazak...



Gehienek mozorroturik egin zuten lasterketa. ARANTXA ETA IRAIA

San Silvestre lasterketa egin dute lehen aldiz

Iribere eta Koilarreko itzulia egiten bizkorrenak Mikel Cenoz, Imanol Iribarren eta Jaione Perurena izan ziren

ARANTXA ETA IRAIA

Izan da 2023a agurtzeko berrikuntzarik ere herrian, herriko lehen San Silvestre lasterketa egin baitzen. Lasterketa egiteko modu anitz baziren: oinez, lasterka eta bizikletaz. Gainera, lasterketa egin zuten gehienak mozorrotuta agertu ziren, afera pixka bat animatze aldera. Iribere eta Koilarreko itzulia egiten lehen hirurak Mikel Cenoz, Imanol Iribarren eta Jaione Perurena izan ziren eta herriko ttipienak karrozetan ailegatu ondotik, denek tortilla goxo batzuk jateko eta xanpainarekin urte



Giro ederra izan zuten.

berriagatik topa egiteko aukera izan zuten. Lehen lasterketa honetan 40 bat lagun hurbildu zirela ikusirik, hurrengoan jende gehiago animatzea bertzerik ez da falta.



Musikarekin eman zioten ongietorria Olentzero eta Mari Domingiri. ARANTXA ETA IRAIA

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera jendetsua izan da oraingoan ere

Urteroko gisan, abenduaren 24an bisita berezia izan genuen herrian: Olentzero eta Mari Domingi etorri ziren herrirat hurren eskariak entzutera eta haiekin momentu goxobaten pasatzerat. Herriko trikitilariak kalejira ttipi bat egin ondotik, Olentzero eta Mari Domingi bildu eta denak ba-

tera plazarat agertu ziren arratsaldeko zazpiak inguruan. Bi pertsonaiek hurren eskariak entzun eta menditik ekarritako zaku bana eman zieten. Behin lanak akiturik eta hurrekin egon ondotik, berriz ere mendirako bidea hartu zuten, gauean lan gogorra baitzuten egiteko!

Urte finitzea herriko plazan egin zuten ainitzek

Abenduaren 31 egun garrantzitsua izaten da, urte zaharra gibelean utzi eta berriari ongietorria ematen baitzaio. 12 kanpaikadek urte berriaren hasiera markatu aitzinetik, plazan jende multzo bat bilduzen urte berriari ongietorria denek batera emateko.

Dantxarinear ere Eguberrietako magia izan zuten

Dantxarinear ere nabaritzen da Eguberrietako magia. Azken urteetan egiten den bezala, magia ikuskizunak izan ziren abenduaren 22an eta 29an, Javi eta Ankaren eskutik. Horretaz gain, Arnoaren feria ere ospatu zuten urtearen azken hilabeteetan.

BARDIN 31780 Bera
BEHOIA 20305 Iruin
LUZAIDE 31660 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

Egunero irekia,
astelehenerik
Igandera arte
*Abenduaren 25^a eta
urtarrilaren 7^a izan ekin

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Drogeria · Garbiketa produktua
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Lehen mailan Bixente Elgart eta Amaud Haroçarenek irabazi zioten Denek Bat taldeko bikoteari. UTZITAKO ARGAZKIAK

Sarako Izarrako hiru bikote Iparraldeko txapeldun trinketean

Elgart-Haroçarene (lehen maila), Mariluz-Etxeberri (bigarren maila) eta Etxeberri Pacheco-Zozaia (artekoak) garaile lholdin

GANEX

Iparraldeko afizionatu mailako trinketeko esku huskako txapelketako finalak jokatu zituzten lholdin abenduaren 10ean. Sarako Izarra pilota elkarteko hiru taldek lortu zuten finaleko sarteza, lehen, bigarren eta arteko mailetan. Hiru taldeek lortu zuten garaipena. Inoiz lortu gabeko balentria egin zuten Sarako pilotariek urtea modu ezin hobean borobiltzeko.

Lehen mailan Sarako Izarrako Bixente Elgart eta Arnaud Haroçarene bikoteak 40-32 irabazi zien Denek Bat talde-



Etxeberri Pacheco eta Zozaia.



Bigarren mailan Julen Mariluz eta Unai Etxeberri nagusitu ziren.

ko Bixente Lafitte eta Thierry Harismendiri.

Bigarren mailan Julen Mariluz eta Unai Etxeberri sarratarrek 40-26 irabazi zuten Amikuze taldeko Lascor eta Mendibururen kontra.

Artekoak (22 urtez azpikoak) mailan, Sarako Izarrako Manex Etxeberri Pacheco eta Eñaut Zozaia bikoteak 40-21 irabazi zuten Irisartarrak taldeko Etxebers eta Bidarten kontra.

INOIZ LORTU GABEKO LORTU DUTE SARATARREK

Herriko Etxeko Edantegia eta herri lurrak

Herriko kontseiluaren joan den urteko azkeneko bilkuran zenbait erabaki hartu zituzten. Honela, Herriko Etxeko Edantegiaren mailegua eraberritu zaio bederatzu urterentzat orai ari den Marieri. Herriko lurrei dagokienez ere, bederatzu urterentzat maileguak eraberritu zaizkie laborariei. Bertze aldetik, herriko ikastetxei dagokienez, San Josepe eskolari eta Olhain Ikastolari, bieri urteko subentzionetik edo dirulaguntzetatik eman diete parte bat. Eguberrien ondotik, urte berri on denei!

Apez etxea berritu eta bi bizileku gehiago eginen dira

Apez etxea eraberriko dute. Jadanik badira bi bizileku eta bertze bi eginen dituzte. Bizitza sozialak izanen dira, eta bakoitzak 15 metro kuadroko aparte leku bat izanen du. Bertzalde, linja zikina garbitzeko bertze leku bat ere izanen dute, ez bakarrik bizilagunentzat, baina denendako. Herriar guztiek egiten ahalko dituzte beraien garbitasunak leku hauetan. Permisaren galdera eginga da, orai beharko da pazientzia hartu, baimen horiek eta dirulaguntzak izan arte.





Ekoizlea zara?

Hurbileko eta kalitatezko produktua bilatzen ari gara.

Salmentak bultzatzeko laguntza behar baduzu edo bezero gehiagorengana iritsi, hau da zure aukera. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu hurrengo zenbakira:

☎ 649 783 783

Antzerkia eta dokumentala ikusgai izanen dira egunotan

Urtarrilaren 10ean 'Andre et Dorine' antzezlan eta 11n 'Estitxu' dokumentala emanen dituzte Larrekon

JL BESSONART

Hernaniko Kulunka teatroak *Andre et Dorine* ikusgarria 450 aldiz emana du, 25 herrialde-tan. Izigarriko arrakasta izan du eta sekulako sariak lortu ditu mundu mailan. Hitz gabeko ikusgarri honek maskak eta jestuak nabaritzen ditu, sentikortasuna eta komedia nahasiz. Gai minberatsua den Alzheimer eritasuna aipagarri da, adin handiko bi presunen harremanetan. Garbiñe Insausti eta Jose Dault antzez-lari lanetan, Iñaki Rekarte taula zuzendaritzan. **Urtarrilaren 10ean**, asteazkenean 19:30ean, Larreko antzokian taularatuko dute.

'Estitxu' dokumentala

Duela 5 urte, Franck Dolosorek euskaraz sorturiko *Estitxu* dokumentala, plazer handiarekin ikusi genuen. Oraingoan frantsesez itzulirik aurkeztuko du, publiko zabalago bati erakusteko gisan. Estitxu kantariaren ahotsa xoragarria, duela 30 urte isildu zen. Beskoitzeko erresinulak utzi du bere izena Baiona eta Bilboko



Estitxu, Beskoitzeko erresinula.

karrika banari, baita Seaskak Baionan duen kolegioari ere. Estitxu kantari aitzindaria izan zen gitarrarekin bakarlarari moduan kantatzen baitzuen euskaraz eta gaztelaniaz. Publikoaren miresmena sortu zuen eta ukan dituen aipamenak ez dira bakarrik musika munduan gelditu. Larrekon emanen dute **urtarrilaren 11n**, ortzegunean 19:30ean, urririk. Estitxuren berpizte bat bezala har dezagun gure memorian.

Arrano Begia elkarteak erakusketa bikaina

Arrano Begiak erakusketa bikaina aurkeztu du Larrekon. Aurten landuak izan dira hurbildik harturiko argazkiak eta bertze bi teknika berezi: batean kolore zuria da nagusi eta bertzean, aldiz, kolore beltza. Argazki saltzeak eginak izan dira Telethonen alde.



Christiane Moussu zuzendaria.



Olentzero eskolako neska-mutikoeekin. JL BESSONART

Eguraldi txarrarekin ere Olentzerok egin du bere agerraldia

JL BESSONART

Iduriz denak ongi antolatua ziren Olentzeroren errezibitzeko, salbu eguraldi txarra. Euri erauntsiek eten gabe markatu dute abenduaren 22a, horrekin Mari Domingi ez da agertu eta goizean eskolen desfilea ezeztatua izan da. Halere, Olentzerok bere agerraldia egin du herriko hiru eskoletan, eta haurren atsegina betikoa izan da. Arratsean, aldiz, euri tanten artean karrirako ibilaldia egin du, haurren poza, musika alaia eta helduen parte hartzearekin. Jendetza gutxi eago izanik ere,



Olentzero arratseko irteeran.

honek ez du debekatu bestako giro bikaina. Ororen buru, aitortzekoa da aroaren hezetan ez duela lagundu egun berezi honi bere usaiako distirantz emaitera.



JL BESSONART

Telethon ekitaldiei so

Hainbat elkarte inplikatu dira, tartean argazkian ageri diren suhiltzaileak, Xan Ithourria plazan haurrekin kamioi itzuliak, ur-tutu jokoak egin baitituzte... SPUC Kirolaren ekimenez, oinez, lasterka, bizikletaz edo kayakez laku inguruan egindako itzuliekin 1.700 euro bildu dituzte Telethonen alde.



Beti Gazteko gizonzkoak eta emakumeak txapelkun Donezteben. UTZITAKOIA

Beti Gazte Euskal Herriko ordezkari joanen da mundialera

Euskal Herriko gizonzkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko txapelak lortu zituen Donezteben urtea borobiltzeko

TTIPI-TTAPA LESAKA

Beti Gazte sokatira taldeak ezin hobe bukatu zuen 2023. urtea. Euskal Herriko sokatira txapelketan, gizonzkoen 640 kiloko eta emakumeen 540 kiloko txapelak jantzi zituen abenduaren 23an Donezteben eta, gisa honetara, otsailean Suedian jokatu den munduko nazioarteko txapelketan Euskal Herria ordezkatzeko eskubidea ere irabazi zuen.

Emakumeen 540 kiloko kategorian, aitzineko bi jardunaldietan bezala, tiraldi guztiak irabazi zituen Beti Gazte eta txapela jantzi zuen. Ibarra (Gi-

puzkoa) eta Badaiotz (Araba) taldeek osatu zuten podiuma. Abadiño (Bizkaia) laugarren izan zen eta Amaieur bosgarren. Beti Gazteko zortzikotean Amaia Leiza, Karmele Pikabea, Udane Arbelaitz (Oartzun), Ane Gurrutxaga, Ainhoa Etxegarai (Bera), Maddalen Lopez, Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi

TXAPELKETA MISTOKO LEHEN SAIOA LESAKAN IGANDEAN

(Igantzi) aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile eta Irantzu Goienetxe laguntzaile zutela.

Gizonzkoen finalean ere nagusi izan zen Beti Gazte eta Zuraide A eta Ñapurak talde lapurtarrak izan zituen lagun podiumean. Abadiño laugarren izan zen, Amaieur bosgarren eta Ibarra seigarren. Beti Gazteko zortzikotean Karmelo Mitxelena, Mikel Apeztegia, Oskar Telletxea, Beñat Ordoiki, Unai Gurrutxaga, Iñigo Altzugarai, Eneko Saldias eta Julen Palenzuela aritu ziren tiran, Paskual Taberna entrenatzaile zutela.

Euskal Herriko sokatira txapelketak segida izanen du oraindik urtarrean. Gizonzkoen 600 kiloko txapelketa (**urtarrilaren 7an** Berangon, **urtarrilaren 13an** Oartzunen eta finala **urtarrilaren 20an** Gernikan), emakumezkoen 500 kilokoa (**urtarrilaren 7an** Berangon, **urtarrilaren 13an** Oartzunen eta finala **hilaren 27an** Pobesen), gizonzkoen 560 kilokoa (jardunaldi bakarra **ilbeltzaren 27an** Pobesen) eta txapelketa mistoa (lehen jardunaldia **urtarrilaren 14an** Lesakan eta finala **urtarrilaren 21ean** Araban) jokoan izanen dituzte eta, bukatzeko, 23 urtez beheitiko txapelketa **ilbeltzaren 28an** jokatu dute Berriozarren.

Euskal Herriko lanak bukatuta, **otsailaren 8tik 11ra** Suediako Helsinborg hirian jokatu da munduko txapelketa.

Karribaburuk irabazi du Bortz Kirol txapelketa

Erreka elkarteak antolatutako II. Bortz Kirol txapelketako finalean, lehen edizioko txapelkunak, Eihelarreko Jerome Karribaburuk 51-48 irabazi zion Narbarteko David Albiasuri abenduaren 16an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Hirugarren posturako lehian, Anoetako Aratz Luixak irabazi zion Doneztebeko David Mitxeori (41-33). Joseba Legarra Errekako presidentea, Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoa eta Maider Ilarregi eta Juan Telletxea zinegotziak izan ziren sari banaketan.

Ados elkartearen pilota txapelketa igandean Sunbillan

Ados pilota elkarteak antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa Sunbillara ailegatu da. Urtarrilaren 14an, igandean 10:00etan udal pilotalekuan hasiko den jaialdiko lehen partidaren, promozio txapelketako partida jokatu dute Galeanok eta Perezek, Ibarrola eta Nahia Bertiz herriararren kontra. Maila nagusiko partidaren, berriz, Naroa Elizalde Etxekolonea zubietarra eta Ane Mendiburu, Arrieta eta Maite Ruiz de Larramendi Mujikaren kontra ariko dira.

Oiztarrak nagusitu dira Nafarroako 24. Paxaka txapelketaren finalean

TTIPI-TTAPA IRURITA

Laxoa Elkartek antolatutako Nafarroako paxaka txapelketaren 24. edizioko finala jokatu zuten abenduaren 16an Iruritako Aranabian. Oizko Ioritz Zelaieta, Iker Bereau eta Laurendi Zelaietak 9-3 irabazi zieten Jon Sagaseta (Irurita),

Mikel Sagaseta (Irurita) eta Juan Mari Maiari (Elizondo). Hirugarren postua Jon Apeztegia (Doneztebe), Mikel Telletxeak (Doneztebe) eta Ugutz Zelaietak (Oiz) lortu zuten, Manu Irigoien (Erratzu), Egoitz Prim (Irurita) eta Kaiet Itoizi (Erratzu) 9-6 irabazita.



Paxaka txapelketako bikote onenak, antolatzaile eta sari-emalleekin. ONDIKOL



Baztango 42. pilota txapelketako hainbat parte-hartzaile Elizondon. FOTO ZALDUA

Baztango 42. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Sari banaketan izan ziren Artola eta Maiza pilotariak, Baztango alkatearekin eta NPFko lehendakariarekin batera

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Txaruta elkarteak antolatutako Baztango 42. eskuz binakako pilota txapelketaren finalak abenduaren 17an jokatu zituzten Elizondon eta Iruritan. Urriaren 6an hasita, Euskal Herriko eta Errioxako 184 bikotek parte hartu dute txapelketan.

Elizondon jokaturako finaletan, **Umeak A mailan**, Tolosako Ekhi Altunak eta Oier Bengoetxeak 18-17 irabazi zieten Lantzeko Ibai Ziganda eta Iruritako Mikel Agerralderi; **kimuak A mailan**, Oronoko Egoi Otxandorenak eta Urdazubiko Julen Agestak 18-11 irabazi zieten Bergarako

Inar Olanori eta Amets Agirre-ri; **haurrak A mailan**, Hernaniko Aratz Labakak eta Oier Arsuagak 18-9 irabazi zieten Oberenako Eneko Rekalderi eta Atarrabiako Sergio Santestebani; **kadete A mailan**, Hernaniko Ekhi Osesek eta Marokinako Unax Ibarzabalek 18-8 irabazi zieten Azpeitiko Ioritz Arsuagari eta Jokin Artetxeri eta **gazte mailan**, Villabonako Joanes Zestauk eta Elizongoko Ugaitz Apeztegiak 22-14 irabazi zieten Alegiko Harkaitz Muruari eta Mikel Iturriotzi.

Iruritan jokaturako finaletan, berriz, **umeak B mailan**, Atarrabiako Eneko Otamendik eta Abel Zabaletak 18-1 irabazi zieten Iruritako Axier Gamiori eta Elizondoko Nikola Alemani; **kimuak B mailan**, Leitzako Egoi Zabaletak eta Amets Olai-zolak 18-14 irabazi zieten Barañaingo Iker Bengoetxeari eta Joseba San Romani; **haurrak B mailan**, Naxarako Sergio Petacak eta Villabonako Xuban Illarramendik 18-15 irabazi zieten Iruritako Oihan Brañari eta Urdazubiko Ibai Agestari eta **kadete B mailan**, Leitzako Egoi Bidart-ek eta Oinatz Alkortak 18-8 irabazi zieten Arbizuko Asier Zubiriari eta Pello Gorraizi.

Sustrails Enduro BTT txapelketak sei proba izanen ditu aurten

TTIPI-TTAPA

Lehenengo edizio arrakastatsuen ondotik, aurten Bizibide Enduro Lasterketako bigarren edizioa jokatu dute maiatzaren 11-12ko asteburuan Lesakan. Lesakako Udalak jakinarazi du, iaz bezala, lasterketa Sustrails Open Enduro BTT txapelketaren barne egonen dela. Txapelketa hau Lesakako Bizibide BTT zentroan izanen du bere lehen jardunaldia.

Gainontzeko jardunaldiak Larra-Belaguan (ekainak 1-2), Arrasaten (ekainak 29-30), Ermuan (irailak 7-8), Basaburuan (irailak 28-29) eta Irrisarrri Land-en (urriak 19-20) izanen dira. Beraz, txapelketaren lehen eta azken proba Bortzirietan jokatu dira, Lesakan eta Igantzin.

Datozen asteetan, Lesakako udaleko bitarteko ofizialen bidez, lasterketaren programazioari eta izen-emateei buruzko informazioa zabalduko da.



UTZITAKOA

Uterga Eguberrietako txapeldun

Bigarren urtez segidan Eguberrietako buruz buruko erremonte txapelketa-Martiko Sari Nagusia irabazi du Xanti Uterga erremontista doneztebarrak. Abenduaren 21ean Iruñeko Labriten jokaturako finalean 30-21 irabazi zion Agoizko Mikel Otanori.



MAIALEN ANDRES

Oier Apeztexea txapeldunorde

Oier Apeztexea goizuetarra, Irazurekin batera, txapeldunorde izan da binakako erremonte txapelketako bigarren mailan, abenduaren 30eko final estuan Goikoetxea V.aren eta Aiestaran VI.aren kontra galduta. Final nagusian, Urrizak eta Azpirozok irabazi zieten Ansa II.ari eta Martiarenari.

«Errugbiak dena eman dit eta horrekin ahazten dira lesioak eta une txarrak»

ASIER ARRETXEKA BIDEKAIN NARBARTEKO ERRUGBI JOKALARI OHIA

Baztanen errugbian hasi eta 19 urteko ibilbidea egin du Asier Arretxeak, tartean Ordiziarekin goi mailan eta Euskadiko selekzioarekin ere jokatu du. Lesio larri bat tarteko utzi behar izan du

AITOR AROTZENA NARBARTE

Narbarteko Arretxebideko semea da Asier Arretxea Bidegain. Tresneria berezia egiten duen enpresa bateko elektrikaria da lanbidez, baina bere pasioa errugbian jokatzeko izan da. 36 urterekin, lesio bat tarteko, errugbia utzi behar izan du eta BRT Menditarrak taldearen omenaldia ere hartu zuen azaroaren 18an Lekarozen jokatu zuten partidaren aitzinetik. Errugbiak dena eman diola dio *Hankaxurik*, nahiz eta, irri artean, palmarek handirik ez duela onartu: «Palmarek ttikia, Baztanekin gure mailako txapeldun atera ginen behin, eta Ordiziarekin Espainiako superkopako txapeldun orde».

Noiz eta nola hasi zinen errugbian? Non eman zenituen lehen urratsak kirol honetan?

Erdi maila ikasketak (elektrozitate) Iruñean egiten ari nintzela BRTko jokari batekin ikasten nuen eta hark komentatu zidan errugbian hasteko. Horretaz gain, Dantxarinear aritzen nintzen asteburutan lanean eta bertan iparraldeko jendea zegoen eta haiek ere probatzeko erraten zidaten. Bentetan egin nituen lehenengo paseak meloiekin, baita baten bat lurrera erori ere. Azkenean entrenatzera animatu nintzen eta gero partidu baten bat ikusi ere. Bertan Bengotxea, Iribarren eta Ezkurra anaiak jokatzeko ikusi nituen eta ikusmina handitu



Asier Arretxea Ordiziarekin ohorezko mailan aritu zen garaian. UTZITAKOIA

zitzaidan. Hura ikusita konturatu nintzen ez zegoela jokalaririk, edonork joko ezakeela, postu aunitz eta ezberdin zeudelako.

Ibilbide luzea izan duzu: BRT, Ordiziarekin ohorezko mailan, Nafarroa, goi mailako kirolari izendatu zintuzten...

Jubenil mailan hasi nintzen Baztanen eta gutxira seniorretan egin nuen debuta eta hor ibili nintzen urte osoa jubentilekin eta seniorrekin

jokatzeko. Tarte horretako bi jokalaririk deitu ziguten Nafarroa sub20n (Baigorri eta Donibane Garaziko taldea) jokatzeko. Iparraldean bertze erritmo bat dute, bertze errugbi bat da. Bertan ez genuen partidurik jokatu (fitxekin arazoak izan ziren), baina hala ere, aunitz ikasi nuen. Baztanera bueltan zortzi bat urte jokatu nituen seniorretan, orduan liga berregituratu zen eta BRTk, liga zoragarria egin

ondotik, ohorezko B mailan jokatzeko aukera lortu genuen. Baina, ekonomikoki etaligaren gogortasuna zela eta, ez genuen onartu igoera. Pena handia hartu nuen, baina une horretan Ordiziarekin deitu ninduten. Bertan lehenengo urtean errugbian bakarrik zentratu nintzen, ez nuen lanik egiten, hasiera gogorra izan bazen ere, pixkanaka-pixkanaka taldean egonkortzea lortu nuen eta titular moduan akitu nuen, eta arras pozik, atzeritar fitxajeak baitzeuden taldean, Samoa, Zeelanda Berria edo Hego-Afrikako jokalaririk. Bigarren denboraldian, lana eta han bizitzea eskaini zidaten, baina ez zen lehenbiziko denboraldia bezala joan: minutuak jokatzeko nituen, titulartasun batzuk partekatuz, orduan etorri zen belauneko lesio larria (belauneko tendoi-rotulianoa xehetu nuen). Urte gogor baten ondotik, BRTrekin jokatu nituen *play-off* eta nahiko maila onean. Ordiziarekin deitu zidaten Euskal Herriko mugarteko txapelketa jokatzeko, polita izan zen iparraldeko taldeekin jokatzeko, partidu parekatuak ziren, abiadura ikagarria, tentsioa nabaria zen hegoaldeko eta iparraldeko taldeekin, inork ez zuen galdu nahi eta entsegu bat egitea ere lortu nuen. Gero Euskadiko selekzioaren deia jaso eta partidu polit bat jokatzeko aukera izan nuen. Berritaz Baztanen jokatzeko hasi nintzen, berritaz Ordiziarekin deia jaso arte. Zalantza aunitzekin berritaz onartzea erabaki nuen, baina honetan ez nituen nahi nituen minutuak jokatu, eta bidaiak eta lana medio, denboraldi erdian bueltatzea erabaki nuen. Aita ere izan nintzen eta Baztanen jokatu dut, baina orain errugbia utzi behar izan dut, belauneko tendoiak hautsi baitzait. **Ibilbide guzti horretan zer da gehien bete edo harrotu zaituena?** Gehien bete ninduen BRTrekin, jausteko geundela, partidu horretan bi entsegu egin

eta partidua irabaztea lortu genuen. Liga irabazi izan bagenu bezala ospatu genuen. Ordizian, berriz, VRAC taldearen aurkako finalerdia gogoan dut, Ordiziatik zortzi autobus joan ziren eta harmailetan *Hankaxuri!* oihuka entzutea izugarria izan zen. Ohorezko mailako nire partida onena izan zen, nahiz eta partida galdu. Pozik nago egindako ibilbidearekin, jarri ditudan helburuak lortu ditut, ohorezko mailan 34 partidu jokatzeko aukera izan dut, baita Euskadiko selekzioarekin ere. Baztanen ere urte mordo egin ditut eta pozik nago, gainera bi urtez izendatu ninduten goi mailako kirolari.

Beharbada okerreka lesioak izan dira? Duela hamar bat urte izan zenuen bat gogorra eta orain bertze batengatik utzi behar izan duzu errugbia... Hori da maku-rena?

Kirol guztietan bezala, txarre-na lesioak bai, belauneko tendoa bi aldiz hautsi zait eta horrek eraman nau errugbia uztera, baina errugbiak aunitz eman dit eta horrek lesioak ahaztea egiten dizu, nahiz eta une txarrak pasa. Taldekideek aunitz lagundu didate.

Eskualdeko taldean, Ampo Ordizian, Donibane Garaziko Nafarroa taldean, euskal selekzioan... bakoitzak bere bereizgarriak izanen dituzte...

Ezberdintasun handia dago: BRT kirola egiteko, besta egiteko, denetarako hor dagoen herriko klub xumea da. Nahiz

«POZIK NAGO NIRE IBILBIDEAREKIN, HELBURUAK LORTU DITUT ETA»

«HIRUGARREN DENBORAK IKARAGARRIAK DIRA BAZTANEN»



Asier Arretxea BRT-Menditarrak taldearekin jokatu zuen partida ugarietako batean. UTZITAKO ARGAZKIA

eta 20 urte pasa eta jokalariaik aldatu, berdin jarraitzen du. Politika sanoa du, adibidez, urtero gaupasa egiten dugu dirua lortzeko eta bai beterranoak, baita gazteak ere, elkartzen gara hori aitzinera eramateko. Erran bezala, familia bat gara eta Baztanen hirugarren denborak ikaragarriak dira, ez dut bertze taldeetan ikusi. Ordizia, berriz, talde profesionala da, ezberdina, entrenamendu gogorak eta ingelesez-gazteleraz egiten dira, gimnasioko sesioak, etxeko partidak bereziak dira (jende aunitz hurbiltzen da ikustera) eta kanpoko partidetan, berriz, asteburu guztia etxetik kanpo eman behar genuen, igandetan jokatzeko baikenuen eta urrun, Sevilla, Madril... Jokalari profesionalak zeuden eta beraien abiadura eta jakinduria guri erakusten saiatzen ziren.

Zer eman dizu eta zer kendu dizu errugbiak? Zer da edo izan da zuretzat errugbia?

Errugbiak dena eman dit. Erran bezala, Baztan taldeari arras eskertu nago, talde bat baino gehiago da, kuadrilla, familia... ez dakit nola erran. Denerako hor dago, juerarako, auzolana egiteko, bidaiatzeko... urtero egiten dugu asteburuko bidaiaren bat, neskalagunak ere errugbian jokatzeko familia izan arte. Orain bi neskatxo dauzkat eta gustatuko litzaidake beraiek ere Baztanen jokatzeko, orain nesken taldea osatzean ari garelako.

Ibilbide guzti hori eskertzeko eta omentzeko BRTk omenaldi hunkigarria egin zizun Lekarozen... Hori ere oroigarri polita izanen da zuretzat...

Bai BRTk omenaldi hunkigarria egin zidan, ia 20 urte eta gero. Jokalari moduan agur errateko ordua iritsi da. Nahiz eta amestutako bukaera ez izan, halere, zoragarria eta imajina ezina izan zen. Eskerrik asko BRT, bukaera gazi-gozoa izan da, baina hor daude azken entrenamenduak (es-

kerrik asko Iñaki eta Joxe), partiduen aitzinetik duzun urduritasuna, partiduak berak eta, nola ez, hirugarren denborak... Ohore bat izan da 6 zenbakia horrenbertze denboraz bizkarrean eramatea. Badakit taldea esku ezin hobekoetan utzi dudala eta aurtengo helburua lortuko dugula elkarrekin, talde ikaragarria dugulako. Gora BRT! **Etorrizunera begira, errugbiarekin nolabaiteko lotura izanen duzu edo zure lanean zentratuko zara gehiago?**

Oraindik ez dut errugbia utziko dudala asimilatu, baina taldeari laguntzeko intenzioa dut, bai seniorrei edo nesken taldean, lan hori familiarekin partekatuz.

Bertzerik?

Bakarrik eskerrak eman errugbiari eta errugbiak eman dizkidan lagunei, eta denari, eskerrik asko familiari, eta Ana neska-lagunari, Udane eta Enara alabei... nire gozamenaren zuten esfortzua baita.

AGENDA

URTARRILAK 11 - 25

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ONDIKOL

ELIZONDO San Anton eguna

Txistulariak izanen dira, 11:00etan zopak banatuko dituzte eta 13:00etan zozketa egingen dute. Plazan, urtarrilaren 17an, goizez.

SOLASALDIAK

IGANTZI

'Orreaga-Roncesvalles 778-824'

Patxi Zabaletaren eskutik. Biltoki elkartearen, urtarrilaren 12an, 19:30ean.

LEITZA

'Noiz erosiko diogu sakelekoa?'

Miren Rosen eskutik. Herri Aretoan, urtarrilaren 12an, 17:30ean.

DONEZTEBE

'Zer ari da gertatzen Palestinan?'

Lidon Sorianoren eskutik. Herriko ostatuan, urtarrilaren 14an, 18:00etan.

ELIZONDO

'Premiazko iraultza: Aitatasun erantzunkidea' tailerra

Arizkunenean, urtarrilaren 19an 17:00etatik 20:00etara eta 20an 10:00etatik 13:00etara.

PROIEKZIOAK

SENERE

'Estixu' dokumentala

Larrekon, urtarrilaren 11n, 19:30ean. Sartzea urririk.

BERA

'Nepaldala' dokumentala

Kultur Etxean, urtarrilaren 12an, 19:30ean. Sarrerak 5 eurotan.

'Mundua arnastu nahian' dokumentala

Kultur Etxean, urtarrilaren 13an, 19:00etan.

LEITZA

Zinema

Herri Aretoan, urtarrilaren 20an eta 21ean. 17:00etan 'Bidasoa 2018-2023' dokumentala eta 19:30ean 'Napoleon' filma.

IRURITA

'Bidasoa 2018-2023' dokumentala eta solasaldia

Gizarte Bilgunean, urtarrilaren 21ean, 18:00etan.

JARDUNALDIAK

BERA

XVII. Mendi eguna

Urtarrilaren 13an.

ZUBIETA

San Anton eguna

Urtarrilaren 17an.

ELIZONDO

San Anton eguna

Plazan, urtarrilaren 17an, goizez.

BAZTAN

(H)ilbeltza Euskal Nobela Beltzaren Astea

Arizkun, Anizen, Berroetan, Iruritan, Elizondon eta Erratzun, urtarrilaren 22tik 28ra.

MUSIKA

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, urtarrilaren 14an, 12:30ean.

BERROETA

Baztan Kantuz

Plazan, urtarrilaren 21ean, 12:00etan.

BERA

Txistu emanaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 22an, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Euria' antzezlan

Markeliñe konpainiaren eskutik. Herri Aretoan, urtarrilaren 14an, 18:00etan.

BERA

'Futbolistok' bakarriketa

Zuhaitz Gurrutxagaren eskutik. Kultur Etxean, urtarrilaren 14an, 18:30ean.

BERTZELAKOAK

IRURITA

Bertso bazkaria

Julio Soto, Nerea Ibarzabal eta Iker Zubeldiarekin. Gure Kaiola elkartearen, urtarrilaren 13an, 14:30ean.

ELIZONDO

Familiendako mozorro tailerra

Amaia Zinkunegirekin. Arizkunenean, urtarrilaren 20an, 27an eta otsailaren 3an, 10:30etik 13:00etara. Izen ematea urtarrilaren 15era arte, 948 581 279 zenbakian edo kultura@baztan.eus helbidean.

«Maiteminaren pareko sentsazioak ditut oholtzan nagoenean»

IONE ZOZAIA IRATZOKI ZUGARRAMURDIKO ARTISTA



Hitz bakarra ez du aski Ione Zozaia Iratzokik bere burua deskribatzeko: «Zugarramurdiko neska euskalduna, alaia, artista, abenturazalea eta bizitzaren maitalea» dela azaldu dio TTIPI-TTAPari. Pasioz bizi du bizitza eta bere afizio zerrenda luzea da horren erakusle. Arrapaladan izendatu ditu guztiak: «musika, kantua eta ahotsa, interpretazioa eta antzerkia, argazkilaritza eta ingurunearen behaketa. Natura, hura inguratzen duen fauna eta flora oro, baina batez ere itsasoa edota ur azpiko paradisua. Naturan jorratzen diren kirolak, pala, igeriketa eta mendizaletasuna. Bidaia-tzea, margotzea eta idaztea ere izugarri gustatzen zait». Horiek guztiak egin ahal izateko, bertze pare bat ere gaineratu ditu irri artean: «lo egitea eta jatea». Hala dio:

«guztiak probatu eta lantzeko bizitzak nahikoa ordu ez dizkidalda eskainiko» sentitu izan duela maiz.

Dena den, bada horien guztien artean nabarmentzen den bat: musika. *Zer ikusi, hura ikasi* erran ohi da eta musikarekin duen lotura etxetik datorkiola azaldu du: «aita musikaria da eta ama musikazalea, etxean betidanik aditu dut musika». Aitortza ttiki bat ere egin du: «haurra nintzenean etxeko lanak egitea baino nahiago nuen kantuan ibiltzea. Gogoan dut ispilu aitzinean jarri eta disc-

«ORAINA TOPERA BIZI ETA ZEHARKA BEGIRATZEN DUT ETORKIZUNERA»

mana topera jarrita Shakiraren diskoa behin eta berriz kantatzen nuela».

Lehenbiziko pausoak

2016an, sorterritik urrun, egin zituen abeslari izateko lehenbiziko urratsak: «Lisboara joan nintzen Erasmus programarekin eta ia *kantante* bihurtuta itzuli nintzen handik». Bertan ezagutu zuen gaur egun bere lagun, musika kide eta bikotekide den Agus: «berarekin hasi nintzen runbak abesten. Praktikak finitu orduko gitarra hartu eta terrazan jartzen ginen ezagunak genituen kantak bi ahotsetara ateratzen». Agusek Lisboatik itzulita talde bat osatzeko proposamena egin zion eta Burrenba taldea sortu zuten, «horrek ireki zuen Kilimak taldea sortzeko bidea».

2021ean kaleratu zuen Kilimak taldeak lehenbiziko diskoa eta horretara iritsi arteko bidea nabarmendu nahi izan du Zozaiak: «partaideak gehiago elkar ezagutzera, konektatzera eta norberaren frustrazioak biluztera ere eraman gintuen». Momentuka gozoa, berteetan samina izan zen bidea, baina bere hitzetan: «bizi guztirako gelditzen den zerbait sortu eta kaleratzeak ez du preziorik». Gaur egun, zer hobekuntza beharko litzukeen ikusten dabilta eta horretarako: «ustekabeko giroetan gabilta lanean, hurrengo urteko bira prestatzen eta sorpresak kaxetan sartzen».

Proposamen berezia

Proposamen berezia da Kilimak taldeak egiten duena; oinak mugiarazten dituzte, baina

baita kontzientziak ere: «musikaren bidez jendeari buruhausteetatik ihes egiteko bide bat eman nahi diogu. Gozaraztea da helburua, baina mezu sozial edota ironikoak ere botatzen saiatzen gara; umorearen bitartez jendeen kontzientzian gelditu daitezten».

Oholtzako sentsazioak

Oholtzara igotzen denean, maiteminaren pareko sentsazioak dituela azaldu du: «maiteminduta zaudenean sentitzen diren kilimen antzekoak sentitzen ditut. Adrenalina subidoia eta publikoarekiko izugarriko maitasuna». Maitasunean bezalaxe, dena ez da beti gozoa: «ez ditut beti sentsazio onak bakarrik sentitu. Beldurra, segurtasun eza edota haserrea ere esperimentatu ditut, baina ezin konparatu sentitzen dudak indar eta emozio ikaragarri horrekin».

Hainbat funtzio ditu musikak: «hura aditzeak hainbat lekutara bidaiatzeko atea zabaltzen du: nire barrenera, imajinazio-ra, pertsonengana, bidaiatutako lekutara...». Bere buruarekin konektatzeko bidea ere badela dio: «funtzio ludiko bat ere badu. Gozatzeko aukera ematen dit, baina orokorrean neure burua hobeki ezagutzera narama, esperimentatuzera».

Etorkizuna

Oraina «topera, ehuneko ehunetan bizitzen» saiatzen dela azaldu du Ionek, «hori baita seguru dugun gauza bakarra». Dena den, etorkizunera «zeharka begiratzen ere» saiatzen da, «norabidea eta helburuak presente edukitzeko». Argi baitu zein den bete nahiko lukeen ametsa: «nire pasioei ahal bezain energia eta denbora gehien eskaini eta musikak edota arte eszenikoek noizbait nire hozkailua eta sakela lasai bizitzeko adina betetzea».

«OINAK ETA KONTZIENTZIAK MUGIARAZI NAHI DITUGU»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTAN. Elizondo inguruan, baserri, etxe edo pisua errentan hartu nahi dute. ☎622 40 21 95.

SALGAI


DONOSTIA. Etxebizitza salgai. 310.000 €. 65 m². 4. pisua. parking-a. 3 logela, 2 balkoi, eguzkia egun osoan. Etxea ekipatua. Autobus/tren geltokiak eta autopista bertatik bertara, hondartzaz/mendia 5 minutu. ☎617 24 97 99.



OIZ. Etxe galanta salgai, bi familia-koa. 300m² eta 342m² lorategia. 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



DONEZTEBE. Pisua salgai, 61m² eta trasteleku-logela komunarekin aparte ganbaran. Berritua. 114.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



LEGASA. Pisu polita salgai, berritua, 94m², balkoiarekin. 120.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Bidasoa karrika 3. postetxe-ko sotoan, bi garaje salgai. ☎647 58 88 51.

LANA

ESKAINTZAK

LEITZA. Torrea Herrikoan sukaldari bat behar dute. Bidali curriculumak: Torreaherrikoa@ni.eus.

SUNBILLA. Ariztigain Kanpinean urtarril erditik aitzinera sukaldari, zerbitzari eta garbiketan aritzeko langileak behar dituzte. ☎636 48 83 00 edo 660 79 82 49.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

DANTXARINEA. Mikelenborda bentako dendan eta harategian urte osoan aritzeko langilea behar dute. Euskara eta frantsesa jakitea beharrezkoa. ☎690 38 81 34 / 948 59 90 45.

BERA. Harategi batean aritzeko harakina behar dute. ☎948 63 00 54 / 661 64 11 31.

BERA. Ibardingo Benta Peion saltzaileak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

URDAZUBI. Dantxarineko Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

LUZAIDE. Luzaideko Benta Peion saltzaileak eta zerbitzariak behar dituzte. Lanaldi osoan aritzeko edo asteburuetan lan egiteko. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. Bidali curriculumak: travailleza-vecnous@ventapeio.com.

BERA. Ubela mekanizazio eta gal-daragintzako tailerrean bulegoko teknikaria behar dute. Mekanizazio eta Diseinuan Goi Mailako Gradua izatea eta CAD eta CAMen programazioan esperientzia izatea beharrezkoa da. administracion@ubela.net. ☎ 948 63 11 67

ESKARIA

Neska bat interna ariko litzateke. ☎667 22 17 51.

Mutiko gaztea lan bila. Lanerako gogoz, azkar ikasten duena. Fabrian eta ostalaritzan esperientzia duena. Lanean hasteko prest. Autorik gabe,

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,39 €
- 1.koa 5,16 €
- 2.koa 4,93 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,93/4,33 €
- Zaldi-behorrak: 1,90/2,07 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 11,0/11,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,30/9,00 €

ZERRI-AZIENDAK

- Zerrikumea (19 kilo): 90 €
- Zerri gizona 1,589 €
- Zerramak 0,840€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua libeltzaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

baina gidabaimenarekin. ☎600 97 99 85.

Ordu batzuek lanean aritzeko prest. ☎628 09 04 98

ANIMALIAK

OPARITZEKO




BAZTAN. Bi hilabeteko zakurkumeak oparitzeko. Ama mastina eta aita euskal artzaina. ☎650 02 46 95 / 696 17 31 11.

Ama Border Collie duten zakurkumeak oparitzeko. ☎690 15 46 44.



Collie arrazako zakur polit hau oparitzeko. Mendian ibiltzea asko gustatzen zaio. ☎948 58 11 36.



Spaniel Breton arrazako txakurra, emea, sei urtekoa, opari emateko. ☎620 73 50 89 / 669 95 41 35

SALGAI



GOIZUETA. Betizuak salgai, sasio-koak eta eskura eginak. ☎655 70 60 73.

10 ardi mutur gorri ernari salgai. ☎607 89 09 66.

DENETARIK

SALGAI

Motoan ibiltzeko ekipazioa (kaskoa, botak, galtza, kazadora...) eta hes-tebeteak mozteko makina salgai. ☎610 94 35 88.




Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



UPPA BABY CRUZ silleta eta kapazoa salgai, 2021 ean erosiak. Oso egoera onean. Motxila eta aulkia babesteko funda aukeran. Ikusteko eta prezioaz solastatzeko deitu. ☎678 29 50 18.



Egongelako egurrezko altzariak salgai. Egoera onean. ☎696 28 73 28.



Festuca, bazka (forrajea) eta lastoa salgai. Balotak edo fardoak lau edo sei sokakoak. Lasto pikatua ere bai. Ekoizleak gara. Salmenta zuzenean abeltzainei. ☎607 45 70 04.

Maiatz-belarra eta urribelarra salgai. ☎618 96 27 74.



2 koltxoi eta 3 kajoiko ohatzea salgai. Egoera hagitx onean. Armazoiak: 204x88x116. Ohatzeak: 105x195 eta 90x180. ☎699 10 77 29.

MOTORRAK

SALGAI

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT TALISMAN TCE 150 EDC
Aldagailu automatikoa - Gasolina
57.500 Km - Nabigatzailea,
klimatizagailua, kristal tindatuak...
16.500€
www.laloresantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@laloresantesteban.com

IZARRA
HEREN, ZURE ONDOAN
ANUELA ETXERAN

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

Herencias y Gestión

Zer gertatuko da nire ondasunekin testamenturik egin gabe hiltzen banaiz?

Nafarroan erregimen berezia dugu, foru erregimena, eta horren bidez arautzen dira oinordetzako gai guztiak.

Gai horri dagokionez, Nafarroako erregimena eta Espainiako erregimen komuneko erregimena ez dira berberak, ezta erregimen historiko propioa duen Euskal Autonomia Erkidegoko erregimenarekin alderatuta ere.

Nafarroako foru berriak aurreikusten du pertsona bat testamenturik egin gabe hiltzen denean, honako hau izanen dela oinordetza-ordena: lehenik eta behin, haren ondorengoak (seme-alabak baleude; bigarrenik, haren ezkontidea edo bikotekide egonkorra; hirugarrenik, gurasoak; eta laugarrenik, anai-arrebak, inolako bereizketa gabe. Inoiz ez da gertatzen maiz entzun ohi dugun esaldi hau: "Nafarroako Gobernuaren esku gelditzen dira ondasunak". Beti agertzen da oinordetza bat erreklamatu ahal izateko.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

BAZTAN BIDASOA
Herentzia Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBE n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

OROIGARRIA



**Pello
IRAZOKI ERRANDONEA**
Beran 2023ko abenduaren 22an hil zen,
73 urte zituela.



**MIKELENEA
1609**
*Urak dakarrena
Urak darama
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.
Adiorik ez Pello.*

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Modesto
ALMANDOZ TABERNA**
Irunen, 2023ko urtarrilaren 10ean
I. URTEURRENA



Gogoan zaitugu.


ZURE FAMILIA

HILBERRIAK

- **Helene Richer**, Sarakoa, abenduaren 3an 93 urte zituela.
- **M^a Luisa Etxegarai**, Sarakoa, abenduaren 12an, 93 urte zituela.
- **Nikasio Goñi Mitxelena**, Berakoa, abenduaren 15ean, 80 urte zituela.
- **Salvador Tamayo Taberna**, Arizkungoa, abenduaren 15ean, 75 urte zituela.
- **Esther Garro Iparragirre**, Doneztebekoa, abenduaren 15ean, 79 urte zituela.
- **M^a Elena Lasaga Munarriz**, Oieregikoa, abenduaren 15ean.
- **Jose M^a Arnedo Garcia**, Berakoa, abenduaren 17an, 86 urte zituela.
- **Ixabel Txoperena Almandoz**, Lesakakoa, abenduaren 18an, 79 urte zituela.
- **Julia Irazoki Laurenzena**, Zugarramurdikoa, abenduaren 19an, 89 urte zituela.
- **M^a Jesus Elizalde Jaimerena**, Arizkungoa, abenduaren 22an.
- **Caridad Barcena Ruiz**, Berakoa, abenduaren 22an, 82 urte zituela.
- **Pello Irazoki Errandonea**, Berakoa, abenduaren 22an, 73 urte zituela.
- **Maritxu Buldain Rekondo**, Leitzakoa, abenduaren 22an, 79 urte zituela.
- **M^a del Rosario Bravo Rodríguez**, Berakoa, abenduaren 23an, 96 urte zituela.
- **Jose Manuel Egozkue Sobrino**, Elizondokoa, abenduaren 24an, 77 urte zituela.
- **Juan Maria Iturralde Pikabea**, Etxalarkoa, abenduaren 26an, 84 urte zituela.
- **Gurutze Ubiria Maia**, Lesakakoa, abenduaren 27an.
- **Lourdes Urroz Ezkurra**, Berakoa, abenduaren 27an, 79 urte zituela.
- **Jose Angel Vicuña Zugarramurdi**, Berakoa, abenduaren 27an, 83 urte zituela.
- **Micaela Errandonea Alzuguren**, Berakoa, abenduaren 28an, 75 urte zituela.
- **Anita Aierdi Baraibar**, Leitzakoa, abenduaren 29an, 87 urte zituela.
- **Juan Zelaieta Aramendi**, Berakoa, abenduaren 30ean, 86 urte zituela.
- **Juan Etxandi Elorga**, Elizondokoa, urtarrilaren 1ean, 85 urte zituela.
- **Pello Perurena Intxauspe**, Goizuetakoa, urtarrilaren 1ean, 68 urte zituela.
- **Felisa Almandoz Agirre**, Lesakakoa, urtarrilaren 2an, 91 urte.

URTEURRENA

**Felix
JORAJURIA ALMANDOZ**
Arantzan, 2023ko ilbeltzaren 4an
I. URTEURRENA



*Arantzan eta inguruan
zenbat buelta eginak mendian.
Zauden lekutik
agian ikusiko dituzu zure mendiak.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Pello
PERURENA INTXAUSPE**
Goizuetan, 2024ko ilbeltzaren 1ean



*Pello laguna «beste aldera»
joan hadi pozez beteta
aspaldi hontan Mikel Laboa
hire zain han zegok eta.*

HIRE LAGUNAK

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK



Igantziko **Manex Migelena Muniategik** 2 urte beteko ditu urtarrilaren 11n. Zorionak gurasoen eta etxeko guztien partetik.



Mila kilo zorion bikote!!! **Gorkak** urtarrilaren 6an bete ditu urteak eta **Eneko** urtarrilaren 22an beteko ditu. Ilargiraino eta bueltan maite zaituztegu!! Muxu handi bana!!



Zorionak artista!!! **Eneko** urtarrilaren 22an 4 urte beteko ditu. Prestatu merienda goxo-goxo bat Zugarramurdiko eta Etxalarko familiarentzat!! Muxu handi bat!!



Etxalarko **Gorkak** urtarrilaren 6an bete ditu urteak. Jarraitu orain arte bezala. Espero dugu ongi ospatu izana. Etxekoan partez, bereziki Eneko eta Josuneren partez!! Muxu bana!!



Doneztebeko **Iraide Gogorza Etxeberriak** 10 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu asko amaren partez.



Sunbillako **Iraide eta Garaine Iriarte Petrirenak** eta **Ander Petrirena Gorosterrazuk** urtarrilaren 19an eta 24an 15 eta 6 urte beteko dituzte. Auniz urtez hirukote familia guztiaren partetik. Afari goxo batekin ospatuko dugu. Muxuak.



Mikel San Sebastian lesakarrak urtarrilaren 11n urteak beteko ditu. Aurten, kalean gaudenontzako hurbilago zaude, zuek, barrukoek, pareta lodi tartean segitzen duzue berdin. Segituko dugu lanean denak etxean izan arte. Familia guztien partez besarkada bat eta indarrak. Maite zaituztegu.



Mixilteneko bordako **Joanes eta Jare** bi *xaltxero* hauek urtebetetze eguna dute urtarrilaren 3an eta 27an. **Joanesek** 2 urte bete ditu eta **Jarek** 6. Muxu handi-handi bat denen partetik, bereziki Xune zuen ahizparen partetik!

KONTATU KONTUAK



Errigorako saskiak eta Eguberrietako loteak banatu ditu TTIPI-TTAPAK. Aitzineko aldietan bezala, joan den urte hondarrean ere, Errigorako hiru kutxa zozketatu zituen TTIPI-TTAPAK. Argazkian Aitor Arotzena TTIPI-TTAPAKO zuzendariarekin ageri diren Ruth Gonzalez (Bera), Judith Etxeberria (Arantza) eta Maitane Alzuguren (Etxalar) izan ziren sarituak. Horrez gain, Eguberrien seinale, bertze hiru lote ere zozketatu zituen TTIPI-TTAPAK Mekna duten harpededunen artean. Irabazleak argazkian ageri diren Jaione Iraola (Bera) eta Eduardo Almandoz (Doneztebe) eta irudian falta den Marijose Mayora (Irurita) izan ziren. Zorionak! Eta bide batez, eskerrik asko zuri, irakurle, TTIPI-TTAPAK aitzinera egin dezan oinarria zarelako!

MEZU GORDEA



Marraskiak: Carballo Ubeda (Alumni)

ZORIONAK!
JIMENA GONZALEZ PEREZ
844. aleko irabazlea zara!



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Logintzailea:

ibaizabal

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaltzekin urtarilaren 15a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whattsappera: (0034) 744 48 43 61 zure izen abizenak jarrita. Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu! Hurrengo alean azken saria banatuko dugu.



INTERNETEN ERE BAI!

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

ENGAINAGARRIAK



Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur. Gaixoak. Honako zortzi irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez dastoiz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



Ttípi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koordinak: 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

844 zenbakiko irabazleak >

EGUBERRIETAKO 1. LOTEA
Marijose Mayora Sarratea | IRURITA
EGUBERRIETAKO 2. LOTEA
Jaione Iraola Rozas | BERA
EGUBERRIETAKO 3. LOTEA
Eduardo Almandoz | DONEZTEBE



ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com



Sarrera bat

MARTIKO
www.martiko.com



Lote bat

SALTING IRUÑA
www.salttingcenters.com



Bi sarrera

ELKAR
www.elkar.eus



Liburu sorta

IZAR PARK
www.galanpark.eus



Sarrera bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttípi Txartelak
eskaintzen dizkizun
abantailak, Ttípi Txartela
onartzen duten denda eta
zerbitzuetan erosiz.

MUSIKA

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttípi-Ttapa aldizkari
guztietan Ttípi Txartelaren informazioa argitaratzen
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun
deskontuak oroitaraziz!

baga-biga
BAGAJA BIRRI
BAGAJA BIRRI

www.baga-biga.eus